





Zientzia eta kultura PROIEKTUA

2023-2028



Entseatu denak HARTZA,
entseatu ez denak ez PARTZA!

Aurkibidea





**KONTAKIZUN BAT
BERRERAIKI**

p.67

5



**PUBLIKOEI ZERBITZUA
HOBEKI
ATERPETU**

p.85


7



**PROIEKTUAN DEN
MUSEOAREN
URRASPIDEA:
METODOLOGIA BERRIA**

p.111

9



**GAITASUN
ZIENTIFIKO
ETA TEKNIKO
GARATU
ETA ZABALDU**

p.79

6



**KOMUNIKAZIOA ETA
PARTAIDETZAK, OSPE
ETA IRAKURGARRITASUN
ERRONKA**

p.99

8



GEHIGARRIAK

p.125

ZER DA MUSEO BATEN ZIENTZIA ETA

Zientzia eta kultura proiektua (ZKP) dokumentu bat da, museoaren politika orokorra zehazten duena, heldu diren urteetarako bere orientabide nagusiak, bere eginkizun guztien bidez, existitzen diren leku kritikoaren egoera baten gainean oinarrituz eta helburu estrategikoak ezarriz (obretan batez ere). Betiere, museoaren ingurumena kontuan hartuz (kultur, historia, geografia, ekonomia testuinguru):

- bildumak: kontserbazioa, zaharberritzea, eskuratzea, kudeaketa, ikerketa.
- lurralde proiektuaren baitan poloak zabaltzeko baldintzak, handiagotze baten baldintzak Baionan museo auzotegi batera buruz.
- publikoak: publikoen ezagutza, publikoen politika, harrera, kultur eta pedagogia aktibitateak, museografia.
- helburu horiek lortzeko bideak dagoenaren diagnostikoa jartzen eta ekipentzat erreferentzia bateratua, bai eta museoko tutoretzekin eta partaidetzeekin burutu lanerako finkatzen duen dokumentu koadroa da.

Bere lurraldeari eta existitzen diren beste erakundeekin loturik, museoaren lekua, funtzioa eta antolaketa zalantzan jartzea eskatzen du ZKP baten lantzeak. Horrela, bildumei dagokienez, haien osaketaren historikoari, izaerari, indarguneei, kudeaketari (erreserbak, erakusketa gelak...), estatusari (gordailuak...) esker, bildumak identifikatu eta ezaugarritzen ahal dira (indarrak, ahuleziak, hutsuneak...), alderagarriak direnekin perspektiban jartzen ahal dira, eta haien balioa eta jendearentzat eskuragarriak izateko zehazten da (museoetako langileendako eta publikoarendako tresna numerikoen garapena, adibidez), edota ere nola indartu eskuratze politika (lehentasunak, aitzinkondukoak...).

Dokumentu horietan biltzen diren proposamenak, aldi berean, dagoenaren jarraipenean sartzen dira, baina berrikuntzak eta garapenak proposatzen dituzte ere zenbait alorretan.

Proposatzen diren lan ildo handiek zeharkako galdera handi bati erantzutea dute xede, kulturak lurralde baten izarian txertatzeari eta, historian eta gaur arte euskal eta gaskoi kulturen arteko harremanei. Hauek dira ZKP-k programazio gaiak

bilakaratzen dituzten gai nagusiak. Museoaren zerbitzu guztiak, bildumak, erakusketak, bitartekaritza, ikerketa eta beste lurraldeetako partaideekiko harremanak elikatzen ahalbidetuko dituzte hauek. Tokiko kulturaren aberastasun eta berezitasunari buruzko argitasun berriak ekarriko dituzte lan ildo horiek, gogoeta gaiak proposatuz, irakurketa gakoak, euskal lurraldean eta Pirinio Atlantikoetan eta Hego Euskal Herriarekin (Hegoaldea) lotuak diren kultura trukaketa eta elkarbizitza fenomenoetara hurbiltzeko, orokorkiago baliagarriak izanez.

Museoaren irudia berritzen eta haren tokiko, nazio mailako eta mugazgaindiko erradiazioa indartzen lagunduko dute, kultur erakunde berritzaile bezala kokatuz.

KULTURA PROIEKTU BAT?

MUSEOAREN DEFINIZIOA

ICOMen ezohiko biltzar nagusiak museoaren definizio berri baten proposamena onartu du, Pragan, 2022ko agorrilaren 24an, bozen % 92,41ekin (Alde: 487, Kontra: 23, Abstentzioa: 17).

Onarpenaren ondotik, hau da ICOMeko museoaren definizio berria:

“Erakunde iraunkorra eta irabazi asmorik gabekoa da museoa, gizartearen zerbitzuko. Ondarea materiala eta ez-materialaren ikerketa, bilketa, kontserbazioa, interpretazioa eta erakusketari eskainia. Publikoari irekia, eskuragarri eta inklusiboa izanki, aniztasuna eta iraunkortasuna sustatzen ditu. Molde etiko eta profesionalean ekiten eta komunikatzen dute museoek, komunitate desberdinen parte hartzearekin. Haien publikoei heziketa, libertimendu, gogoeta eta ezagutzen partekatze esperimintatze desberdinak eskaintzen dizkiete.”

Euskal Museoaren harrera



QOQOETAN PARTE HARTU DUTE

EUSKAL MUSEOKO TALDEA

Sabine Cazenave, Baionako Euskal Museoaren kontserbatzaile burua eta zuzendaria.

Jacques Battesti, Kontserbazio arduraduna, bilduma-sailaren arduraduna.

Audrey Farabos, Dokumentalista, ZKP-ko editorialaren jarraipenaren arduraduna.

Irène Uhart, Administrazio eta finantza poloaren arduraduna.

Christian Larralde, Eraikinen arduradun teknikoa.

Régine Etcheverry, Bitartekaria, publikoen sailaren arduraduna.

Anne-Marie Qalé, Komunikazio sailaren arduraduna.

Anaiz Duperret, Bildumen kudeatzailea.

Alain Arnold, Bildumen arduraduna (2022ko abendura arte).

Mathilde Bois, Bildumen arduraduna (2023ko otsailetik goiti).

Marie-Hélène Deliant, Dokumentalista-liburutegizaina.

Claire Lohiaque, Heldu taldeen bitartekaria eta kultur denboraldiaren koordinazioa.

Pascale Picau, Bitartekaria eta gidaria.

Stéphane Duprat, Harrera, kutxazain.

Eta Baionako Euskal Museoko langile talde guzi Maider Etchepare, Fabien Lavrilloux, Paola Ibanez, Xalbat Etchegoinberry, Anne-Marie Arotçarena, Myriam Oger, Thierry Elissalde, René Dermit, Vincent Nio, Emmanuel Meilhac, Nathalie Paroix, Catherine Bereterbide, Maritchu Etcheverry, Emilie Charron.

MINTEGI EZBERDINETAN GOGOETAN PARTE HARTU DUTE

Olivier Ribeton, Historialaria, Gramont Museoaren egitasmoaz arduratzen den misio karguduna (1982-1986), eta, ondotik, Baionako Euskal Museoaren kontserbatzailea (1988-2020), Baionako Euskal Museoaren ohorezko kontserbatzailea.

Charles Videgain, Etnolinguista, Paue eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatea.

Claude Labat, Historialaria, etnologo independentea.

Philippe Etchegoyhen, Historialari independentea.

Jean-Michel Bedecarrax, Historialaria, Euskal Museoaren Adiskideen Elkarte.

Jon Olazcuaga, Ikerlaria, dantzaria, Maritzuli konpainia.

Maritchu Etcheverry, Arte historialaria.

Christian Normand, Arkeologoa.

Pantxoa Etchegoin, Euskal Kultur Erakundeko (ERE) zuzendari ohia.

Mano Curutcharry, Arte Zaharren eta Objektuen Kontserbatzailea 64, Baionako ordezkaria.

Anne Oukhemanou, Historialaria, Euskal Museoaren Adiskideen Elkarte.

Christian Prieur, Bayonne Centre Ancien.

Clotilde Bordenave, Euskal Museoko administrazio Kontseiluko kidea 2020ra arte, Qune eta Museoen idazkaria, gizarte zibila.

Elisabeth Rhodes, Orthezeko Jeanne d'Albret Museoko Lehendakaria.

Estelle Delmas, Orthezeko Jeanne d'Albret Museoko kontserbazio karguduna.

Marie-Andrée Ouret, Bilketa, Baionako mediateka.

Nathalie Jauru, Misio karguduna, Xiberoko sindikata.

Terexa Lekumberri, Etnologoa, Euskal etnopoloko koordinatzailea, Euskal Kultur Erakundea (ERE).

BIDEAK, DONAPALEU, AMIKUZE, NAFARROA BEHEREKO POLOA

Charles Massondo, Donapaleuko auzapeza.

Arnaud Bourdé, Donapaleuko auzapezordea.

Christine Delage Urrutibehety,
Amis du Musée de Basse-Navarre.

Annie Sabarots, Amis du Musée de Basse-Navarre.

Jacqueline Régnier, Lukuze, Amikuze, gizarte zibila.

Benoit Duvivier

Monique Legarto

Serge Pedehontaa

Jean-Claude Maillharin

MAULE, XIBERUAKO POLOA

Clément Pottier, Maule hiriko kontseilaria.

Mathilde Baqué, Mauleko mediateka.

Christelle Mange, Maule hiriko kultura zerbitzua,
Sohütako auzapeza.

Philippe Etchegoyhen, SAMB, Ikerzaleak.

Robert Elissondo, Ikerzaleak elkarteko
lehendakaria.

Joana Etcheberry

Nathalie Jauru, Zuberoako Sindikatua.

Xabi Etxebest

Patrick Campo

Louis Choury

Joël Larroque, *Les Amis du château* elkarte.

Mixel Etxekopar

Pierre Privat, Lauburu.

Xabina Iturburu, Euskal Hirigune Elkargoa.

INSTITUZIO PARTAIDEAK

Ospitalea Ondarearen Hezkuntzarako Zentroa,
Irisarri:

Anna Ruiz-Delval (zuzendaria)

Euskal Kultur Erakundeko (ERE):

Johañe Etchebest (zuzendaria), Terexa Lekumberri
(etnologoa, Euskal etnopoloko koordinatzailea),
Franck Suarez (ikuskizun bizia, zinegintza eta
mugazgandiko proiektuen arduraduna).

Bilketa, Baionako mediateka:

Marie-Andrée Ouret

Zuberoako Sindikatua

Jeanne d'Albret Museoa

Euskal Museoaren adixkideak

Amis du Musée de Basse-Navarre

ADMINISTRAZIO TUTORETZAK, BATZORDE TEKNIKOAK

Cyril Dubreuil, Zuzendariorde nagusia, Baionako
Herriko Etxea.

Elodie Cluzeau, auzotegi batzordeen antolaketa
karguduna, Baionako Herriko Etxea.

Olivier Coustalat, Ondarearen zuzendaritza, Pirinio-
Atlantikoetako departamendu kontseilua.

Laurence Nemes, Erakargarritasunaren zuzendaria,
Pirinio-Atlantikoetako departamendu kontseilua.

Marianne Lacazette, Mauleko poloko arduraduna,
Euskal Hirigune Elkargoa.

Anne-Marie Thornary, Kultura eta Ondarearen
zuzendariorde nagusia, Euskal Hirigune Elkargoa.

Nadia Mabilie, Euskal Hirigune Elkargoa.

Han Vo, Euskal Hirigune Elkargoa.

Miren Iturrioz, Euskal Hirigune Elkargoa.

AUTOREEN TAULA

OR : Oliver Ribeton, Euskal Museoko
kontserbatzailea 1988tik 2021era.

JB: Jacques Battesti, Euskal Museoko kontserbazio
arduraduna 2007az geroz.

XV : Charles Videgain, Etnolinguista, Paue eta
Aturriko lurraldeetako unibertsitatea, IKER

SC: Sabine Cazenave, Baionako Euskal Museoaren
kontserbatzaile burua eta zuzendaria 2019az
geroz.

RE : Régine Etcheverry, Euskal Museoko publikoen
zerbitzuko arduraduna.

AMQ : Anne-Marie Qalé, Euskal Museoko
komunikazio arduraduna.

AF : Audrey Farabos, Euskal Museoko
dokumentalista.

IU : Irène Uhart, Euskal Museoko adiministrazio
eta diruzaintza arduraduna .

Eta Baionako Euskal Museoko langile taldeak.

ABISUA

1922an sortua eta 1924an irekia, Baionako Euskal Museoa osoki berriturik 2001ean berriz irekia izan zen, 12 urtez hetsirik egon ondoan. Dagourette etxea, bestalde, Monumentu Historiko gisa izendatua da. 100.000 objektu eta dokumentu baino gehiagorekin, horietatik 2.000 ikusgai, bilduma aberatsa, oso anitza du Baionako Euskal Museoaren bilduma iraunkorrak.

Etnografia eta historia museoa eta « gizarte » museoa, « Musée de France » labela lortu du. Zientzia eta kultura proiektua (ZKP) idaztera behartuak dira beraz, Frantziako Museoei buruzko 2002ko urtarrilaren 4ko Legearen eta haren aplikazio dekretuen arabera labelizatuak diren museoak, eta Estatuaren aitzinean edozoin urrats egin aitzin.

ZKP-ren lehen bertsio bat onartua izan da 2016ko ekainaren 16an, orientazio kontseilu baten topaketen bitartez Kultura Ministerioko ordezkariarekin adosturik, sindikatu batzordeak deliberatu ondotik. deliberoaren bidez. Hala ere, Estatuko zerbitzuek eskatu zuten zenbait puntu berrikustea eta bildumen eta eraikinen jabearen iritzia biltzea: Baiona Hiria.

Estatuko zerbitzuen oharrek gomendatzen zuten gisara (ikus 2017ko irailaren 28an Frantziako museoen zuzendari andereak idatzi gutuna), bildumen jabe den elkargoaren « urrats partehartzailea», bozketa eta engaiamendu baten alde. Lan iteratibo bat burutua izan da mintegi gisa (5), 2022 urtean, lurraldeko jakintsuak eta gizarte zibileko kideak, hiru administratzaileen zerbitzuetako kideak, lan iteratibo batean sarraraziz, ZKP-ren birmoldaketa oso baten alde, bertsio berri batekin.

2020az geroztik, zentzu horretan da ZKP berrikusia izan museoko taldeekin, eta, ondotik, lan hipotesiak (erakusketa, berrantolaketa) esperimenduak eta frogatuak izan dira, eguneroko lanaren eta 2020, 2021 eta 2022 arte eta kultur denboraldien prestaketaren kari. Konfinamenduaren garaian, hitzartze lan batek museoaren barne araudi berriari buruzko gogoeta ahalbidetu du, bi guneen funtzionamenduaren birmoldaketa lan horren obratzea plantan ezartzeko, egin beharreko lana hobeki kontuan hartzeko, igurikatu zerbitzuak emateko, « Frantziako Museo » baten eskakizunak errespetatuz.

2022tik aitzina, arkitektura gogoeta berri batek eta jasangarritasun eta energia aurrezte helburuek, optimizazio bat aitzinikustea eskatzen digute:

- Gure eraikuntzei buruzko gogoeta, heste eta estalki, berotze, airearen tratamendu eta argiztapen aldetik, gure teilatu estalki osoa, hormak eta gure tresneria berriz aztertzea eskatuko diguna, ekonomia pista berriak xerkatzeko.

- Jadanik, gure argiztapen ekipamendu guziak led-era pasatu ditugu.

- Gure erakusketa guztiei buruzko gogoeta ondoko arloetan eramaten dugu:

- *koprodukzioa*
- *ibiltaritza*
- *birziklatzea*
- *kostuen eta materialen optimizazioa*

Qorri ubelez: mintegien denboran bildu eta atxiki ardatzak berriz hartzen dituzten ekarpen eta aipamenak.

Lauki okrez : Zuen arreta biltzeko jarri laukiak.

—
Sar hitza
—

1



DAGOURETTE ETXEA

Euskal Museoa Dagourette Etxean kokatua da, Baiona Ttipian. Auzo hau XII. mendean sortu zen, katedralaren inguruan finkatua den Erdi Aroko hiria Errobi eta Aturri ibaien elkarguneko lur zingiratsuetara hedatzen da. Monumentu historiko gisa izendaturik, ibilbide didaktiko eta seinaletika berezia ukanen ditu.

Born Nau (Bourgneuf) eta Pannecau auzotegi berriak, portuko aktibitateei eskainiak, Errobi ibaiaren eskuinaldean plantatzen dira orduan, ontziolak finkatuak diren lekuan. Paldo gaineko etxez eta Baionako itsas eta ibai merkataritzari lotuak diren biltegiez inguratuak.

XVI. mendearen hondarrean eraikia, Dagourette Etxea Erdi Aroko portu bizitegien oinordekoa da. Biltegi zahar baten gainean altxatua, eraikin hau hiriko etxe zaharretako bat da, negozio eta burgesiari lotutako bizileku mota baten lekukotasun paregabea. XVII. mendean, etxeak eta hiru biltegiak Visitandinen komentua hartzen dute, eta gero ospitale zibil bat Bigarren Inperioraino. Ondoren, Dagourette Etxean egoiliar ezberdinek erabiltzen dute: aduana administrazioak, merkatal guneek. 1922an erosi zuen Hiriak, Euskal Museoa eta baionar tradizioa bertan ezartzeko.

Monumentu Historikoen Inbentario Qehigarrian sartua da, 1990eko maiatzaren 30ean, eta Monumentu Historiko gisa sailkatua, 1991ko otsailaren 26an¹.

SORTZEA

Baionako Euskal Museoa 1922an sortu eta 1924an ireki zen, eta, hasteko, balio anitzeko museo gisa pentsatua da, garaiko artistek euskal eta baionar gizarteari, dokumentu historikoei edo objektu etnografikoei buruz duten begirada jasotzen duena. Ondokoa ikusteko ematea du xede:

« Euskal Herriaren, Baionaren eta honen inguruen irudi ahal bezain zehatz eta oso ematea, iraganekoa bezainbat oraingoa ere. »



Dagourette Etxea, "Baiona Ttipian", 1910 inguru.

Ez zaio diziplina-muga espezifikorik ezartzen erakuspen borondate horri. Prestatze dokumentuetan (1912, 1913, 1922), iritziak emanak dira bereziki Louis Colas-enak, historiako museo baten zentzuan, dokumentuei baizik interesatzen ez zaizkiona, baina museo berri horrek hartzen duen orientazioa ez da hori. Laster, William Boissel, bere zuzendariak « eskualdeko arte gune » bilakatzeko nahikeria zehazten du, garaiko margolaritzako sorkuntza eta lurraldearen irudikapen historiko eta bisuala hertsiki lotuz.

¹ 138. zenb. Bulletin du Musée Basque (BMB)-ko artikulua

WILLIAM BOISSEL KOMANDANTEA



William Boissel Komandantea (1869- 1955)

Bordelen sortua, 1909 urteaz gerotik hautatuzko Baionarra, Euskal Museoaren kudeatzaile izendatua da honen sortzaileetako bat izan baita Letren eta Arteen Zientzien Elkartearen, hauen lehen animatzaileetako bat izan delarik ere. Museoaren zuzendaria da hau irekitzen delarik 1924an eta hala izanen da 1955, haren heriotza urtea arte. Erran nahi baita, 33 urte Euskal Herriaren memoria eta baionar ohiduren zerbitzuko, objektuen bilketan atsedenik gabe lan egin duela, Euskal Herritarrei hauei interesarazten lortuz, delikatasun eta jarraikitasunez.

« Euskal dantzariak » sortu eta taldea Parisera eta Europara ikuskizunak eskaintzera igortzen du, Euskal Herria eta eskualdea ezagutarazten laguntzeko; 1937ko erakusketa unibertsalean 3B-koen (Basque, Béarn, Bigorre) pabiloiaren antolaketan aritu da etengabe. Georges Henri Rivierekin eta Herri Arte eta Tradizioen Museo Nazionalarekin molde jarraikian elkarlanean, museoaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren metodoen zerbitzura jartzen duen bere zorrotasuna.

JEAN ITHURRIAQUE

Baionako lizeoko irakasle ohia, William Boisselen laguntzailea, haren lekua Euskal Museoko kontserbatzaile gisa hartu du 1955etik 1960ra (hil urtea).

Erakundearen buru izan da denbora laburrean, zinezko norabide berria bat harraraziz, lehenik, bildumen tratamenduaren metodologia aldetik museoa Frantziako Museoekin lotu delarik, museo kontrolatu gisa. Kontserbatzaile berriak, beraz, estatutu honekin lotutako eskakizunak betetzen ditu, bereziki, objektuen erregistroak irekitzea, non ministerioak zehaztutako informazioa jaso beharko den. Bestalde, inbentario metodoetan trebatzen da Herri Arte eta Tradizioen Museo Nazionalean egiten duen ikastaldi baten kariatara.

Pilotaren museoa sortu zuen Euskal Museoan, garai hartan Herri Arte eta Tradizio Museo Nazionalean kontserbatzailea zen Georges Henri Rivierekin elkarlanean.

Izan ere, Estatuak Arramendy bilduma, euskal pilotari dagozkion objektu eta dokumentazio multzo aparta, hari esker erosi du. Euskal Museoan ezarria da, 1958tik aitzina aurkeztua izateko, abangoardiako museografia batean.

Euskal kantu zaharrei bereziki dagozkien Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan bilketak hasten ditu ere.

Azkenik, euskararen erabilpena zinez apaltzen ari delarik, honen defentsarako jarduten du. Honela, Euskal Museoan, 1959an antolatu egun pedagogikoen ondorioz da Ikas elkarte sortzen eta bera honen diruzaina izendatua da. Euskararen irakaskuntza eskolan garatzea du xede elkarte honek.



Jean Ithurriague (1895-1960), eskuinean, Firmin Arramendy-rekin.

JEAN HARITSCHELHAR



Jean Haritschelhar (1923-2013)

1962ko urtarrilean hartu zuen Euskal Museoaren gidaritza denbora erdiz, Bordeleko III Unibertsitatean euskal hizkuntza eta literatura irakasle ere badelako. Erakundearen buru 1988ra arte egonen da.

Bere lehen kezketako bat museoaren taldea indartzea da, laguntzaile kualifikatu berriak kontratatuz.

Euskal Museoko liburutegi eta artxiboen saila aberasten lan handia egiten du. Izan ere, heldu zenean, liburutegiak 1500 liburu gordetzen zituen, abiatu zenean 17000 liburuki kontatzen ziren. Hedapen hori, alde batetik, museorako interesgarriak diren gaiet buruz argitaratutako liburuak sistematikoki eskuratzeko politika ezartzearen ondorio da, baina baita bibliofiloen dohaintza edo legatuak ezartzearen ondorio ere, haiekin konfiantzazko harremana sortzen jakin baitzuen, horrela museoa tokiko historiarako garrantzitsuak diren dokumentuekin aberastu ahal izateko.

1960ko hamarkadatik aitzina, euskal kulturaren berjabetzearen testuinguruan, Euskal Museoa Euskal Herriaz lanak burutu nahi dituzten ikertzaileentzako baliabide gisa identifikatua da.

1964an, Bigarren Mundu Gerrak eten zuen Euskal Museoaren buletina berpizten du Jean Haritschelharrek. Bertako ikerlari eta jakitun sareak argitalpenaren seriotasun zientifikoa bermatzen duten kolaboratzaileak biltzeko aukera ematen dio.

Artearen, historiaren eta etnografiaren jatorrizko elkarbizitzak azkarki markatzen ditu museo honen historia eta bildumak.

Horrela, museoa, hasieratik, bokazio pluralistako "eskualdeko museo" gisa agertu da. Bere sortzaileek bizitzeko moduen (ondare bokazioa eta bokazio historikoa) eta sorkuntzaren (bokazio artistikoa) gune gisa asmatzen zuten.

Ikuspegi hau biziki presente da erakusketa iraunkor berrituan. Hego Euskal Herriko beste museo batzuek, adibidez Donostiako San Telmo museoak edo Bilboko Euskal Museoak, bisitaldian argi eta garbi bereizi dituztelarik « historia eta etnografia » atala, objektuen bidez eraikia, « antzezpenen historia » atalatik, pintura eta artelanen bildumetatik abiatuz. Baionako Euskal Museoak orientazio hau atxikitzea hautatu du 1992-2001eko birmoldaketan, eta gaikako geletan, artelanak, objektu bernakularrak eta dokumentuak elkarrekin aurkezten segitzea.

Dagoen bezala, uztarketa horrek Euskal Herriko historiaren irakurketa zeharka irakurtzeko joera du gaur egun: margolan horiek, Euskal Herri baserriar idiliko eta denboragabe baten irudia eskusiban itzultzen dute, eta bisitaldian eragina duen harrera testuinguru bat zehazten dute, objektuen irakurketa begirada mitiko eta nostalgiko horren ikuspegitik jarritz nagusiki. (JB)

GRAMONT MUSEO BATEN EZARTZEA GAZTELU BERRIAN: ZALANTZAK ETA ERRESALBUAK

1982tik 1988ra, seriooki aintzinikusia da Baionako hiriarri, bere arte ederretako museoaz gain, Bonnat Museoa, gaur egun Bonnat-Helleu Museoa, Baionako Euskal Museoa, Gramont familiari eskainitako hirugarren museo bat ematea; Euskal Museotik kendua zatekeen sail historiko bat.

Orduan, museo historiko berri hau Gaztelu Berriaren hego, mendebalde eta iparraldeko hegoetan programatua da (1986 – 1988: arkitektoen lehiaketa bat antolatua da, proiektua behin betiko aurreproiektu fasera eramane duen sariduna hautatzeko, 1988ko otsailean Parisko Jauregi Handiko Museoen Nazioarteko I. Saloian aurkeztua). Proiektu hau Olivier Ribetonek idatzi zuen, misioaz eta CAFE (O "Byrne et Pecquet) Pariseko kabineteaz arduratzen zena¹.

Hala ere, Euskal Museoaren eta Baionako Tradizioaren aurre-egoeraren iragarpenak (segurtasun zerbitzuek 1985az geroztik hestea eskatzen zuten) « Gramont eta Baionako historia Museoa » proiektuaren aldaketa ekarri zuen. Honi Euskal Museoko bilduma guziak, osoki Gaztelu

Berriko lau hegoetan hedatzen zen 10.000 m²-ko azalera jarriak izateko. Dagourette Etxea uztea ekarri zuen Henri Qrenet Baionako auzapezaren desira horrek, polemika politiko eta kultural handia eragin zuen, eta horrek hiria proiektu horri uko egitera behartu zuen, Olivier Chevrillon, garai hartako Frantziako Museoen zuzendariak egitasmo hau sostengatzen bazuen ere.

Jacques Sallois haren ondorengoak, Jacques Lang Kultura ministroaren laguntzarekin, monumentu historiko izendatua zen Dagourette Etxearen zaharberritzea lehenetsi zuen, jendeari ikusgai eskaini bildumak erakusteko. Museoko erreserbak, bulegoak eta liburutegia Gaztelu Berriaren iparraldeko hegalean kokatzea pentsatua da. Aldi baterako erakusketa gela bat egina izan zen mendebaldeko hegalean behealdean, hegal horretako solairuak, printzipioz, Gramont bildumaren aurkezpenerako atxikiak zirelarik, hauen artean, CAFE Kabineteak plantan ezarri programazio berri bat.

¹ Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 141. zenb., 1985, "Un musée Gramont à Bayonne", 403-420 or.

BERRITZE PROIEKTUA

Museoaren berritze proiektuaren zuzendaritza Qaztelu Berrian eta Dagourette Etxean eskainia zaio Olivier Ribeton Euskal Museoko kontserbatzaileari (1988ko azarotik 2020ko apirilera) « Baionar tradizio » izendatzearen gehigarria orduan « Baionaren historia » izenak ordezkatzeko du, lehen Qramont museoaren orotaraziz.

1990 :

« Qramont » museo proiektua baztertua da haren lehen egoeran, Qramont bilduma orduan Paueko Qazteluko Museoa nazionalan utzia da. Baionako Euskal Museoaren eta tradizioaren egoitza den Dagourette Etxea, Inbentario Qehigarrarian sartua da 1990eko maiatzaren 30ean eta Monumentu Historiko izendatua 1991ko otsailaren 26an. Eraikinaren lehen finkatze obrak 1991-1992an heldu ziren, Bernard Voinchet (OR) ACMHren gidaritzapean.

1992KO ABENDUAN :

Baiona Hiriak, Olivier Ribeton kontserbatzaileak, Hiriko Zerbitzu Teknikoen Zuzendaritzaren eta Kultura Qaietarako Eskualdeko Zuzendaritzaren laguntzarekin apailatu egitarautik abiatuz, arkitekto museografoen kontratatze lehiaketa bat abiatzen du.

1993KO UZTAILEAN :

Bernard Althabegoity arkitektoak eta Zette Cazalas museografoak osatzen duten talde saritua hautatua da.

Hautuaren irizpideen artean, proiektu museografikoaren eta Bernard Voinchet ACMHK nahi duen Monumentu Historikoaren arteko egokitasun egokia da. Sailkatuak ez diren bi eraikin lotuak (« Seguin » eta « Marsan »), « ingurukoak » gisa sailkatuak izanik, osoki birmoldatuak izaten ahal dira MH sailkapenaren pisurik gabe, baina aitzinaldeendako gune zainduaren babesaren bortxa bakarrarekin. 1994ko maiatzean, Baiona Hiriak Aitzin Proiektu Labur bat onartu zuen¹.

Qramont museo bat antolatzeke proiektua behin betiko bertan behera utzia da, gazteluaren gunearen zati handi bat Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitate Polora eramatea deliberatua delarik.



Dagourette Etxea

ACMH-k zaharberrituak ditu Qaztelu-Berriko iparraldeko hegala eta mendebaldeko behealdea, 2001eko ekainean, museoa berriz irekitzean, bildumaren berriz irekitzeko hautatuak izan diren Dagourette Etxeko bilduma guzien aterpetzeko eta bilduma iraunkorren eta obren aurkezpenaren berregokitzapena segitzeko².

2001EAN :

Baionako Euskal eta Baionar tradizioaren Museoa, Baionako Euskal Museoa izenarekin berriz ireki da.

Qela handi bat Baionako itsas eta ibai historiari eskainia zaio, eta gela horretan Qramont bildumako obra batzuk bilduak dira, bildumaren gainerakoa Paueko Qazteluko eremuan eta Museo Nazionalaren esku gelditzen delarik (O.R).

1 Olivier Ribeton, « Projet muséographique du futur Musée Basque », BMB 1994, 138. zenb., 169-194 or.

2 Tiphaine Le Foll, « De Dagourette à Château Neuf : un nouveau site pour le musée, un programme de conservation finalisé », BMB 1998, 151 zenb., 49-64 or.

PROIEKTUTIK OBRAZERA

1922an sortu Baionako Euskal Museoa, osoki berriturik 2001ean berriz irekia izan da, 12 urtez hetsirik egon ondoan.

Museografia berri bat, eta objektuekiko harreman berri bat proposatzen zaie bisitariei, Euskal Herriaren panorama bat eskainiz « mundu modernoaren nahasmenduen hastapenetan »¹.

Etnografia-museoen historian, objektua hurrenez hurren erlikia gisa (barnealdean berregiteetan antzetzua eta agertua), lekuko gisa (museoan aurkezten den testuinguruaren arabera jakintza bat berreskura dezakeena), eta, gero, obra oso gisa tratatzen delarik, antzinako bizimodu baten isla estetizatua, eta horrela, usu, modu isolatuan aurkeztua. Tratamendu mota ezberdinek, gehiago edo gutxiago sentikorrek eta museoen arabera markatuak, eragina dute bisitariarikiko mezuan.

Horiek guztiek jakite baten transmisioa naturalki egin nahi badute, objektuaren harreran eragin azkarra duten irakurketa-molde bereziak lehenesten dituzte horretarako: erlikiarako afektua,

objektu lekuko eta estetikarako pedagogia, objektu-obrarako formen hizkuntza unibertsalaren ideia.

Euskal Museoan, funtsean, lehen eta hirugarren manerak izan dira nagusi, nahiz eta bigarrena ere molde azkarrean baina ziblatuan erabili baldin baditu ere Georges Henri Rivierek (MNATPeko zuzendaria)², pilota gela 1958an instalatzeko. 2001eko birmoldaketaren ondorioz gaur egungo museografiak objektuekiko harremana errotik eraldatu du erakusleihoetan isolatuz, lehenik dokumentua edo arte objektua formalki kontuan hartzeko (JB).

Eszenaratze horrek, funtsezko irakurketa estetikoak bultzatzen du, objektuen esanahi etnografikoaren gainetik pasatzen dena.



Joera hori indartu egiten da, lehen aipatu dugun bezala, areto bakoitzean artelanak eta objektuak aldi berean aurkeztuz: koadroek Euskal Herri baserritar baten dekoratua agertzen dute, irakurketa eta erreferentzia koadro gisa balio duena objektuak kontuan hartzeko. (JB)

¹ Louis Colas, Euskal eta baionar tradizioaren Museoaren ko-sortzailea.

² Georges Henri Rivière, 1897ko ekainaren 5ean Parisen sortu eta 1985eko martxoaren 24an, Louveciennes-en (Yvelines) zendua, frantses museologoa, Parisko herri arte eta ohiduren Museo nazionalako sortzailea. «Erakusleihoen magoa» izengoitiarekin, zeregin garrantzitsua izan du museologia berrian eta, nazioarteko museoen Kontseiluaren baitan, mundu mailako etnografia museoen garapenean (ICOM).

Argialde, Baionako Euskal Museoko argi putzua;
Arkitektoa Bernard Althabegoity eta Zette Cazalas museografoa, 2001.



Objektuak aurkezteko hiru modu horiek Euskal Museoan daudenez, berriro ondoren ere, museografia desberdin horien estratifikazioa eta lekukotasunak aurkezteko moduak azaltzeko eta beharra sortzen da.

Bestalde, Zette Cazalas 1994 eta 2001 artean eraberritze proiektuaren arduraduna den arkitektoaren museografia, arrunt agerikoa da. Nahimen estetiko sendo eta adierazia erakusten du, aurkezteko modua objektuen kaltetan (Samadeten zeramikaren aurkezpena, hilarrien zokoak, adibidez) lehen planora pasarak dezakeena. Museografia hau, guztiz zalantzan jarri behar ez bada, gutienez azaldua izatea eskatzen du.

Euskal Museoaren museografia, beraz, bilduma iraunkorren ibilbide berrian azalduko da, 2002ko Dagourette Etxea eta eraberritzearen arkitektura garaikidea azalduak izanen diren bezala.

UKO EGITEAK

2008 : 1972an lehen proiektu batetik sortua zen Bonnat Museoa handitzeko proiektuak argia ikusten du, batez ere Paul Helleu margolariaren biloba zen Howard Johnson dohaintzaren aterpetzeko. Bonnat-Helleu bilakatzen da. Bi museoentzako erreserba partekatua programatu eta eraikitzea aitzinikusten du proiektuak. 2012an, uko egiteak eragina izango du, ez bakarrik Bonnat-Helleu museoaren luzapenean eta hestean, baina

bai eta ondorio anitz Baionako Euskal Museoaren aldetik, hauen erreserbak Gaztelu Berrian geldituko direlarik.

2007 : Euskal Museoak aldi baterako erakusketa aretoen erabilpena gordetzen du antolatua diren Gaztelu-Berriko espazioetan, 2012 arte; elkarteak eta Iker Bordele III.-ko ikerketa laborategia bertan planatzen diren urtea. (5C)

GAZTELU BERRIA & DAQOURETTE : LEKU ZORAQARRIA ETA/EDO TTIPIEGIA?

Qaur egun, museoa Baionako gune desberdinetan kokatua da:

DAGOURETTE ETXEA (4.000 M2 INGURU)

Kortsarioen kaian, Monumentu Historiko gisa sailkatu XVII. mendeko tratulari baten etxea eta biltegia handitu izan da, Marsan izeneko multzo berdineko eraikin txiki baten eta soto baten (Seguin) azken berritzearen karietara. Qune honetan kokatzen da, gaikako 20 gelatan 3.000 m²-ko azaleran banatua den erakusketa iraunkorra.

1.000 m² gelditzen dira bulego bat eta mediazioari gela handi bat hartzeko, hogoita hamar bat lekuko auditorio ttipi bat, nahikoa izan ez dena eta gaur egun proiektzio-areto gisa erabilia dena bildumen ibilbidean, eta etxabeen egokia ez den gela bat (Xokoa, hitzaldietan gehienik 40 pertsona biltzeko gaur egun.

ERAKUSKETA GELAK (ERROBI)

antolatuak izan dira 2. estaian (350 m²) behin behineko esparru eskasiari aurre egiteko (Qaztelu Berrian deseginak), baina behin betiko sei bilduma gela desmuntatuz!

Qauzak biltzeko esparruek, aldagelek eta areto teknikoek osotzen dute gunearen erabilpena.

GAZTELU BERRIA

Dagourette etxetik 500 metrora dagoen erdi aroko gotorlekua, Monumentu Historiko sailkatua da.

Ondokoak aurkitzen dira gazteluko ipar hegal guzia hiru mailatan: 200 m²-ko bulegoak eta 1200 m²-ko erreserbak, museoan 1996an sarraraziak.



Dagourette Etxea eta Qaztelu Berria.

Museoko lokalen barreatze erlatibo hori antzinako museo anitzen gisakoa da. Hala ere, partzialki abortatzen diren proiektuen segida eta atxikitako gailuen metaketak hauskurtu du bildumetako ibilbideen eta aldi baterako erakusketen hasierako koherentzia, batetik, eta, bestetik, kaserna ohi batean (Qaztelu Berria) ahokatu ekipamenduen koherentzia inarrosi du ere (erreserbak, zaharberritze gelak, berrogoialdia, bulegoak), hauen sarbideak ez direlarik beti bertan hartu behar diren bildumei egokituak, erreserba gehigarriak alokatzera behartuz.

Museoko taldeak ez dira beti museoan aterpetzen ahal, administrazioa eta bildumetako bulegoak, museoko liburutegia Qaztelu Berritik urrun gelditzen dira. Taldearen koherentzia hainbeste inarrosia izan da iraganean, aipatua izan baita bi talde bi gunetan jartzea, gaur egun museo proiektu bakar batena dena bezala ibilaraztea delarik garrantzitsuena. (Irakur gisa horretan, Abian Ezarri Museoko Urraspideari eskaini kapitulua)



Qaztelu Berria (ipar hegala) Euskal Museoko bulego eta erreserbekin.

ASFOren biltegia (alokairuan) Lessepseko kaian kokatua da, Aturri iparraldean, 270 m²-ko erreserbatan aterpetzen ditu, aterabide hobe baten esperoan, Qaztelu Berriko erreserbetan biltzen ahal ez diren bildumetako objektu handiak.

Konfinamenduaren garaian, mezzanina baten bidez entresolatzea eta, horrela, biltegiaren azalera bikoiztea eta, ondorioz, optimizatzea eta objektuen kontserbazioa rack eta paleten gainean limurtzea ahalbidetu duen antolaketa bat izan da;

bai eta haien helgarritasuna indartzea ere. Horrek ahalbidetu du ere, biltegiratu pisu handiko objektuen atzera begirako inbentarioa eta gainbegirada; hala nola Qaztelu Berriaren ondoan dagoen Sainte Claire aparkalekuan, antolatu erreserba-erakuslehoan lekuz aldatu zaldikako ibilgailua.

Horrek abantaila bikoizta du, jendeari ezagutaraztea eta zaintza handiagoa ahalbidetzea. Hamar urteko zaharberritze plan batean sartzen dira ibilgailu hauek.



ASFO-ren biltegia, entresolatzearen garaian, 2021ean, bilketa aldia.



Zinezko
lurraldeko
jendearte museoa
sortu



LURRALDEA

Zientzia eta Kultura Proiektuak (2023- 2028) planteatzen du Ipar Euskal Herriko hiru euskal probintzia ohietako (Ipar Euskal Herria) lurralde erronka berriak hiru polaritetan kontutan har ditzan museoak:

Zuberoan, adar bat Maulen garatzeko beharrarekin.

Nafarroa Beherean, Bideak baitan, Donapaleun, plantatua izanen den Nafarroa Behereko Museoaren profesionalizatzeko laguntza baten bitartez.

Eta, azkenik, Lapurdi, itsasbaterreko probintzian kokatua den Baionako Euskal Museoaren hedatzea Baiona hirian.

Ipar Euskal Herriko turismoaren arazoetako bat da bisitariak pixkanaka lurralde osoa, eta ez bakarrik itsasbaterre ezagutzera eramatea.

Horregatik proposatzen da hiru poloek Euskal Herri barnealdea bisitatzeko gogoia ematen duten kontakizun osagarriak artikulatzea:

- Baionatik, A63 autobidearen sartzea eta Biarritzeko aireportutik);
- Bearnotik, A64 autobidearen sartzea eta Pauko aireportua;
- edota ere A65tik, Lourdes eta Tarbesetik (ikus mapa)



KONTAKIZUNAREN ARTIKULAZIOA LURRALDEAN, POLOAK:

Euskal Herriko kulturgintzaren problema bere lurralde konplexutasunaren eta probintzia bakoitzeko berezitasunen berri ematea da, Baionako Euskal Museoak (itsasbaterreko zerrendan kokatua) ezin du bakarrik hori egin.

Euskal kulturaren berezitasunak ezagutzen ahalbidetuko luke museo eta/edo polo edo adarren sareak bere auzoei begira, Bearnokoa (Pirinio Atlantikoetako departamendu berdinean sartua, berdez mapan) eta Bigorrakoa (ondoko Pirinio Qaraietako departamenduan); Pirinio oineko artzaintza-laborantza kulturekoak dira hiru kultura hauek eta usu, «ahizpak» bezala aurkeztuak izan dira, bereziki Parisko 1937ko erakusketa unibertsalaren karietara.

Bi Estatu-nazioen artean, 7 euskal probintziak:
Iparraldea Frantzian (3), Hegoaldea Espainian (4)
(© EKE)

Sartze gunek eta Pirinio Atlantikoetako euskal lurralderako sarbideak.



Bistan dena, lurraldean hiru polotan eraman lan horrek ez lituzke, Baionako Euskal Museoarekin hainbat urtez Irisarriko Ospitalea CEP-a edo Orthezeko Jeanne d’Albret beste ondare erakundeekin bezalako usaiako ehundu partaidetzak zorrez itoko.

Hau, Frantziaren ikuspuntu bakarretik, bistan dena, Hego Euskal Herriarekiko lokarria ezkutatua izanik mende batez kasik.

GAIEI BANATZEA

Aurreikusi hiru poloetan pertsona « jakintsuko » hiru taldekiko lan iteratiboa eramana izan da 2021 eta 2022 urteetan, mintegi batzuen bitartez.

Hiru gunetan, aldi berean artikulatuak eta osagarriak diren eta euskal lurraldearen batasuna eta probintzia bakoitzaren berezitasuna kontutan hartzen dituzten kontakizunak plantatzen ahalbidetu du lan honek.

Hala ere, polo bakoitzean garatu kontakizunak aipatuak izanen dira Baionako Euskal Museoan, bisitariak lurraldearen lehen ikuspegi bat bere osotasunean ukan dezan, alde batetik, eta, bere kulturarena, beste batetik, urrunago joateko aukera eskaintzeko horrela.

Euskal Herriaren mapa
(© EKE)



BAIONAKO EUSKAL MUSEOAN

Kontua da, bildumen ibilbidetik abiatzea eta 2002an berritua izan zen museografia funtsean ez aldatzea, « kontakizuna » eta bilduma iraunkorren programazioa hobetzea eta eguneratzea.

Beharrezkotzat agertzen da hala ere eskas bat eraginez gaur egun ez dauden gela batzuk berregitea edo asmatzea.

Baionako Euskal Museoan dauden gelen SEINALETIKA hobetua litzateke: irakurgarritasuna eta homogeneitatea, testuinguru osagaiak (argazkiak, entzunikusekoak) gehituak izanen lirateke. Batasun estetikoa eta itzulpenak berriz ikusiak lirateke

3 GUNEETAN: KONTAKIZUN BATERATU ETA PARTEKATUA

Euskal Herri lurraldearen berezitasuna:

Espainiarekiko mugak bitan zatitua; banaketaren historia eta gorabeherak mendeetan zehar eta bereziki historia modernoan.

Euskara:

Euskalki desberdinak: lapurtera eta zuberera, hizkuntzaren soziologia eta birsortzea azken berrogoi urteetan: Euskara batua hizkuntzaren zaintzeko.

Etxea bizitegi batasun sozial gisa aipatua izanen da hiru guneetan: leinurekiko harremana, errito eta besten berpiztea probintzien arabera berezitasunekin egutegiko errituetarako.

Probintzia bakoitzerako kontakizun berezia eskain dezake ere adar bakoitzak, beste bi polokoenarekin desberdina, hiru ikuspunturen arabera.



Dagourette Etxeko 18. mendeko eskailera.



Qaur egun « Ondarearen etxea » eta turismo bulegoaren egoitza den Mauleko herriko etxea, pilota plazan.

MAULEN

"Ondarearen etxean" kokatuko genuke Euskal Museoaren adarra.

Gaur egun Turismo Bulegoa (Euskal Herriko Turismo Bulegoaren kudeaketa, Hirigunearen kudeaketa) aterpetzen duen pilota plaza biziki ederrean kokatua da Mauleko herriko etxea (III. Errepublikaren garaian eraikia).

LAU GAI NAGUSI DIRA POLO HORRETAN TRATATUAK IZANEN:

- Sartzea ipar-hego ardatzeko ingurumenetik auzoekiko harreman baten ikuspegitik, ipar eta ekialdetik auzo eskualdea den Bearnotik (Pirinio Atlantikoetako departamenduko Euskal Herria ez den zatia).

Mugako mistotasun bat eskaintzen dutelarik alta, Lukuzeko Jaunaren familiak etorrarazi Euskaldunetz bete eta gaur egun zuberotar kultura ohiduren kontserbatorioa, Bearnoan kokatua bada ere, badira Eskiula bezalako herri kasu enblematiko batzuek.

Hegoaldetik eta Aragoa eta Nafarroako lurraldeetatik, mugazgandiko igarobide eta « mendiko lepoen » errola, besteak beste Atarrantze herria.

- Qizakiaren eragina euskal mendian eta mendiko etxearen antolaketaren ikuspegi zehatza (etxe, olha eta transhumantzia).

- Maskarada eta pastoralen ikuspegi sakondua (Zuberoa eta Euskal Herriko berezitasuna diren ikuskizun bizi motak) jantziaren kontserbazio zentro bati lotua.

- Industriaren sortzea eta espartingintzaren interpretazio zentro batekin osagarritasuna. Euskal Herrian, Maulen sortua eta Ainarak langileen migrazioa Espainiatik, besteak beste, eta hiria eta probintziaren sekulako garapena XX. mendean eragin dituenak).

DONAPALEUN

Donapaleuko Bideak gunean, lau gaien inguruan antolatua izanen da erakusketa :

- Donapaleuko Frantziskanoen priore-etxea eta komentua eta euskal nortasunaren birsortzearekiko harremana.

- Done Jakueko bideak (Arüe/Izura zatia) ; Ostavals eta Mehaka Baigorriko interpretazio zentroaren osagarri.

- Nafarroako Erresuma, eta haren garapena Pirinioetako muga naturalaren gairi, gaur egungo bi probintziak sortzen dituen: bat

Frantzia (Iparraldea), Nafarroa Beherea; bestea Espanian (Nafarroa Hegoaldean).

- Etxearen gaia, etxetiarren, eskulangintza merkatuen eta merkataritzaren garapenarekin lokarrian, bai eta kooperatibena XX. mendean.

Donapaleuko Bideak guneko kalostira.
(© Serge Padura)



"FRANTZIAKO MUSEOA" IZENDAPENARI BURUZ?

Polo eta bilduma guzietarako, ondare mailan aberatsa baina museo gutiko lurraldean?

Hiru galdera dira gaur egun eztabaidatuak hiru poloak osagarri bilakarazteko eta epe luzera hitzarmen bat finkatzeko: bildumen estatusaren gaia, Euskal Museoarenak « Frantziako Museoa » izanki.

• Poloak indartzeko, nola utzi Frantziako Museo bateko bildumak?

• Maileguak eta gordailuak indartu? Bilketak segitu eta bildumak osatu poloetan, besteak beste XX. menderako?

• « Frantziako Museo » izendapena eskatu behar ote da gaur egungo bilduma pribatuei dagokienez?

Eta, azkenik, nola antolatu gure zientzia eta kultura denboraldien osagarritasuna hiru poloetan:

Nola bateratu gure indarrak:

Formakuntza, profesionalizazioa, balioztatzea baina baita elkarren artean aldi bateko erakusketak antolatu lurralde osoan eta honela gure ekipamenduak optimizatu.

Nola optimizatu polo bakoitzaren ibilmoldea:

Ibilmolde kostuaren kalkulu bat egina izanen da hiru poloetako bakoitzerako 2024an apailatu programazioaren kari afinatu beharko diren inbestimendu kostuen osagarri.

ZKP-AREN BALIDATZEAREN ONDOTIK, EGITASMOA 2023-2024AN NOLA IRAGANEN DEN AURREIKUSTEKO EGUTEGIA

2023 :


- ZKP egitasmoaren aurkezpena
- Estatusak eta eraikinen esku jartzea misioarekin legelari bati: legezko gaiak, aurreikusi beharko ereduak, ibilmolde kostua urte bukaeran konpondu, programazio ikerketak gogoetatu eta merkatua 2024 hastopenean abiatu behar dira.
- Ibilmolde kostuak poloka, diru sarrera zatiarekin batera joanen da eredu ekonomikoa finantza planarekin (sc). Ez da errentagarritasuna aipatzen, baina bai estali beharreko urteko kostuaren ikuspegia, diru sarreraren « oreka ttipitik » kanpo. Zein ibilmolde ekarria polokako proiektuekin lotuta: QB, kargu orokorrak, amortizazioak?

2024 :

- Bankuengana jo, eta finantzamenduaren bermeak administratzaile eta tutoregoen bidez.
- « Qo/no go » = geldi edo segi: ikerketa sakonagoak eta obragintza baten abiatzea (2023ko bukaeran, abiatzea notifikaziorako 2024an).



Baionako Euskal
Museoaren bigarren
berritze baten
ikuspegiak
eta arrazoinak,
20 urte berantago



TUTOREQOTZAKO ADMINISTRAZIOEI BATZORDE TEKNIKOAK EGIN BERRERAIKITZEA

Lau kontakizunek ezinbestekoak dirudite hemendik aitzina Baionako Euskal Museoko bilduma iraunkorrak bilakarazteko eta XXI. mendeari egokitzeko eta jadanik dagoen museoa hobetzeko. 2002an, bost mintegiren kariatara (hilabetean behin 2022ko martxotik goiti), museoko ekipak eta lurraldeko « jakitunak » bildu dira eskas diren kontakizunak molde partehartzailean gogoetatzeko.

ATXIKIAK IZAN DIREN GAIAK :

- **XX. mendea kontatu:** 2001ean berritua izan da museoa baina, guti ala aski, adierazi kontakizunaren mailan, 1924an zegoen bezala, bigarren Mundu Gertara joanez eta berantagoko gaiak aipatu gabe (besteak beste gai politikoak). Bi gerlen artekoaz, Espainiako gerlaz eta, ondotik, bigarren mundu gerlaz eta gai indentitarioen garapenaren gerlaz mintzatu behar da.
- **Jendarte tradizionalatik ateratzean gertatu aldaketez,** hau gehiengo handi batean baserritarra zelarik 1850tik aitzina, itsasoko turismoaren

garapena euskal itsasbazterrean, 1950 arte eta, ondotik, gaur arte.

- **Erlisioneren gaia hemendik aitzina urruntasunarekin eta historia ikuspegitik aipatu behar da:** 1924an kopera bat bazen ere, komunitate israelitak eskaera bat egin zuen juduen gela, eta, ondotik, Euskal Herriko erritu eta sinesmenen gela izan dadin; azalpen gehiago eman behar daitezke seguru aski hemendik aurrera, gela bakar batean, erlisione desberdinen pisuaren historiografia garai desberdinetan eta lurralde osoan (girstinoak, katolikoak eta protestanteak, Birkonkistaren gaia, israeliten ekarpena XVII. mendean, etab.)
- **Euskal lurraldearen gaia, Baionan,** itsasoari irekia zaion portua, Gaskoinia ureztatzen duen Aturri eta Euskal Herria ureztatzen duen Errobi bi erreken bateragunea.
- **Euskara,** komunikazio hizkuntza bai eta lurraldean, espazioan eta denboran, mintzatuak diren hizkuntzen gaia.

Hori erdiesteko, ekintzak bost adar hartuko ditu :

1/ BILKETA SEGITZEA

Horretarako, gure lurraldean duen berezitasunagatik **XX. mendearen bigarren erdirako bilketa segitu** behar dugu, baina baita, gure bilduma iraunkorretan, lurraldean haien erabilpen balioa handiki galdu duten objektuak testuinguratzea. 2001ean abiatu lana bukatzea du xedea beraz (garai hartan karioegia, edo ez hain fidagarria? zen material numerikoa, hastapeneko egitasmoko gauza batzuk baztertera eraman gaituena) erran nahi baita objektuak haien erabilpen testuinguruari lotu lekukotasun batzuekin aurkeztea geletan hogoi urtetan biziki hobetu diren baliabideekin (proiekzioak, entzumena) lurraldeko partaideekin, hauen artean ERE. Entzunikusekoa izan daiteke honen zati bat.

Web semantiko batean numerizatu eta balioztatu beharreko fondoak bateratzea eta salbatzea (gaikako eta instituzio desberdinetako atariak elikatzen dituzten siloa) europar egitasmu batean



Dagourette etxea eta lotu eraikinen ikuspegia.

ahalbidetuko lukeen instituzioekiko partaidetza bat aurreikusten du ZKP-ren atal batek elkarren artean ondare immateriala salbatzeko barriatuak diren fondoak (izaera guzietako bandak gaur egun barriatuak dira) indexatu, aztertu, sailkatu eta numerizatzeko europar fondo egitasmo baterako hautagaitza aurkeztuz, eskuragarriak daitezke honela, eta laguntzaile bakoitzak erabil ditzakeenak haren beharren arabera.

AMT (CAPB) : Nola pentsatzen duzu Bilketa, EKE, departamenduko artxiboekin artikulatzea?

SC : Helburua da instituzio desberdinek egitasmo bateratua (Museoa eta/edo etnopoloa izan daitekeen) gidari batekin eraman dezaten eta uztartua izateko fondo pribatu barriatuen egitasmoarekin. Qarrantzitsua da beste batzuegan ez uztea lan hau egiten, Euskal Herriko ipar lurraldean guri baitzaigu egokitzen. Qarrantzitsua da ere egitasmo baten inguruan

biltzea honen egiten lortzeko. Qaur egun sartu behar duqu horretan arazoa datozen hamar urteetan konpondua izan dadin.

2/ GAUR EGUNGO GELEN FRESKATZEA

Jadanik dauden bigarren mailako gelak aldatuko ditugu, eszenografia errespetatuz eta museografia desberdinen historia azalduz. Lan hau konfinamenduen karietara abiatu dugu (hizkuntzen gela, abiatu arkeologia gela eta jadanik dauden museografiei gehitutakoak (« Ziburuko eltzegintza » eta « ehungintza » eskulangintza erakuslehoan, ehungailuaren zaharberritzea), arte obren zintzilikatze aldatzeak ibilbidean). 2001eko eszenografia erabat zalantzan jarri gabe gaur egun ibilbidea, bisitariari egokitze gisan, aberastea eta aldatzea ahalbidetzen duen esparruen freskatze progresioa da.

3/ GELA GEHIAGO IBILBIDE IRAUNKORRERAKO

2016an, aldi baterako erakusketak muntatzeko gisan, 2. estaietako bilduma iraunkorren Errobi gelak desmuntatuak izan dira: XIX. mendeko historiaren zati bat eskas da hemendik aitzina. Alta aldi baterako erakusketa gelak bigarren estai batean antolatze erokeria da: objektuak edo pisuegiak, edo trabagarriak dira (Bonnat erakusketarekin horretaz ohartu gara).

Etxabean kokatu aldi baterako erakusketa gela beharrezkoa dugu nahitaez (horregatik dugu oroz gaitetik luzapen bat eskatzen), horrek ahalbide dezake ere bigarren estaietako gelak berreskuratzea (150m²) XIX. mendeko kontakizuna berri hedatzeko eta XX. mendea kontatzeko. Bigarren estaiak daitezke sakonkiago birmoldatua.

TUTOREQOTZAKO ADMINISTRAZIOEI BATZORDE TEKNIKOAK EGIN BERRERAIKITZEA

Bilduma iraunkor guziak eta lurraldeko historia, euskal eta gaskoin osagaietan atxikiko lituzke Dagourettek, baserriko jendartea portuko eta Baionako hiriko jendartearekin uztartuz.

4/ HEDATZEA SUHILTZAILEEN KASERNAN

Hainbat aldiz eraldatua eta etxe multzoaren gibelaldean kokatua den erakin zatia da. Hastapeneko bolumetria errespetatzen duen kuratze bat da xedea. Aldi baterako erakusketa gela egitea ahalbidetuko duen kuboak da erdigune, goratasun handiko bolumen batekin. Etxabeak eta gibelaldean aitzinatutik, bi edo hiru galeria maila aurreikus daitezke. Alde batean eta bestean, aldi berean dokumentazio zentroa (gaur egun Qaztelu Berrian dena) museoaren ondoan, etxearen zati aitzinatuan ezar genitzake, kontsultazioa errazteko horrela (liburutegia eta obren erreserbak Qaztelu Berrian egon daitezke).

Hezkuntza zerbitzua (gaur egun Dagouretteko lehen estaian kokatua) zati berri horretara lekuz aldatua izan daiteke ere, portuko bizia eta lurraldearekiko harremana kontatzeko esparru berriak libratzeko museoaren lehen estaian.

LN (Département 64) : Norena da kaserna?

SC : Baiona Hiriaren jabetza izanki, eraikinaren atzinaldean « dépôt de pompes » irakurtzen baita oraindik, apaindura eta/edo neurri bolumetrikoan babestu behar daitekeen eraikina da. Hala ere, bolumen biziki ederrak eskaintzen ditu. Atherbeak kudeatu « les mouettes » aterpetxea hartzen du oraindik, eta EHE-k, CHRS eraikina bertan berrantolatzea du xede. Horren ondorioz, eraikina hutsa izanen daiteke hemendik hiru urteetara, honen programazioa eta zaharberritzea aitzinikusteko parada eskainiz.

LN : Nork zuzen dezake hedatzearen obraqintza?

SC : Sindikatu mistoko obraqintza izan daiteke, eraikin guzien esku uztearen arqitzearen

baldintzarekin (Dagourette eta Qaztelu Berriko 2007an egina) eta kaserna gehituz.

5/ ATAL IRAUNKOR BAT ETA HARNASTE BAT HIRIAN, BISITAREN BI UNEREN ARTEAN

Egitasmoa balidun egin aitzin, herritarrekin konbentzitze lan bat eraman beharko genuke ADEME-rekin berdegune bat antolatzeke, etxe multzoaren erdian, ibilbide ezti gisa antolatzeke. Baionako bizitegien bizkarra ikusgai jar ditzakeen gune publiko baten bihotza daiteke. Bisita erdiko arnagunea daiteke, freskatzea ahalbidetuko luketen lorategi-korale bat eta terraza bat jarritz, zergatik ez (gunean jadanik dago ostatu bat, Bonnat-Helleu Museotik izari eta izpiritu arrunt desberdin eta osagarriarekin).


Izendatuak ez diren teilatuen gaineko panel fotovolatikoen erabilpena (Marengo-Argialde eraikina), erabiltzailearen hornikuntzatik bereizi beharreko argiteria gure kontsumoaren zati bat ekoizteko molde bai izan daiteke.

Egitasmo hau kolektiboki eraman behar daiteke, Frantziako Eraikinetako arkitektoarekin loturan, eraikin horren gehitzearekin, museoko teilatu guziak eta aitzinaldeak berriz ikusiko genituzke, hogoi urteren buruan zahartzen direlako seinale argiak agertzen baitituzte.

Artoski aztertu behar da bi eraikinen arteko sarbidea, THP-rekin loturan (erregularizatu beharreko araudizko hainbat elementu gune horretan), auzoekin eta Baiona Hiriko kadastreko zerbitzuekin.

PROGRAMAZIOA AITZIN AZTERTU KOSTUA:

8,5 milioi inguru, hauen artean 3 kudeatzaileen artean zatitu beharreko ibilaldian diren egoiliarrien indemnitazioa. Estatua, Eskualdea (CPER, Museoen Plana) eta Europarengana jo behar da.



Baionako etxe aintzinaldia

« ΜUSEOEN AUZOTEGIA » BAIONA TTIPIAREN BIHOTZEAN

Auzotegi berdinean eta Bonnat-Helleu museoaren parean hedatzeko eta, honela, « Museoen auzotegia » Baiona Ttipiaren bihotzean sortzeko parada.

Bi museoen konfigurazioa eta Baiona Ttipian plantatzeak, bata Errobiren parean, bestea Aturriren parean (ikus ondoko plano) gaur egun, Jacques Lafitte karrikaren bi aldeetan, bizkarrez bizkar diren bi museoak, bata bestearenetik 100 metro eskasera kokatzea ahalbidetuko luke.

Baiona hiriaren jabetza den lur funts eragin bat, 1920 hamarkadakoa den suhiltzaile kaserna ohi bat, (ikus ondoko plano), libro izanen da datozen bi urteetan.

Zati batez garbitua izan beharko daitekeen gunearen bihotzetik (THP) helgarria eta hau 600 m²-ko azalera handitua izan daitekeelarik.

Horri esker gainera, ibilbide « ezti » bat eta, (lehen Museoan zegoen korale bat) berriz ezar genezake, Euskal Museotik baionar gune bateko bihotzean ibiltzeko leku bat proposatuz (erakusketa iraunkor gelak) kasernan antolatu esparru berrirantolatu aldi baterako erakusketa berri batzuetara buruz.

Qutitan helgarria den gune bihotz bat ulertu eta bisitatzeko parada bisitariari eskainiz, usaian, baionar korale eta eskaier esparru berezi hauek pribatuak baitira.



Euskal Museoaren eta Bonnat-Helleu Museoaren hurbiltasuna.

GUNE BIHOTZ « BERDE » BATEN ANTOLAMENDUA BAIIONA TTIRIAREN BARNEAN

Gune bihotz horrek ondokoa ahalbidetuko luke:

- Qaur egun hetsia den korale batera sartzea;
- Lehen zegoen kanpoko alde bat Euskal Museorako berreskuratzea;
- Atsedeen esparru bat itzalean sortzea (terraza bat DEP-en ostatu batekin);
- Erran nahi baita erakusketa iraunkor eremu batetik Dagouretten, suhiltzaileen kasernan izanen den aldi baterako erakusketa eremura pasatzea, suhiltzaileen kasernara, museotik atera gabe;

• Ibilbide bihurtikatsua etxeen bizkarren artetik, landatu esparruen erditik, Baiona, hegoaldeko hirien eremu arrunt berezian berriz kokatzeko;

• Ehunezko errezel batez (igarobide estalia) edo berinazko hegazpe batez estali ibilbidea, igarobidea neguan ere, euri egiten duelarik ahalbidetzeko.



Baionako Euskal Museoko barne koralea, 1950ean. 2001ean, korale hau hetsia izan da argialdea eraikitzeke. Berriz ireki ahal daiteke, suhiltzaileen kasernara gunearen bihotzetik iragaiteke.

PROGRAMAZIOAREN IKUSPEQUIAK

Museo etnografikoaz haratago joatea da xedea, zinezko jendarte museo batera buruz joateko: atzokoaz eta gaur egungoaz mintzatzeko, etorkizuna eraikitzeko ulermen gakoak emateko.

Burutu beharreko baionar poloaren hedatzea, Baiona Ttipian, osagarritasun bat sortzeko (jendarte museo) Bonnat-Helleu Museoaren parean (Arte Ederretako Museoaren parean, zinezko Museoen auzotegia sortzeko gisan. Baionar poloan, Baionak, euskal Errobi eta gaskoin Aturriren arteko hiri bateragune gisa duen zatia kontatzeko beharra kontuan hartzen du egitasmo berri honek; ibai eta itsas portua aldi berean.

Leku guziz estrategikoa, euskal eta gaskoin lurraldea eta, alde batetik, Frantziaren eta, beste aldetik, Ingalaterraren arteko harremanari dagokionez.

Komunitate eta ideia berriei (Judaismoa, Argien garaia eta Mazoneria) irekia zaien Baiona merkataria eta itsasekoa eta, haren giristinismo aitzineko sinesmenekin sinkretismoa lortzen jakin izan duen herri animismo eta katolikotasunak moldatu barnealdearen arteko buruz-buruko eta dialektika filosofiko eta ideologikoaren lekua.

Baionako Euskal Museoko eremu librean pixkanaka ttipitu da, 2001ean handitua izan bazen ere:

- Publikoaren harrera-guneak atzemateko beharra;
- Langileentzat lan-guneak atzemateko beharra.

GELA BERRIAK ATZEMATEA ALDI BATERAKO ERAKUSKETETARAKO

2001ean, lehen luzatzearen kariatara, erakusketa iraunkorreko esparruak antolatuak izan direlarik. 2016an, erakusketa iraunkorreko gelak desmuntatuak izan direlarik aldi baterako erakusketa esparruak (Errobi gelak) sortzeko.

Xedea da beraz, aldi baterako erakusketa esparru hauek suhiltzaileen kasernara lekualdatuz, Dagouretten 400 m²-ko erakusketa iraunkorreko gelak berreskuratzea, ondokoa lortzeko:

- XX. mendea kontatzea (bigarren maila);
- Beste bi esparru irekitzea (etxabe eta lehen estaian) beste kontakizunak sarrarazteko (hizkuntza, bateragunea, boterea eta lurraldeak).



Euskal Museoko nabigazioaren gela

MUSEOAREN HARGUNEAK HOBETZEA

Bisitarien kopurua: Berriz ireki denetik, eskualde maila onera helarazten duen bisitari kopuru ederra lortzen du, baina museoen gehiengo handiak ezagutzen duen zailtasuna ezagutzen du, higadura tasa gero eta handiagoa, eskaintza pletorikoa eta desberdinari zor zaiona, alde batetik, eta, lehen, museoek bakarrik eskaintzen zituzten jakintza eta delectazio arrazoinek esku uzten zuten kultur numerizatu eskaintza gero eta handiagoari, beste aldetik.

Hala ere, paregabeko abantaila dauka ere, bere ikerketa gai propioa dena: **euskal lurralde aberats eta konplexua**. Kultura biziki bizkorra eta haren ezaugarriek dakarzkieten erakargarritasun handiena eskaintzen ditu: mugazgaindikoak, itsasbaterrekoa eta mendikoa, nortasun azkarreko eta zaindu dituen tradizioez beteriko ingurumenarekin.

Iparraldeko etnografia, historia eta jendarte museo bakarria izanik, garapen ahalmen handikoa da museoa.

Bizkortasun horren isla saihestezina, bere aurpegi guziekin, eta gaur egungo Euskal Herria, bere

historia, haren betikotasuna, haren aldaketa eta erronken bitartez beharrezkoa den ulermen gakoarekin ulertzeko. Museoa dinamizatu, pixkanaka irudi berri eta eraginkorra eraikiz, bisitarien asmo desberdinekin egokiturik, gai berriei, sekuentzia kronologiko berriei irekitzeko eta, beraz, handitzen den bisitari kopuru bati prestatzeko beharrezkin.

Azkenik, aldi baterako erakusketa gelak, publikoekiko zerbitzua eta dokumentazio zentroa suhiltzaileen kasernara lekuz aldatuz:

- Harrera eta denda esparruak hobetu.
- Rutzatila eta objektu trabagarriak pausatzeko lekuak emendatu.
- Komunen kopurua emendatu.
- Atsedeen esparruak eskaini bisita aldiari.

Sarbideak arintzeko eta libratzeko, bisitak abiatzean bereziki:

- Bigarren sarbide bat eskaini Jacques Laffite karrikatik eta Bonnat-Helleu Museotik.
- Edo Bonnat-Helleu Museora buruzko ateratze bat Euskal Museotik.

OBRA HAUEK AURREIKUSIZ, MUSEOAREN GARAPEN IRAUNKORRAGOA AURREIKUSTEN DA ERE:

Hegaztegiak eta haien osaketa konplexua berrikusteko aukera: teilatua, erretenak eta nahasmendu garrantzitsuak sortzen dituzten aterabide gaizki lotutako maldadun bitrezko hegatzak, baina baita murruek barnealdean berean (isurketak eta hezetasun gorakadak). Ura teilatutik beretik berreskuratu nahasmendu hauek saihesteko eta barneko lorategia ureztatzeko eta komunak hornitzeko.

Marsan hegaztegia antolatzeko aukera aztertu, « sailkatua » ez den bakarra eta zinkez egina, panel fotovoltaiakoez eta/edo bitrezko hegatzarekin egokiturik, elektrizitatea ekoizteko eta (zergatik ez?), autonomia izateko argiteria eszenikoari dagokionez.

Eraikin baten gehitzeaz baliatu, estaldura guziak baina, baita murruek ere berrikusteko, eta honela 2030era begirako gomendio energetikoak betetzeko, klima erregulaziorako tresneriak saihestuz. « EKO ENERJIA TERTZIARIO » DISPOSITIBOA (TERTZIARIO AQINDUA deitua).

COVID GARAIAN

Covid pandemiaren garaian jadanik esperimentatuak izan diren ideia anitz daude ZKP honetan.

Izan ere, nire postua 2019ko azaroan hartu dut, 2020ko otsailetik hetsiak ginen.

Irekitze eta hesteak jasan izan ditugu, ondotik, bi urtez... ameskeriak eta amets historiak aldizkatuz.

Qeldi-geldia lan egin dugu:

- Museoko arduradunek txandaka kudeatu dituzte museoko eginbeharrak.
- Zuzendaritzak segurtatuz bildumen zaintza baina baita distantziako lanean ari ziren eta ZKP-ari buruzko kontzertazioaz jarduten zuten langileekiko harremana ere. Bakoitzak itzuli beharreko galdeketa eta parte hartzeak eskuraturik.

Egin ahal izan den aldi oro, itzulera museora eta bi guneetara herenka aurreikusia izan da :

- Erakusketak prestatzeko.
- Bildumak zaintzeko.
- Erreserbak berrantolatzeko.


Ziburuko eltzegintzari buruzko lehen erakusketa bat 2020ko uztailetik 2021 urtarrilara burutu ahal izan dugu.

2021 :

Bigarren konfinamenduaren garaia optimizatua izan da QB-ren RIFSEP eta museoaren barne araudiari buruzko gogoeta baten bidez. 2021 denboraldiak balio izan du 2022ko urtarilean bozkatu lanaren antolaketa berria entseatzeko.


Qarai horrek balio izan du ere bilduma obraleku bat antolatzeko Ondarearen Institutu Nazionalarekin eta Patricia Dal Praren ikasleekin, eta museoko ehungintza bilduma osoa tratatzeko, 1992tik kartoietan baitzen hau.

Bildumaren zati bat geroztik berritua eta manikitua da eta 2021ean Haritik Harira erakusketaren gaia izan, eta museoko bilduma iraunkorretan txandakako aurkezpenak edo aurkezpen ibiltariak burutzea ahalbidetzen dute gure Donapaleuko (2022) eta Mauleko (2023) adarretan.



BURUTU ESPERIMENTAZIOAK

Joareen 3Dezko prototipotzea, Nader Koochaki, artista egonaldian (2022-2024) EQITASMO GARAIKIDEA.



2022 :

Erakusketa guziek hemendik aitzina ahalbidetzen dute:

- Lurraldean gaindi erakutsiak izatea.
- Museoko bilduma iraunkorren berraktibazioa : 03. gela Museoa eta hizkuntza (2020), eltzegintzaren erakuslehoak (2021), ehungintza eta ehungailuaren zaharberritzea (2021-22), Arkeologia (2023).

Bizi « normalera » itzuli gara museoan, Covidak eragin ditu, gu bakoitzaren baitan, nahasmendu afektibo eta profesional garrantzitsuak: batzuk joan dira, edo lanari eta, beraz, museoari zioten harremana berraztertu dute; beste batzuk etorri dira « bidean », garrantzitsua izanen da beraz haiekin partekatzea eta haien ikuspegia biltzea.

2023 urtea, Euskal Herriko autokromoei eskaini zaie eta joan urtetik beretik (2022, INP obralekua Anne Cartier-Bresson-ekin), argazkilaritzari buruzko bi xantier antolatzea ahalbidetu du (2023: Ocaña bildumaren tratatze obralekua).

Museoa Urtu egitasmo garaikidea eta poloetan eraman kontzertazio lanak, hasi ziren ere konfinamendu partzialen eta etxeratze agindu garaian.

ZKP honek proposatzen du beraz, konfinamendu garaian ongi ibili diren esperimentazioa egonkorraztea, baina ahalbidetzen du ere urrunago proiektatzea nahi dugun hedatzean eta jadanik obran diren gure esparruen berrikusketan. (5C).



Bilduma iraunkorrak
aurkeztu aldi
baterako erakusketak
sakrifikatu gabe,
eta alderantziz!

A close-up photograph of a hand holding a ceramic cup. The cup has a brown and black pattern, possibly a traditional design. The number '4' is overlaid on the image in a large, white, sans-serif font.

4

HIRIA & BASERRIA

Euskal Tradizioaren Museoa » sortzeko asmoa agertzen delarik, euskal eskulangintzako objektu eta zenbait margolanen erakusketa baten ondorioz, 1897an Donibane Lohizunen burutu Etnografia Sozietate nazionalaren Kongresuaren kariatara, gehien bat aipatzen da Euskal Herriko bizi modu « tradizionalen » lekukoak diren objektuak leku bakar batean biltzea eta aurkeztea. Baina « Tradizioaren Museoa », sortzeko lehen txostenetan, honen kokapenak eztabaida sortzen du.

Baiona, haren kokapena dela eta eskualdeko hiri nagusi gisa, leku onena bezala agertzen da museoa aterpetzeko baina, egitasmoaren bultzatzaileen arabera, « Baiona ez da euskal hiria »¹ eta, aurreikusia denaren deusek, gehien bat baserri mundua baitu gehienik hunkitzen, ez du baionar kultur eta historiaren izaera irudikatzen ahalbidetuko. Erabakia da beraz, lehen euskal objektu multzo honi, baionar historiako lekukotasun ezberdinak gehitzea: « Qainera - eta naturalki – Baionako eskualde museoak ez du bakarrik Euskal Museoa izan behar; « Baionako tradizioaren »² museoak izan behar du ere.

Kultur mugaketari gainjartzen zaion zatiketa sinboliko sakona egiaztatzen du interes alor bikoitz honek eta bien arteko bereizketa azkartzen: alde batetik euskal baserrietako herri bizi modu anonimoak erakusgai jartzen dituen museo etnografikoa, erreferentzia kronologikorik gabekoa, denboraz kanpoko mundu baten irudikapena balitz bezala; bestaldetik, hiriko gizon handi eta egintza nagusiak irudikatzen dituen historia museoa.

Ikerketa alor desberdinez hornitua da beraz museoa: Baiona eta Euskal Herria. Baionaren gizarte eta kultura testuingurua dela eta, museoa sortu zen garaian (euskal lurraldean sartu gaskoin hiria), arrunt desberdinak diren irudikapen sinbolikoetara igortzen gaituzte bi gai hauek: hiria & baserria, alde batetik, historia eta gizon handiak & euskal ohidurak beste aldetik.

Baionako portuaren maketa, ontzien sabaiaren xehetasuna



"Baionak gaur egungo museoan duen lekuaz galdekatzen ahal nuen nire burua, Baiona itsas hiria galdera baino lehen. Baionar bisitari gisa, baina behar bada museoaren bisita bukaerako akidurarengatik da, iruditzen zait Baionak bigarren mailako lekua duela (estaian dagoen maketa panoramikoa zait bururatzen). Baina ez naiz segur gela hau bisita bukaeran izatean datzala dena eta, behar daiteke, behar bada, Baionak bere baitan duen presentzia bizkortu."

(X.V)


1 André Delmas, Rapport sur la réalisation du Musée Basque et de la Tradition Bayonnaise, 1922, 8. or.

2 Ibid., 10. or.

Qaur egun, ikuspegi bikoitz hau ez da argiki agertzen, eta azaldua ere ez museoaren baitan. Alta, historikoki kokatua den bereizte hau, gaur egun, ez dute publikoek hain fite ulertzen, hain da Baiona « Euskal Herriaren hiri nagusia bilakatu ». Kontrajarriak izatetik urrun diren bi ikuspegi hauek arragoa batean elkar daitezke: elkargune ideia, bi errekena, bata euskal erreka, gaskoina bestea eta ibai eta itsas gorako portuaren historia, bertako jarduerena eta haien bilakaerarena.

Kanpotik datozen bisitari gehiengoak ez du, gainera, gela batetik bestera ikusgai jarria den kultura bikoitz honen ezagutzarik.

Qehiententzat, « Euskal Museoa » da eta Euskal Herria eta, beraz, haren « hiri nagusia » baizik ez du aipatzen. Euskal eta gaskoin, hiritar eta baserritar kultura bikoitz hau; museoan agertzen diren beste kulturak aipatu gabe, hauen artean juduar kultura, hau baita museoaren aberastasun eta berezitasunetako bat baina ez da berez balioan ezarria, erabili abantail bat baino gehiago jasanagoa baita. Tokiko berezitasun honen bitartez atzematen dugu museoak garatu beharreko gogoeta eta azterketa iturri biziki interesgarri eta egokia.



Krosko kaftatzea, Baionako portua XVIII. mendean maketa.

TRADIZIOA, HISTORIA ETA ARTEA :

Qorago aipatu museoaren balio-aniztasunari (arte / historia eta etnografia objektuak), erakutsi objektuen estatusen bilakaera gainjartzen zaio.

Objektua antzetzatua da eta taularatua barneetako berrosaketetan, edo erlika bat bezala tratatua, edo jakintza baten berri ematea gai den lekuko bat bezala; azkenik, batzuetan osoko obra baten gisara, aitzineko bizimodu baten isla estetizatua eta honela, molde bakartuan erakutsia dena.

Tratamendu mota desberdin hauek, guti edo aski minberak eta markatuak, irakurketa modalitate desberdinak lehenesten dituzte, honen hartzea eta ulertzea azkarki eginez: erlikarako afektua, objektu-lekukorako pedagogia eta objektu-obarako estetika.

Museoan, gehien bat lehen eta hirugarren aurkezpenak dira lehenetsiak, testuinguratze eta pedagogiaren kaltetan: Georges Henri Rivière (MNATP-eko zuzendaria), da, 1958an plantan ezarria izan den pilota gelaren bitartez, objektuak testuinguruan ezartzen entseatu, dioramen izaera zaharkituz urrunduz eta erakusleihoetan gauzatu objektuen makurrean erori gabe.



Pilotaren gelaren plantatzea,
Georges Henri Rivière-ren eskutik 1958an.

OBJEKTUARI BURUZKO BEGIRADA ETA MUSEOGRAFIEN GERUZATZEA

BENTA, DIORAMA 1924AN

Izan ere, 2001eko berritzearen ondoko museografiak erabat aldatu du objektuarekilako harremana, erakusleihoetan bakartuz.

Qorago aipatu gela bakoitzean arte obra eta objektuen aldi bereko aurkezpenak azkartzen du. Margolanak obrak bezala ikusiak ez diren aurkezpenak, baina, objektuak kontutan hartuak izan daitezten irakurketa eta erreferentzia koadro bat bezala balio duen denboraz kanpoko Euskal Herri baserritar baten ingurumena jartzen dute.

Museografiaren pisua Baionako Euskal Museoan beraz ez da batere neutroa mezuaren transmisioan; hedatu mezua oraindik lausotzen duten burutu 20 urteetako bata bestearen ondoko berrantolaketa eta egokitzeak. Objektua edo obra, haien jatorriko testuingurutik ateraturik, museoan daude aurkeztuak diren moldearen bidez. Ez da ikuspegi bat ere baztertu behar, hastapen batean, baina estetizantea besterik ez den aurkezpen batek, ez bada tresna didaktikoez aski lagundua, objektuaren mezu etnografikoa ahuldu edo pobretzeko arriskua dakar.

Museografia arloan, aurkezpen hautu bakoitzean objektua eta bisitariaren artean sartzen diren filtro desberdinak dekodetu behar dira, aurkezpena helarazi nahi dugun mezuaren izaerari molde zehatzean egokitu nahi badugu.



Benta, diorama museoa berritu aitzin.



Benta, 2020an berriz antolatua.

Halere, geruza museografiko desberdinak, museoaren historia eta beraz honen nortasunaren zatia dira. Qogoea berezia eskaini behar zaie ere, berriz galdekatzeko, aldatzeko eta edo berez begiratzeko eta azaltzeko.

Hala gertatutakoan, galdeketara eta ere zentzu kritikora gomitatzen dute, gaur egungo museo-tresna berriz aztertzeko.

IRAGANA, BAINA BAITA ORAINA ETA ETORKIZUNA ULERTZEKO EKARLEA DEN MUSEOA

1924an irekitzen den museoaren xedea da « Euskal Herriaren, Baiona eta inguruen, irudi zuzena bezain osatuena ematea, iraganean eta orainean »¹, deus ez ahanzte bilatzen du eta sintesia bat irudikatu nahi du. Egintzetan, ikuspegi honen bidez, identifikatu arlo desberdinen errealitatea eta konplexutasunaren zati biziki tipia agertzea baizik ez du ahalbidetzen (artzaintza, eskulangitza, erlisioa, merkataritza, etab.), baina bisitariak ulertzen baitu sintesia bat ikusgai eskaintzen zaiola hor, kultura baten « funtsezkoa », presentea ez dena adierazgarria ez dela ondorioztza dezake.

Deus ahanzten ez duen sintesia baten printzipioak zentzu guzia hartzen du « tradizioaren museoa » osatzeko jatorriko borondatean:

bizi moduen osagai arkaikoenak, tradizionalak bezala identifikatuak, gai desberdinak irudikatzeko hautatuak eta aurkeztuak ziren.

Zailagoa da gaur egun sintesiaren ideia obratzea, museoak, mugitzen den kultura baten isla izanik, ez baitu iragan urrun eta bukatu bat aurkezteko zeregin bakarra, baina bilakerak, aldaketak, hausturak, lurralde desberdinak, jarraitutasunak, problematika konplexuago, irekiago eta aldakorragoak ikusgai jarri behar ditu. 2001eko berritzeak, sintesia eta deus ez baztertzaren ideia honi jarraipen bat eman dio, museoaren jatorrikoa den printzipioarekin bat eginez.

1922ko sintesia da guti edo aski gaur egun museoan agertzen zaiguna: objektu berdinak dira eta, 1920 eta 1990 arteko garaian ez bezala, arrunt

ezinezkoa da kasik haien erabilpena lurraldea kurrituz ulertzea; honela mutuak bilakatzen ari dira 1970 ondotik sortu diren belaunaldientzat. Mende bat iragan da, aldaketa konplexuak eraginez, baserriartasunari bermatu gizarte bat, modernoagoa den baterako pasaia bizkortuz, eta museoak honen berri eman beharko luke kultura, lurralde baten ulermen gakoak hautatu osagaien, ikuspegi berezien bitartez emateko, hauek kontutan hartzen baitituzte gertatu eta gertatu beharreko aldaketak. (JB)

¹ Musée Basque : guide sommaire, Baiona : Euskal museoa arg., 1930, 2. or.

Porte-étendard basque, Eugène Pascau-ren eskutik



“Euskal gaia” minberagoa dela? Fenomenoa molde objektibo eta postkolonialaz trata genezake haserrea eskuinetik eta ezkerretik eragin gabe? Eta gaia museo baten bitartez trata genezakeia? Ihesbide hipokritoa, baina zergatik ez, litzateke gela bat gutienez euskarari eskaintzea, haren ustezko jatorriei, haren ezaugarriei, haren historiako gorabeherei, haren aniztasunari, molde folkloristatik kanpo. Ikuspegi antropologikoagoa eta 'politikoagoa' asmatzeekoa da. Esklaboei edo beltzen trafikoari eskaini museo bat bisitatzean, zaila zaio museoari engaiamendu inplizito edo esplizitoa ez ukaita usaian zorigaitzat hartuak diren fenomenoez. Ez diot hainbestekoa eskatzen

Euskal Museoari, baina bai honetaz gogoeta dezan. Ez dugu bortxaz museo duela mende bat sortu dutenen ikuspuntu berdinak. (X.V.)

HISTORIA

1997tik aitzina, 1 200 m²-ko erreserbak eta 250 m²-ko bulegoak plantatuak izan dira Qaztelu Berriko ipar hegalean, (XIV.-XV. mendeetako gotorlekua, kaserna bilakatua 1840an) Dagourette etxetik 500 metrora.

Estimatze bat egin zuen, 2010eko urtarrilean Euskal Museoko, Bonnat Museoko eta Museum-eko erreserberi buruz, Etienne Féau, C2RMF-eko kontserbatzailea buru eta prebentzioko kontserbazio departamendu buruak, 2009ko urtarrileko ekaitzaren ondotik, « Frantziako Museoko » baionar bildumen kontserbazio baldintzak ikuskatzeko. Hiru museoak : Bonnat Museoa (gaur egun Bonnat-Helleu Museoa, Baionako arte ederretako museoa), Natura Historiako Museoa edo Museum, eta Baionako Euskal Museoa.

2010eko estimatzeak ondorizotzen baitzuen Euskal Museoko eta Bonnat-Helleu Museoa, Baionako arte ederretako museoko erreserbak « egoera biziki kezagarrian » zirela, gomendatu zion Euskal Museoari « teiltua ez bakarrik baina zureria ere berriz ikustea, eta ipar hegalean kokatu erreserben antolaketa berri bati pentsatzea ». Obra hauek azkenean 2015ean burutuak izan dira erreserba mutualizatu egitasmoa baztertua izan ondoren.

Estimatzearen ondorioz, C2RMF-eko zaharberritzaile-aholkulari bat bidalia izan da erreserba mutualizatu proiektuaren ideiarekin prebentzioko kontserbazio ikerketa baterako kargu txosten bat idazten laguntzeko. « Prebentzioko kontserbazio plan orokor bat » ekarri behar zuen ikerketa honek.

Txostenaren oharrak kontutan harturik, 1 850 m² inguruko zolairu azaleko eraikin berri bat erakitzeko egitasmoa abiatzen du Hiriak 2010ean, bai eta lotuak diren kanpoko eremuen antolamendua. Egitasmoa 2015ean baztertu izan behar dute.

Baiona Hiriak eraman erreserba mutualizatuen egitasmoa baztertua izanik, bere erreserben berrantolatzeari bere aldetik gogoetatzerik behartua izan da, 2007az geroz, sindikatu misto gisa kudeatua den Baionako Euskal Museoa. Bigarren ikerketa bat manatua izan da beraz, 2016an (Roland Pintat, DRAC-eko museoen aholkulariak 2016/11/30ean, eta baztertua izan ondotik, bigarren ikerketa baten emaitzak



Qaztelu Berria (barneko korraleko ikuspegia), Euskal Museoko bulegoak eta erreserbak aterpetzen dituen ipar hegala.

igurikatu gabe, fite ekiteko beharrik gabe (2020an onartua Roland Pintaten bisita baten karietara) jadanik genekiena berretsiko zuena.

ERRAN NAHI BAITA:

Bildumen zatirik handiena, izari aldakorreko 9 gelatan, objektuen (arte grafikoak, margoak, lapidario, altzariak, objektu ttipiak, etab.) objektu ekai edo sailka bildumatzeko da. Hastapenetik (1997), termostato bati lotu hezegailu eta hezetasun-kengailu bidezko klimaren erregulazio batez gain hornituak dira esparru horiek eta eraikineko hoditeria sareari, uraren helgi eta aterabideari lotuak.

Denbora luzaz, termo-higrometro mekaniko batzuen bidez (Maxant) kontrolatua, klima, 2014az geroztik klima biltzen dute sentsoare elektroniko batzuek (Testo).



Egoera horretan, Sindikatu Mistoak erantzunak ekarri behar zizkion Baiona Hiriak esku utzi bildumen kudeaketari, 2020 eta konfinamendutik aitzina, Zientzia eta Kultura Proiektu baten zain egon gabe.

·Bitarteko bulego bat antolatua da lan arduradunentzat (ordu arte gazteluan bakarrik ezarriak ziren eta beraz museotik, harrera eta zaintzako langileengandik eta publikoarengandik «moztuak»!). Hortik aitzina Dagourettera jaisten dira (2021ean gertatu lanaren eta barne araudia berriz antolatua izan denetik) arduradunen presentzia bermatuz egunero eta asteburuetan, txandaka, eta publikoarengandik hurbilago egoteko.

· Erreserbak eta museoarekiko lotura: bi guneak lotura dute, langileek berek bi erakunde desberdintzat hartzen zituztelarik ordu arte (sentituakoa eta lanean, batzuen eta besteen lanbidean errealki edo ustezko bizitakoari dagokionari irudika ditzakegun eraginekin!).

Baionako hezetasun maila dela eta, hezegailuak ez dira sekula piztu. Hezetasun-kengailuak erregulariki ibiltzen dira eta klimaren egonkortzea, oro har, usu optimoa ez bada ere (eraikinaren irazgaiztasun akatsak, aire nahaste eza geletan, noizbehinkako aldaketa garrantzitsuak).

Klaus ekaitzaren ondorioz (2009ko urtarrila) gertatu infiltrazio inportanteek, mikroorganismoak arte grafikoen garapena erreserban bizkortu dute, hainbat zaharberitze kanpaina eraginez, isolamenduaren eta ekaitzarekin andeatutako esparruen zaharberitzearen funtsezko arazoa gaur egun molde iraunkorrean konpondu ahal izan gabe.



Objektu txikien erreserba

ERRESERBEN PROIEKTU BERRIAREN ERRONKAK

Ondokoak dira erreserbei dagozkien egitasmo berri honen erronka nagusiak:

- Eraikinaren konponketa orokorra, zerrailtzea eta estaldura, klimaren erregulazio sistemen berrikustea eta doitzea bildumak, piezaz pieza ahal bezain ongi kontserbatzea bermatzeko. Obrak behar den bezala eta hunkitu tutoregotzekin adosturik burutuak dira. Kargu hitzarmen hau 2024an aurreikusia da, Zientzia eta Kultura Proiektua onartua izanez gero.
- Horretarako, kargu hitzarmena izenpetzen ari da Sindikatu mistoa herriko etxearekin, eraikineko obrak gidatzeko gai izateko eta honen obragintza hiriko zerbitzuak libre izatea igurikatu gabe segurtatzeko. Baiona hiriak obretan partehartzea aurreikusten du, honen kudeaketa delegatuz.

- Bildumen hedapen berria esparruen baitan kudeaketa errazteko eta kontserbazioa hobetzeko. Erreserbak, gelaz gela berriz gogoetatu eta progresiboki birmoldatu behar dira; lekua eta ibilmolde eraginkorragoa lortzeko.

- Dagouretterako (suhiltzaileen kaserna) luzapen baten kariatara azertu beharreko opzioa, Gaztelu Berriko eraikin oso bat erreserbei eskaintzearena, bulegoei esparru ttipi batekin, halabeharrez (bildumen zerbitzua, administrazioa eta komunikazioa gazteluan aterpeturik egonez).

- Hastapenean aurreikusi zaharberritze esparrua gazteluan berriz plantatzeko egitasmoa eta beste erabilpen batzuek saihestu dutena (mahai xurgatzailea, bainuak eta xurgatzea berriz abian ezartzea).

- Horri esker erreserba bat bereziki eskainiko zaio argazki fondoari eta honen klima molde eraginkorragoan kontrola daiteke.



Liburutegia

Izan ere, Zientzia eta Kultura Proiektuaren baitan, liburutegia, hastapenean, Dagouretten, suhiltzaileen kaserna deitu hedatzean aurreikusi bezala berrantolatuko genuke hemendik 2028ra.

Egokia iduri du museotik hurbil berriz plantatzea eta Dagourette gunean libro diren esparru guziaz bildumak aurkezteko atxikitzea. Beraz, aldi baterako erakusketak, liburutegia eta publikoen zerbitzua luzapenean antolatua izan daitezke (kaserna ohia, Dagouretteko etxe multzo berdinean dagoen eraikin ohargarria), bilduma iraunkorren kontakizun esparruak berreskuratuz segitzen ahalbidetzeko.

Liburu baliotsuen erreserba, bildumak bezala hartua, gazteluan gelditu daiteke eta hitzordua hartuz besterik ez zaie ikertzaileei aurkeztua izanen, edo aldi baterako erakusketetan txandakako aurkezpenen kariatara.

Èpera, kontserbazioa baldintza klimatiko onenetan bermatzea da xedea, kanpoko eraikinetan oraindik biltegitatu objektuak barne, klima erregulatua ez delarik, aterabide iraunkorra atzemateko.

Urgentzian abian ezarri ditugu beheagoko operazioak Covid krisiaren garaian gertatu hetsieren kariatara **eta hau ZKP hau plantan ezarri aitzin:**



ASFO erreserba. Plantatu hornikuntza guziaz itzulgarriak dira, erreserba iraunkor proiektu berri baten kasuan lekuz aldatu behar baldin badira.

• Konfinamenduari esker ASFO-ko erreserba osoki hustu eta bildu ahal izan dugu solairuartzeko eta beraz haren bilketa eta helgarritasuna optimizatzeke.

ASFO-koa deitu hangarak Qaztelu Berrian sartzen ahal ez diren eta klimaren aldaketei minberak ez diren « izariz kanpoko » objektuak aterpetzen ditu.

Hainbat aldiz lekuz aldatu, tren geltokitik hurbil dagoen 250 m² inguruko hangar ohian (XXe) biltegitatuak dira, Aturriren beste aldean, Hiriaren esku, Euskal Herriko Tokiko Lur Funtsaren Erakunde Publikoak utzirik (Dagourette Etxetik eta Qaztelu Berritik 1,5 km ingurura). Alokatzeko prekario batekin kudeatua da eraikina eta estatus aldaketa arriskatzen du, sektore horretan 2030era izanen diren eraikuntza proiektungatik, eta horrek behartuko gaitu maila bakarreko erreserba bat okupatzea aurrekustera.

Alokatzeko prekario honek parada eskainiko du, etorkizun aski hurbil batean, maila bakarreko erreserba toki baterako obrak berriz abiatzea (bilduma guzientzat behar bada).

• Erreserbak optimizatzen hasi gara jadaniko: Bildumen bilketa optimizatzeke erreserben berrantolaketa plan bat abian ezarria da, Gramont bildumak berriz ekartzeko 40 urteren ondotik (Paueko gazteluko eremu nazionalean aterpetuak ziren 1982az geroztik) eta progresiboki berriz sartuak dira.

GRAMONT BILDUMAK BAIONAN BERRIZ HARTU (2022-2023 ETA 2024 LAN SAILA)

1982az gerotik, Baionako Euskal Museoari utzia izan zitzaion Gramont bilduma, Paueko gazteluko Eremu Nazionalean aterpetua zen, Baionan molde iraunkorrean atxikiak izan aitzin. Gaztelu Berrian dauden erreserbak optimizatuz, arte grafiko eta margolaritza erreserbak, pisu gutiagoko bildumetarako espazioa libratu ahal izan dugu (margolaritza, arte grafikoak eta zizelkaritza ttipia).

Bukatzekotan dira antolamendu hauek (zerradura, estaldura, leihoak eta murru zaharberritzea, margolanen plantatzeko seilak).

Zurgintza ateleria etxabera 2022an lekuz aldatua izan denetik, erreserben berrantolamendua eta optimizazioak eraman gaitu « Gramont » margolaritza erreserba berria 3. estaiara plantatzera, dagozkion arasa materiala erosituz: 70 000 € 2023an.



Gramont bildumarendako antolatua izan den margolan erreserba berria.

Euskal Museoak hemen Baiona Hiriaren konduko ekinez, 35 000 €-ko parte hartzea eskatu du, orohar antolamendu honen prezioaren % 50.

Marinaren gela, Gramont bildumak gaur egun balioan ezarriak diren sekzioa, museoa luzatzekotan, bikoiztua izanen litzateke gela hau, bildumaren balioztatze hedatuagoa ahalbidetuz horrela.



ERRESERBEN BERRANTOLAKETAREN FINANTZA PLANA

Qaztelu Berriko estaien berrantolaketa abian da estaietan dauden erreserben optimizazioa ohalbidetzeko objektuen metatze/pisuaren arabera, azpi honetako finantza planari

Obren egoera 23-06-08an eta 23-08-01an (ZQB) eurotan	Empresak	Oharrak
2730 €	Atlantic Elec + MDEtxelan	Elektrizitatea (1410€) + hoditeria (1320€)
3990 €	Trotec	Kontrola klimatiko tresneria (ezetasun-kengailu eta haizagailuak)
804,38 €	Boutica Design	
8141,28 €	SARL Pierre Carrère	Gisu emokadura berritzea: obren bukatzea 2023
7056 €	EURL DARRIGOL Jérôme	Zurerien berritzea
336 €	APR	2023ko ekainean aurreikusi lana
38 257,21 €	Mavipal	Obren bukatzea: 2023ko ekainean
4300 €		Bonnat Museoan berreskuratu margolanetarako seila finkoak
65 614,87 €		
9672 €	Bovis	2023 ko urriaren 2tik 4ra burutu lanak
3424,80 €	Promuseum	Bukaera iraila bukaera urria hastapeneko aurreikusia
13 096,80 €		
1000 €	Garrouste	Katedraleko zurerien lekuz aldatzea altzari erreserban lekua libratzeko (gaur egun betea dena): 2024ra gibelatua
1000 €		
4000 €		Frantziako Museoak beharmenduak betetzeko deskutsatze eta anto-lamendu obrak: 2024ra gibelatua
1000 €		
4000 €		
9000 €		
75 614,87 €		74 411,67€ ZGB 2023an inbestituak

2024-2028 PLANQINTZAN ORAINDIK AURREIKUSI BEHARREKO OPERAZIOAK

BILDUMA GUZIEN KONTSERBAZIO BALDINTZAK HOBETZEA

- Murrak isolatu eta sanatu (errautsetik babestu, xurgatzea + mélinex)
- Ur isuri arazo errepikakorrak konpondu aitzinaldeko eraiki eta leiho bermagailuetan.
- Hiriarekin kanpoko mantentze plan erregularra abian ezarri (huntza kanpoko murrutan eta landare oportunistak)
- Qaztelu Berria eraikineko erreserben hedatzea
- Kontserbazio materiala osatu (plano altzariak, apalategiak...)
- Iragaitza erreserba ttipi bat absolutuki osatu Dagouretten, obren mugimendua errazteko (suhiltzaileen kasernerako datorren luzapenean aurreikustekoa)
- Isolamendua, aire nahasketa eta klimaren kontrolaren hobetzea, eraikinaren inertzia hobetuz.
- Erreserbaz erreserbako antolamenduen segitzea, horniduren gaurkotzea
- Erregularki burutu beharreko hezetasun-kengailu eta kontrola materialen klimaren erregulazio bilana.

- Kontrola horniduren gaurkotze progresiboa.
- Intsektu eta/edo kaltegarriak zepoan hartzeko tresneria
- Erreserben helgarritasuna indartu (sailkapena, tratatzea)
- Erregularki aurreikusi beharreko fungizido, prebentzio eta sendatzeko tratamenduak.
- ASFO sailkapen berrirako, garbitzeko denbora hartu (xurgatuz) eta tratamendua bukaerako sailkapena optimizatu aitzin eta epe luzera pisu, izari eta balioan jartzeko epearen arabera.
- Zinezko argazkilaritza estudioa aurreikusi erreserben optimizazioan.
- Erreserbak erregularki garbitu.

FONDO ZAHARRA ETA ERRESERBAK HOBEBI EZAGUTU SAILKAPEN ETA BERREGOKITZAPENEN KARIETARA: OBREN KONTROLA

Obren kontrola, atzera begirako inbentarioa eta informatizatzea segitu, bilduma eta balioan jartze obrareku desberdinen karietara.



Ehunen egokitzapena 2021eko kontserbazio lan saila.

Eta honela 2020 arte burutu « aldian aldikako » zaharberritze politika ordezkatu.

Aldi baterako erakusketa bakoitzak, erreserban gelditu bildumei buruzko obrareku berri bat ikertu eta burutzeko, berritzea elikatze eta bilketa eta eskuratze kanpainak hobeki eramateko informatzeko parada eskaintzen du ere.

ZENBAIT URTETARAKO KONTSERBAZIO ETA ZAHARBERRITZE PLANA

Adibidez:

2021: Ehungintza bildumen prebentibo eta sendagarri kontserbazio lan saila.

2022: Aragazki fondoaren prebentibo kontserbazio lan saila hasia da. INP-rekin burutu obrareku-eskolak dira, ondotik urteko kontserbazio eta zaharberritze kanpaina gisa luzatzen direnak.

Urtea	Funtsoa	Lan saila	Iraupena	Aurreikusi kostuak
2020 - 2024	Ehungintza		4 urte	30 000 €
	Ocana	Argazkilaritza	10 urte	50 000 €
2024 - 2025	Mendeurrena	Objektu teknikoak	1 urte	50 000 €
2025 - 2028	Zaharberritzea erosi eta emaitzen ondotik	Margolaritza	Urte guzietan	10 000 € / an
2025 - 2028	Bildumako objektu ttipien zaharberritze eta maintzea	Teknika mistoak	Urte guzietan	10 000 € / an
2026 -	Ibilgailuen zaharberritzea	Aitzineko ikerketa	10 urte	
OROTARA				150 000 €

BILDUMEN LEGEZKO ESTATUSA EZAGUTU: EGOERA AKTA EGIN OBREN KONTROLA EGITERAKOAN

• Inbentarioaren datuak informatizatu eta indexatu behar dira eta inbentarioaren euskarri desberdinak (sartzeen kaierak...) indexatu behar.

• Bildumak dokumentatu (heldu diren ahala).
• Obren txostenak elikatu.

BILDUMEN LANGILE TALDEA BERRANTOLAKETA PROIEKTUAN ENGAIATUA

BILDUMEN LANGILE TALDEA BERRANTOLAKETA PROIEKTUAN ENGAIATUA

- Kontserbatzaile buru 1
- Kontserbazio laguntzaile 1
- Bildumen arduradun 1
- Bildumen kudeatzaile 1
- 2 dokumentalista.

Bilduma taldea, noizbehinka sostengatua da zeregin horietan :

- Astelehenetan (museoa hetsia den egunetan) eta ostegun goizetan (museoa hetsia den goizean) asteko atsedenaldia ez diren ondareko langile taldeengandik (erran nahi baita 2 pertsona beti) publiko gutiago etortzen delarik azarotik martxora.
- Ikastun langileengandik: cifre ikasle laguntzan doktoregaia (2023), Louvreko Eskolako ikastun langilea (Euskal Herria eskola handiak programa) 2023-2024
- Bilduma lan sailetatik: Ondarearen Institutu Nazionalarekin antolatutak (gehien bat apirila hilabeteetan 2020az geroztik).

Fondo immaterialez arduratuko den pertsona bat gehiago bildumen ekipan sartzea aitzinikusten dugu: filmak eta soinu zintak (Kontserbatzaile buruak utzi postuaren %50az, hemendik goiti denbora erdiz pasatua eta Bonnat-Helleu Museorako Baiona Hiriak pagatua) beste denbora erdia, europar fondoek zaintza eta numerizaziorako, europar proiektu kontratu baten eraikuntza progresiboki diruzta dezakeelarik.



Objektuei errautsa kentzea

ONDORIOZ:

Mementuko, oraingo ZKP-an, erakusketa esparruak handitzea lehenetsi dugu, esparru bisitagarrien mailan, 2025ean berriz irekiko den Bonnat-Helleu Museoarekin oraindik lehia dadin Euskal Museoa, eta museo esparru bat hiri barnean indar dezan, 'museoen karrika' den Jacques Laffitte karrikaren alde batean eta bestean mutualizazio gogoetak honela abian ezartzeko.

Qunekako lurralde proiektuak, Maulen eta Donapaleun, Baionako erreserbak arintzeko erreserbak antolatzea aurreikusten du ere (Maule, jantzi erreserba). Ez da duda izpirik, hala ere, erreserben arazoa Baionan berriz agertuko dela hemendik 2030era.

Hemendik hara beharko dugu, Baiona Hiriarekin (gorago aipatu kargu hitzarmena) 2024an erreserba gehigarria antolatu, Qaztelu Berriaren etxabearen, izari handiko obrak hartzeko gisan: gaur egun Bordeleko BOVIS-eko biltegietan, urtean 8 000 € ordainduz bildumatuak diren altzariak, margolanak, tapizeriak eta margolan handiak hartzeko!

OBREN KONTROLA ETA NUMERIZAZIOA

Bildumen programazioak behartzen gaitu erreserban eta geletan diren bildumak kartografiatzerako lehengo garaia kontutan hartzen duen kontakizuna eraikitzeko, testuinguru bat berriz emateko eta 1990-2000 hamarraldietara bederen segiarazteko.

OBREN KONTROLA

85.000 objektu inguruz osatuak dira museoko bildumak. Multzo horretako obren kontrola burutzen ari gara eta atzera begirako inbentarioa egitera eramaten gaitu.

85.000 objektutan estimatu bolumenetik:

- 15.000 objektu 3 izaritan, hauen artean altzari anitz.
- XVII. mendea eta 1950 hamarkada arteko margolanak.
- objektu etnografikoak (XIX. bukaera-XX. hastapena)
- arte obrak eta objektuak (XVIII. mendetik bigerlen arteko garaia)
- 20.000 dokumentu grafiko. Aski aitzinatua den arte grafikoko obren kontrolari esker,

orain arte 50.000 dokumentutan estimatu kopurua erlatibizatzen ahal da. Gaur egun, 12.000 dokumentu kontrolatuak izan dira, havei mapak eta afitxa kopuru garrantzitsua gehitu behar zaie, 20.000ko kopurua ez gainditzeko. Sail honetan sartzen dira estanpak, mapak, planoak, marrazkiak eta afitxak.

• 50.000 argazki.

Luzaz gutietsia izan den argazkien fondoa (negatiboak eta errebelatzeak), 2008an balioan ezarria izaten hasi denetik, aberatsena eta kopurutsuena da. 1920-1930 hamarkadetan bildu argazki zaharrei (5.000 irudi inguru), gehitzen zaizkie progresiboki bildumetan etorri diren fondoak (Bru fondoa, 6.000 irudi 1960tik 1980ra) edo berrikiago (Aubert – Auguste eta ondotik Marc- fondoa, 30.000 irudi inguru 1900etik 1960ra; Ocaña fondoa, 1.000 irudi inguru 1930 eta 1960 artean; Ro-Qer fondoa, 5000 irudi inguru 1960 eta 1980 artean).

NUMERIZAZIOA

2006az geroz progresiboki burutzen dira numerizazioa eta balioan jartzea, indar bat egina izan da numerikoki balioan ezarriak izan daitezzen;

lanak segitzen du obren kontrolaren eta aldi baterako erakusketen kariatara

2006an, 3.000 objektu (irudiak eta notiziak), ezarriak izan dira internet gunean « bildumak » erlaitzan.

2009an, eta ondotik 2016an, 3.000 objektu berri (fondo zaharreko argazkiak) gehituak izan dira linean den datu basean. Argazki fondoari buruzko lanak segitzen du 2022an Ocaña eta Aubert funtsekin.

Hemendik aitzina, aldi baterako erakusketa bakoitzak gure bildumak bisitatzeke eta obren kontrola bat egiteke parada eskaintzen du, balioan ezarriak izan daitezkeenak indentifikatzeko, eta beraz zaharberrituak eta, ondotik numerizatuak izateke. Besteak babestuak eta estabilizatuak dira bederen.

ESKURATZE POLITIKA BATI BERRIZ EKIN



Benjamin Qomez-en « enfilade », 2011eko salmenta publikoan eskuratua

Bilketa sistematikorik ez 1926az geroz. Eskaintzaren merkatuaren arabera eskuratzeak.

Ez dago gehiago, gaur egun, bildumen bilketa sistematiko eta aberasteko politikarik, azken hau, geldoturik dabilena, aldian aldika egiten baita, aukeren arabera.

Azken urte hauetan eta 2019arte sartu objektu gehienak emaitzak dira eta margolanak edo arte objektu zaharrak dira nagusiki. Azken eskuratzeen artean agertzen dira ere Ro-Qer argazki fondoaren eskuratzea.

Duela gutxi arte, museoak ez zituen arrunt bere eskuratzeak kudeatzen, museoeko ekipak bortxaz proposatu gabe hiriak erosi fondoak eskuratzen baitzituen. Baiona Hiria jabetzak dira bildumak, Sindikatu mistoak kudeatzen baditu ere, honen esku utzia baita bildumaren kudeaketa. Arrunt beharrezkoa da zinezko eskuratze politika bat plantan ezartzea, eta hau da Zientzia eta Kultura Proiektuaren erronka nagusietakoa.

XX. MENDEA AZALDU

Ez dadin gehiago bildumako hutsunik izan, lurralde berezitasunean, mundu moderno eta garaikiderako pasaia erakusten duten objektuen bilketa sistematikoari berriz ekin behar zaio beraz (emaitzak eta ondareak). Obra eta objektu enblematikoenak ez daitezzen bilduma publikoetatik eskas izan eskuratzeko aitzinkondu faltaz

Qarrantzitsua da beraz :

- Eskuratze aitzinkondua Baionako Euskal Museoa kudea dezan eta ez dadin Hiriko buxeta lerroetan geld, jadanik kontrolatuak (eskualdeko batzordeak Akitania Berriko DRAC-en) eta pisuak diren desmartzak bizkortzeko eta sinplifikatzeko eta objektu gehiago biltzeko.
- Jendarte museoak, arte ederretako museoaren gisara, eskaini eskuratze kredituak ukan ditzan, objektu enblematikoak eskura ditzan eta bildumetan emana izanik edo ondare gisa sar ez dadin beraz. Horrela Henri Caro Delvailleren *Le paon blanc* obraren eskuratzearekin gertatu bezala.



Henri Caro Delvailleren *Le paon blanc*, 1906, Baiona Hiriaren eskuratzeko, Euskal Museorako, Ondarearen Fondoaren, suskripzio publiko eta mezenas eskuzabalen laguntzarekin, 2021.

ERAKUSGAI JARRI: BILDUMA IRAUNKORRAK

2.000 objektu eta dokumentuko selekzioa aurkezten du museoak erakusketa iraunkorrean, 3 neurriko objektu gehiago handi batekin. 2000 hamarkadako museografia, garaikide eta estetikoak oraindik aitzinera ekarri da, museo berriak eta oraindik modernoaren irudia ekarri. Qarrantzitsua da azaltzea eta ezitiki eta geruzatze museografikoa errespetatuz bilakaztea.

Lurraldea ulertzeko etortzen dira bisitariak eta ez objektu famatu hau edo hori ikusteko. Hauek sortzen ikusi dituen testuingurua ulertzeko gakoak eskaini behar dira beraz, kurritzeko lurralde bat eta ezagutzeko eta ulertzeko kultura bat uler dezaten, espazioan bezala denboran ere.

BILDUMEN HISTORIA ETA BILKETA POLITIKA

1920 eta 1930 hamarkadetan eta 1950 hamarkada arte (pilotari buruzko Arramendy fondoa) bilduak izan dira Dagourette Etxean erakusgai ezarriak diren pieza gehienak.

Emaitzez osatua da lehen eskuratze hauen proportzio handia. Arte grafikoko dokumentu eta argazki fondo gehienak bigarren denbora batean etorri dira, 1960 hamarkadatik goiti, haien egilea edo jabearen heriotzaren ondotik, eta erabat desagertua den mundua erakusten dutenak.

1992tik 2001era berritua izan bada ere, bere kontakizuna guti bergaldekatu du museoak eta XX. mendearen bigarren zatia biziki guti edo batere ez du kontatu. Ezinbestekoa bilakatu da beraz gerla ondokorako eta 2000 hamarkadaren hastapeneko kontakizun hori galdekatzea, jadanik 2020an gaudelarik.

Argazkilaritza	50 000 inguru
Margolaritza	1000 inguru
Arte grafikoak	20 000 inguru
Altzariak	2000 inguru
Objektu ttipiak	6000 inguru
Lapidarioa	200 inguru
Ehungintza	800 inguru

URTE ANITZEKO ESKURATZE PLANA

Urtea	Xahutzeak	Aurr. sartzeak	Urte anitzeko eskuratze plana
2023	54 000 € 3500 €	17 000 € (DRAC diru lag.) 35 000 € (hiriak euskal museoari emaitza) 5 500 € (mezenasgoa)	<p>Amable Arias-en obra multzoa GAUR taldea 20 000 €. Amable ARIAS (1927-1984) / Euskal eskola modernoa / Gipuzkoa. Margolari eta marrazkilaria da, Euskal eskola modernoaren sortzaile enblematikoetakoa bat da, eta GAUR taldeko 8 kideetako bat (Nestor Basterretxea, Jorge Oteiza-rekin...), 1965ean Donostian sortua, Euskal Herrian modernitate estetikoaren defentsa eta sustapenerako, frankismoaren testuinguruan.</p> <p>José Antonio Sistiagaren obra multzoa, GAUR taldea (2023rako 34 000€-ko lehen zenbatekoa duen urte anitzeko plan baten arabera). José Antonio SISTIAGA (1932-2023) / Euskal eskola modernoa / Gipuzkoa, 1960ko hamarkadaz gerotik Ziburun kokatua. Donostian sortua eta Parisko Arte Ederren Eskolan formatua. Euskal Herriko mugimendu modernoaren margolari enblematikoa da, besteak beste, GAUR taldearen bultzatzailea izan zen.</p> <p>Artista liburu baten erosketara, R.Brandhof, arte azaleztapena, erlikata 2022</p>
2024 (Mendeurrenaren urtea)	25 000 € 15 000 € + aukerak Mendeurrenaren urtea	10 000 € (aurr. diru lag.) 40 000€ hiriaren dirulaguntza 5 500 € Mezenasgoa	<p>José Antonio Sistiaga (2024ko 25 000€-ko kitzatzea).</p> <p>Robert Brandhof-en 6 margolaneko multzoa murruko poliptikoa osatzen dutenak, Portrait du trinquet moderne (15 000 €)</p>
2025	Zehatzekoa ZPK garapenaren arabera Etxea erakusketa	50 000 € hiriaren laguntza DRAC laguntza %20 Mezenasgoa	<p>Hauen artean eskubide eta filmen eskuratzea INA, PATHE-ri, proiektzio iraunkorrerako geletan (aurkeztu objektuen testuinguratzea LCD pantailen bidez).</p> <p>Altzaritza, art déco margolaritza (Elissaga, Maggie Salcedo), objektuak (Cazaux)?</p>
2026	Zehatzekoa ZPK garapenaren arabera. Aisialdiaren erakusketa	50 000 € hiriaren laguntza, DRAC laguntza %20, Mezenasgoa	<p>Argazki eta objektu, margolan eta zizelkadura eskuratzea. Hauen artean, « Société française de la photographie »-ri eta « Fondation Albert Kahn»-ri erosi eskubideak.</p> <p>Surf historiko ederra ?</p> <p>Artista ezagunen argazkiak (Euskal itsasbaterrean egin egonaldian), Hermann Paul-en obrak?</p>
2027	Zehatzekoa ZPK arabera	50 000 € hiriaren laguntza, DRAC laguntza %20, Mezenasgoa	<p>Hauen artean, arte eta etnologia objektuen margolanen eskuratzea.</p>

ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

Zinezko politika bat aplikatu behar zaie ere, etorkizuneko bilduma orain eraikitzen laguntzeko. Horrez gain, museorako interesa urtero berriz aktibatzeke aukera ematen dute, eta, ondorioz, itzultze tasa eta bere hurbileko bisitarien kopurua emendatzeko ere. Hiriaren eta lurraldearen erakargarritasunean parte hartzen dute, eta, beraz, ezin dira sakrifikatu eta esparru eskainiak ukan behar dituzte.

Baionako Euskal Museoan, ez baitira aitzinikusiak izan aitzineko berritzearen kariatara, erakusketa iraunkorreko gela batzuk kenduak izan dira aldi baterako erakusketak antolatzeko gisan, ibilbidearen kalitatea kaltetzeko horrela.

Etengabe okertzen ari den egoera errepikakor hau konpontzea da ZKP honen eta museoaren handitzeko proiektuaren xedea ere.

2020TIK 2028RAKO PROIEKTU URRATSAREN GARAIKO DENBORALDIAK ETA ERAIKINA HEDATZEA AITZIN

Aitzinetik zehaztu erakusketen egutegi printzipioa 2020an jadaniko onartua izan da, ikerketa, partaide eta ko-ekoizpenen bilaketa, balioan jartzeko bildumen eta eskura daitezkeen tratzea eta zaharberitzea aitzinatzeke.

Exogenotzat ekarriak dira urte bikoitiak (2020, 2022, 2024, 2026): Euskal Herria eta lurraldea, haien «asmatzailleek» begiraturik.

2020: *ziburuko Arte EItzegintza*, 1919-1995.

2022: *Léon Bonnaten mendeurrena:*

Maisua, ateleria eta Baionako Eskola (Bonnat-Helleu museoarekin ko-ekoizturik, eta Baionako hirian museum, departamenduko artxiboak, Arte eta Historia Hiria eta Baionako AOIZ-arekin partaidetzan)

2024: *Euska! Museoaren mendeurrena:*

begirada antropologikoa eta jendarte museoak, museografia eta ikuspuntu historia (partaidetza bilaketa: lurralde sareak, Mucem, jendarte museoak, FEMS).

2026: *Aisialdien asmatzea Euska! Herrian: Eujeniatik surfera* (lan titulua), partaidetza bilaketa (itsasbazterra, Donostia, Biarritz...).

« Endogenoak » deituak dira urte bakoitiak (2021, 2023, 2025): Euskal Herria eta lurraldea, lurraldeko eragile eta herritarren ikuspegitik ikusiak.

2021: *Tames du quotidien, Haritik harira,* ehungintza Euskal Herrian gaiari buruz: janzteia eta beste apaindurak ; (Bi erakusketa ibiltari eragin ditu lurraldean erakusketa honek: bata 2022an Donapaleun, bigarrena maskaradako janzkien inguruan Maulen 2023an (Euskal Kultur Erakundea eta Euskal hirigunearekin partaidetzan).

2023: *Euska! Herria koloretan: Autokromoak, 1907-1937* (Bilboko Euskal Museoarekin partaidetzan)

2027: *Euska! etxearen diaspora miresgarria;* 1937ko Erakusketa Unibertsaletik « Les 3 B » geroztik, arkitektura erregionalistatik.



Rikara eta kikara azpikoa, Ziburuko eltzetegia, Vilotte garaia, 1940 inguru



Baionako bestetako lepokoa, anonimoa, 1950 inguru.
Tames du quotidien, Haritik harira erakusketa.

« SASOI ARINA » AZAROTIK MARTXORA

• Obra gomitatuak:

Jende ospetsuak Euskal Herrian, artista ezagunen egonaldiaren lekuko diren obra batzuen bitartez: Bonnat (2022) Loti (2023), Ravel, ...baina baita Picasso eta Edmond Rostand edo Luis Mariano ere.

• Ibilaldi eta gaikako erakusketak:

Charles Carrère, obra grafikoa (2021), La Zélé, framazoneria 250 urtez Baionan; Dominak eta dominekin ohoratuak (2022); PierreLoti (2023).

• 2021etik 2028ra, Euskal Herriko emazte artistei eskaini zikloa:

Eugeniaren ildotik, aldare bat Eugeniarentzat (2021) eta ondotik, Feillet ahizpak, bi ahizpa margolariren senitartea: Marie Qaray, Léon Bonnaten ikaslea (2022), Rosemonde Qérard eta Clémentine Hélène Dufau (2024 Arnagarekin partaidetzan), Elizaga, etab...

ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

ARTISTA GARAIKIDE EGOITZA

Azkenik, gure erakusketa iraunkorrekin parez pare gomiatu artisten programa garaikide bat ukanen dugu: *Nader Koochaki : Museoa urtu, egoitza artistikoa 2021-2024an* Euskal Kultur Erakundea, Zuberoako Sindikatua eta Qordailuarekin (Qipuzkoako zaharbertitze Zentroa) partaidetzan.

Ikerketa fase baten ondotik 2022an, (Zuberoako kaiolaren kartografia, artaldean bilketa, proiektuan parte hartzeko boluntarioak atzemateko artzainekin topaketak) eta negu honetan (2023ko urtarriletik maiatza erdia arte), Soineko pasaia erakusketa artzaintza gelan aurkeztuta, Museoa urtu proiektuaren bigarren fasea prestatzen dugu.

Erran nahi baita, 3D prototipatze eta urtze teknika baten araberako joare prototipoen fabrikatze esperimentalak.

Prototipo hau sinesgarria bada, 2024an (museoaren mendeurren urtea), parte hartzen duten artalde buruko ardi bakoitzari ezarriko genizkiokeen joareak fabrikatuko ditugu.

Obra ibiltaria lurraldean, proiektu oso berritzailea, lurraldean ibiltzen den obra batena, baina Museoan inbentariatua dena; honen prozesu esperimentalak

bai eta «Works in Progress» horren kontakizuna ondotik ikusgarria izanen daitekeelarik Baionako Euskal Museoko artzaintza gelan (erakusketa iraunkorrak, soinu obra), eta ondotik Maulen (ibiltaritza Zuberoatik hurbilenera). Horretarako dirulaguntza eskatua izan zaie DRAC eta Akitania Berria Eskualdeari, lurraldeko garapen faseari dagokionez.



Trames du quotidien, Haritik harira erakusketaren escenografia, 2021an.

EKE eta Baionako Euskal Museoak dute elkarren artean artista egoitza antolatzen Zuberoako sindikatua, Qordailua eta Euskal hirigunea partaidetzarekin.

GURE BILDUMAK EZ IRAUNKORRAK ETA AUSARTAK BILAKARAZI.

- Gure erakusketa iraunkorren aurkezpena berraktibatu.

ONDOKOA AHALBIDETU BEHARKO LUKE ALDI BATERAKO ERAKUSKETA BAKOITZAK:

- Ikerketa egin eta gure bildumaren kontakizuna aitzinarazi.
- Bilduma eta bereziki erreserban gelditu objektuak esploratu.

PROGRESIBOKI EGINEN DIRA GELEN BERRANTOLAMENDUAK

Eta hau, museografia errotik birmoldatu gabe, museoaren hedatzea arte. Bilakaera honi kontakizuna berridazten, irauli gabe osotzen eta XX. mendea kontaktzen ahalko dugu ere: gure Hegoaldeko probintzietako Euskal Herritar auzoekin, baina gure biarnes eta gaskoi auzoekin batzen eta bereizten gaituena pausatzea.

San Andresen estatutu polikromoraren egonkortzea,
Juliette Fayen eskutik, 2021



« Erakargarria izatea da Euskal Museoaren ezaugarria, bereziki Dagourette etxea berari esker eta gelen indar gehigarriari esker, obran jarri museologiaz dioguna nolannahikoa izanik ere. Erakargarritasun hau gara dezaketen neurriei buruz gogoetatu beharko genuke.

Aitzinetik daukat Euskal Museoak ondokoa egin dezakeela eta egin behar duela:

- Museo ororako ezagutuak diren zereginak atxiki: kontserbatu, aztertu, erakutsi, helarazi.
- Haren erakargarritasuna indartu.
- Leku unitatearen beharrezkoena atxiki, gai unitatea nabarmena izanik.
- Balioak helarazi eta museoak betekizun soziala duela kontutan hartu (ez bakarrik eskoletako haurren).
- Haren bilduma ikusgarrien beharrezkoena atxiki eta bilduma ikusgarri hauen parte bat beritu hala ere.
- Erakusgai ezarri objektuari bere monumentu (objektuaren izariak ikustekorik deus ez du horretan), jendartearen historian, honen artean arte historia, sargarritasun, ondasun sozial eta publiko balioa eman edo berriz eman. Gogoeta teoriko eta ekintza praktikoarekin gaiari buruz.
- Erakusleihoak, euskarriak, argiteria, afitxatzea etab bezalako erakusketari eskaini ekaien kalitatea zaindu.
- Museoaren tokia, eraikuntzaren kalitatea zaintzen segitu.
- Open data munduan sartu fondoei dagokienez (objektuak, ikonografia, arte obrak, liburuak etab.).
- Ahozkotatasunaren munduan sarraldi bat egin eta ondotik seriozki erabili.
- Harremanak beste hiru probintzietako giltza-eragilekin bederen errotu »

(X.V).



Kontakizun bat
berreraiki



kusi dugu, gai batzuk garatuak izanen dira Donapaleun eta Maulen eraikitzeoak diren beste poloetan: hala ere garrantzitsua da Euskal Herria zer den ulertzen ahalbidetzen duten gai guziak aipatuak izan daitezzen Baionan eta publikoak euskal lurraldea kurritzera bultzatzea; honela, lurraldeko beste poloekiko lotura azkartua izanen da kontakizunen osagarritasunaren zentzuan.

EDUKIAK BERRIZ DEFINITU

Edukibatzuk gehituak izanen dira:

- Euskara eta beste hizkuntzen lekua espazioa eta denboran
(Kronologia dinamikoa, taula sinoptikoa, XOROA gelan plantatzea ikertze fasean?)
- Etxearen, premuaren rola eta transmisio sistema euskal jendartearen atzetik gaur arte (lehen estaiako arkitektura gelaren berregokitzea).
- Komunitate desberdinen rola, erlisioneen historia eta antropologia gure lurraldean, hierarkiarik sortu gabe sinesmenen artean, baina haietako bakoitzak duen rola arkitektura konfigurazioan eta usaia eta ohiduretan.

Adibidez: katolizismoak izan duen gotorleku betekizuna euskal nortasunaren egituratzean frantses Iraultzaren ondotik: euskararen erabilpena eremu publikoan, komunitatearen arau sozialen preskripzioa, ideologia erregionalistaren sustapena III. Errepublikaren garaian, lekukoa ezkerreko mugimenduek Bigarren Mundu gerlatik goiti hartu dutenetik.

- Sineste eta errito ohiek utzi aztarnak: gela bat « heriotza eta honen bizitakoaren historiaz » (xutarrien gela, 4. gela).
- Baionako portuaren lekua gure lurraldearen historian eta Estatu zentrala eta lurraldeen arteko harreman konplexua (Gramont bilduma balioan ezarriz).

Portuko, botereko pertsonai handiak, Estatu/ lurraldea harremanak (Argitu gelan?)
Bi erreken bateragunea eta itsasora buruzko irekidura, merkataritza eta estrategia lekua (gelen zatikako berrantolamendu, portua, ibai ontzigintza, arrantza, tratularitza eta maketa)

Tokiko pertsonai historikoen rola, haien potretak ibilbidean aurkeztuak izanik eta Baionako portuaren konfigurazioak jokatu rol zentrala. Maketaren gela adierazkorragoa bilakarazi, soinu programa numerikoa gehituz.



Euskal Museoan aurkeztuak diren hilarriak.



" Baiona guti agertzen da ere itsas eta ibai hiri gisa. Ez ote dugu indar bat aurreikusten ahal gai honi buruz? Hiri irekia eta hetsia da Baiona Roland Barthes-ek dioenez. Hesteari dagokionez, Vaubanen harresiak hor daude. Irekitzerako, Aturri edo Errobin, leku flotagarri bat (xalanta, gabarra) finkoa edo mugikorraren bidez Euskal Museoaren adar bat Baionan plantan ezartzea bederen proposatzen dut. Duela guti joan-jile bat sortua izan da Aturriin. Nahitara mugatua da nire iradokizuna baina Douarnenez edo Dunkerqueko museoak gogoan hartuz, adibidez, zerbait asma genezake."

(X.V)

MUSEOGRAFIA AZALDUA EDO BERRIZ GALDEKATUA

Xedea ez da bortxaz jadanik dagoen museografia kentzea edo osorik iraultzea baina esparru bakoitzerako, testuinguru bat ematen eta objektuen birtestuinguratze ahalbidetzen duten dokumentu, argazki, entzunikusikoez osotzea (aitzineko zaharberritzearen karietara abiatu lana osotu).

IKUSPEGI HISTORIKOAGO ETA ANTROPOLOGIKOAGO

Adibidez, soinu batzuek (bisitaria pasatzean abiatu soinu dutxak), irudiek (argazki eta/edo filmak) idatzizko edo ahozko lekukotasunek birtestuinguratu objektuen erabilpena eta honen testuingurua ulertarazi.

Beste gai batzuk gaurkotuak daitezke:

- Kirola eta pilota,
- Bizitegien, bizi sozialaren eta besten bilakaera,
- Eskulangintza eta fabrikak, industria ttipia,
- Amerikako lurra aurkitzea, migrazioak eta diaspora.

Edo zeharka gehituak:

- Emaztearen, premuaren eginkizuna
- Sorgingoa eta sinesteak eta haien instrumentalizazio politikoa adibidez.

Gela batzuen hiperespezializazioa saihestuko dugu: pilota eta pertsonai historiko potreta galeriak.

3B-en pabiloia edo Baionako portuaren maketaren gisako objektu ikoniko batzuk balioan ezarriak izanen dira eta diskurtso zabalago baten berme gisa baliatuak izanen dira: Euskal Herrirako interesa, Baionako portua eta erronkak, etab.

Ibilbide hastapeneko proiektio gelan: "Au Pays des Basques" 50 min-ko filma luzexegia da ibilbidearen leku horretan (bisitariak sobera denboraz finkatzen ditu bisita hastapenean); beste molde batez balioan ezarria izanen da eta geldigeldia proiektatu film laburragoen programazioari esker, Euskal Herriaren, 1937tik gaur arte, eta honen erronken (politika, kultura, turismo, klima, etab. arlokoak) ikuspegi anitza emana izanen da.

EUSKARAREN ERAKUSLEIHO ESPARRU ELEANITZA BEZALA

LURRALDEA ETA HIZKUNTZARI SARRERA EGITEKO GELA (XOKOA GELAN?)

Euskara bere hizkuntza berezitasun aldetik eta bere euskalkien aldetik ikertua izanzen daiteke, euskara batua, nafartar-lapurtera, zuberera ere bere auzoekiko. Hizkuntzen lekua eta haien erabilpena denboran gaindi eta lurraldean azalduak lirateke (taula sinoptikoa leku eta garai baten bidegurutzean agertzen diren dokumentu eta objektuak).

Hiriaren iragana kontutan harturik, **gaskoiera** asmo horretan sar daiteke ere.

Unibertsitatea sarraraztea ondare immaterialari dagozkion edukietan, eta, besteak beste, euskararen ahozko erabilpena bezainbat idatzizkoa ere, berretsi behar da Iker-ekin (ikerketak laborategia), baina baita Euskaltzaindiarekin (euskal hizkuntza ikerketak) eta Eusko Ikaskuntzarekin (euskararen eta ikerketaren sustapena) eta Euskal Kultur Erakundearekin Euskal Etnopoloaren baitan eta, azkenik AER-rekin (euskararen irakaspena helduei) eta murgiltze edo elebidun irakaskuntza elkarteekin izenpetu hitzarmen baten bidez.

- Datu base osagarriak lortzeko aukera gela berdin horretan.
- Lekukotasunak entzungai (kioskoan kontatu historiez gain).
- Soinua gehitu mundua ikusteko moldea ulertarazteko (Soinu grabaketak, bideoak..)
- Hizkuntzak agertokiratzen dituzten ikuskizunak.

« Ondarearen eragile da hizkuntza. »

« Hizkuntzaren transmisio leku
pribilegiatua da jendarte museoa. »

(FEMS-eko Je-dis)

KOMUNIKAZIO HIZKUNTZAK

Leku handiagoa eman lurraldeko hizkuntzei gaur egun, bilduma iraunkorren ibilbidean: ibilaldi xendera moldean trata genezake hizkuntza, bildumaren bitartez, hari nagusi gisa ibilbide nagusian:

KARTELEN BIDEZ PRESENTZIA UKANEN LUKE ERE HIZKUNTZAK ETA HAIEN ITZULPENA BERRIZ AZTERTUKO GENUKE

Hizkuntzei formakuntza, baina baita euskarari indartua izan behar da EEP-ren sostenguarekin. Langile gehiagok euskara mintzatu behar dute, langileen formakuntzatik iraganen da baina baita euskara gehien bat eta, zergatik ez, gaskoiera hizkuntza naturala duten langile batzuk hartuz.

Xedea da, alde batetik, gertatu beharreko erretretara joanen diren langile euskaldunen ordezkatzeta eta, beste aldetik, gaitasun hori azkartzea, besteak beste itzulpen eta testuen berrirakurtze mailan.

Eztabaidak kioskoan : batzuek diote atxiki behar dela, besteek kendu nahi dute.

Ibilbidean arnagunea da kioskoa, etxeko geletan sartu aitzin baina bestelakotu behar da.

Ipuinen sekuentziaren iraupena berrikustekoa da: laburragoa? Kantua gehitu behar zaio? Ipuinen abiatze automatikoa bisitaria sartzean?

Kontakizun hizkuntza eta hizkuntza kantatua eta ikuskizunak.



Programazio elebiduna (edota hirueleduna)
Baionako Euskal Museoa.



Gaskoierari utzi tokia museoaren programazioan.

LURRALDEAREN HISTORIA HISTORIAURRETIK

Historiaurrea eta protohistoria osoki berrikusiak daitezke Euskal Herrian burutu indusketen historiografiari eta historiaurrearen historia nagusiar lotzeko.

Ojektuetatik abiatuz eta alde batetik ondokoa aitzinera ekarriz: Ikuspegi sinoptikoa: objektuen datatzeak eta lurraldeko hondar adierazgarri eta identitario nagusiak :

- Mairu baratze, gaztelu: lapidario, mugari eta mairu baratzea, ehortze erritualak: ikerketa egoerak.
- Harpeak eta irudikapenak: bizitegiak, aterpe eta harpeak, arte parietala (Isturitze eta zizelkatua (zaldi ttipia).

Beste aldetik, historiaurrea eta historiaurrelari handi arloko ikerketaren ikuspegi historiografikoa.

- Laborantza eta artzaintza arinduko genuke, eta baita birtestuinguratua film eta soinuen bitartez. Maulen gehiago garatua izanen da eta etxetiarrena Donapaleun; Baionan, lurraldeko bizi tradizionalaren ikuspegi orokorragoa izanen da (ihizia, hazkuntza, ereintzak, uztak eta lehen eraldaketak ...).

Laborantza eta artzaintza gelako erakusleihoak.



" Historiaurrea bereziki guti ikusten da museoan. Asumitzen ote dugu huts hori edo aurreikus dezakeguia aurkezpen bat laburra bada ere (materiala baldin bada edo mailegatzen ahal bada)? Aurreikus genezakeia Euskal Herrian bildu eta beste museoetan atxiki objektu desberdinen euskal esparrura itzultzea? Desatsegina da adieraztea Saint-Germain- en-Layen atxikiak diren Otsozelaiko objektuen arazoa ez dela erabat, haien jabeen ondokoek edo Estatuetakoko ordezkariak eskatzen dituzten afrikar objektuez edo "primitiboez" desberdintzen. Baiesten dut, hala ere, gogoeta eraman behar dugula."

(X.V)

KONTAKIZUNAK INDARTZEA

EUSKAL GIZARTEAREN ETA BAIONAREN ARTEKO HARREMANAREN KONTAKETA KOHERENTE BAT SEGITZEA

Euskal jendarteak eta Baiona, ibai eta itsas portua, Errobi eta Aturriren eta euskal eta gaskoin kulturen arteko bateragunea arteko harremanaren kontakizun egokia segitu (portuaren eta maketaren gelaren garatzea).

Qela gehigarri baten sortzea Argitun: portuaren garapena, botere zentrala eta Estatuarekiko harremana (Erregetasuna, Inperioa, Nazioa), itsas portua leku estrategikoa eta defentsa + botere zentralarekiko eta lurraldeekiko harremana Qramont familiaren historiaren bitartez.

Etxeari eskaini gelak (gizarte eta arkitektura unitatea) berrikusiko genituzke, hiriko etxe aberatsaren zentzuan Donapaleuko (burguko etxea: etxezaingoa, eskulangintza, eta errituala etxean) eta Mauleko ikuspegiak osatzeko (etxe etxaldea eta etxe, borda, olha harremana).

BIKAINTRASUN PRAKTIKEN GARAPENA

Aurkezpen berriak errezibituko lituzkete eskulangintzako gelek: txokoleta (etxearekin lotura egin dezakeena hiriko praktika batetik industria batera progresiboki iragaiten baita), Ziburuko eltzegintza (2021ean burutua), Lesbique, Mauméjan eta Carrère-ren inguruko berina leihoa.

Burdin langintza, aroztegintza: meatzetik Forges de l'Adour industriara, Dassault hegazkintza aipatu.

3B-ak eta neobasque-ren sortzea: arkitektura, arte apaingarriak (Qomez anaiak) azalduko genituzke gela hauetan.



1. estaiako planoa

KONTAKIZUN BERRIAK SORTZEA: ERLIJIOAK, XX.MENDEA

GELA ETNOGRAFIKO BAT ESKAINIKO GENIOKE ERLISIONEN ARRAGOARI

Dispositibo sinoptikoa: datak, egintzak, bildumako objektuak:

- Gela bat lurraldean dauden erlisione guziak aipatzeko zedarri kronologikoekin.
- Erlisionearen osagai guziak bildu (ikus dolua aparte gaur egun) zentzua berriz emateko.
- Objektuen bidez irudikatu zerrenda kronologikoa eta erlisione eraikinen hiztegia sartu.

Erlisionetik datoz herri sinesteak. Molde partehartzailea sortuko genuke gela hau ikuspegi antropologiko baten arabera eta komunitate desberdinetako ordezkari « jakitunekin ».

GAUR EGUNGO ALDI BATERAKO ERAKUSKETA GELEN LEKUZ ALDATZEA

Gaur egungo aldi baterako erakusketa gelak hegal berri batera lekuz aldatuko genituzke

(irakur suhiltzaileen kasernarako luzapenari eskaini kapitulua).

Horrek ahalbidetuko luke 2. estaian ondokoa garatzea gaur egungo folklore eta erlisionaren gela aitzin:

- Historia politikoa eta Euskal Herriko XX. mendeko gida-marka nagusiak.
- Beste kirol eta asialdiei buruzko kontakizunak pilota gelaren segida gisa.
- Praktika sozialen azalpena, folklore sinpletik haratago: dantza, musika, ihauteriak eta pastoralak aipatuko genituzke (baina azken bi aspektuak Maulen gara genitzake) praktika garaikideetan berritzen diren ikuspegitik ere, gazteen artean praktiken jarraipen garrantzitsua ahalbidetu baitute.

Horretarako, bideoek objektu mutuak biziaraziko dituzte. Gainera, karrikako antzerkia (libertimenduak...), antzerki garaikidea eta literatura erakutsiak izanen dira ere hizkuntza irudikatze.

Helburua da, publikoa lurraldeko praktika garaikiderantz joateako gomitatzea : maskaradak, pilota partidak...

Praktikak lurraldean eta haien bilakaera, koru kantutik bertsolaritzaren berpiztera, emazteak sartzea lehen gizonen bakarrik eraman praktika batzuetan (pilota adibidez) azpimarratuak izanen dira.

2. estaia plano



SEINALETIKA ETA MUSEOQRAFIA

Gelen izendapenak berrikusi beharko genituzke.

- Euskarazko edo gaskoierazko hitzen ahoskatzeko moldeaz oharpen eskasa zuzendu. Zenbait gela eta sailen tituluak zehaztu, berriz izendatu eta itzuli beharko genituzke.
- Kartel guziak irakurgarriagoak bilakarazi.
- Ibilbide iraunkorra arinagoa bilakatu eta norabideen seinaletika homogeen bihurtu eta ibilbideak (eskailer eta igogailuak) zuzenki ulergarriak bilakatu.

JADANIK DAGOEN MUSEOQRFIAREN HAUTUAK ETA EKARRI BEHARREKO BILAKAERAK: KONTAKIZUNAREN ZERBITZUKO DEN MUSEOQRAFIA ETA MUSEOAREN HEDATZEA.

Qarai batek markatu museografiak azaldu beharko dira: adibidez, pilota Georges Henri Rivièreren eskutik, edo Zette Cazalas-ek egin zeramika aurkezpena 2000 hamarkadan...

Soinu kioskoa, entzunaretoa atxikiko genituzke baina berrantolaturik (film laburrak, audio, entzunikus eta multimedia euskarriak).



Zuberoako maskarada, Qamere-Zihiga, 2018an. Praktiken feminizazioa, hemen dantza. Duela guti arte, rol hauek, gizonen dantzariak baizik ez zituzten betetzen (© Euskal kultur erakundeak).

XX. MENDEAREN BIGARREN ERDIA INTEGRATZEA

Euskal Museoa, Bigarren mundu gerlan gelditzen da historia... 2020 hamarkada delarik jadanik, hemendik aitzina garrantzitsua da historia bilakatu den XX. mendearen bigarren erdiko denbora sarraraztea.

XX.mendea tradizioaren, modernitatearen bitartez, gai sozial eta politikoekin sarrarazteko:

- Baiona/Euskal Herria harremana birkokatu, ikuspegi historikoan aurreikusi,
- Ipar Euskal Herria/Hego Euskal Herria,
- XX.mendeko artikulazio handiak atxiki: 1914ko gerlaren moztura, 1936ko gerla, 1960 hamarkadatik 2000kora.

ZERRENDA SINOPTIKOA / MAPA DINAMIKOAK: BILAKAERAK ERAKUTSI

Euskal Herriko XX. mendearen ikuspegi orokorra, sintetikoa proposatu mendeko data nagusiak Euskal Herrian eta historia nazionala paraleloan jar ditzaketen zerrenda eta mapa batzuen bitartez.

Sekuentzatzea (lantzekoa):

• **1914 arte:** XIX. mendea, bilakaera gorabeheratsuak (itsasalde / barnealde), baserrialdearen hustea eta Amerikarako emigrazioa, laborantza egiturak orokorki atxikitzea, tokiko industria ttipi baten hastapena, Elizaren eragin biziki azkarra oraindik gehienbat euskaldunak diren baserriko biztanleengan.

• **1914-1936:** 1914 gerlaren haustura azkarra (ideologia, sozial eta kultura arlokoa) abiatu mugimenduen lastertzearekin (baserrialdearen hustea, turismoaren garatzea...), emazteen rol berria, bereizte soziokultural biziki azkarra zati kontserbadore eta errepublikar zatiaren artean...

• **1936-1960:** Espainiako gerla zibila, euskal iritzia 1936an zatitzen da: Euskaditik, bere gobernu autonomista eta « gorria »rekin, iheslariak laguntzearen aldekoak (Mathieu Jaun apezpikua, iheslarien sostengu batzorde nazionalaren presidentea; mugimendu proto abertzalea,

euskal herrizalea sortzen duten Piarres Lafitte eta Madeleine de Jauréguiberry).

Iheslari anitz Ipar Euskal Herrian egoten dire, bi lurraldeen arteko trukatzeko hertsia markatzen duena. Musika eta dantza taldeak antolatzen dituzte.

Masako turismoaren hastapena.

Mekanizazioaren hedapen progresiboa laborantza munduan.

• **1960 hamarkada:** Apeztiartatze eta girstotasun apaltze azkarra euskal jendartearen. Kultura mugimenduaren hastapena Euskal Herrian hizkuntza, musika, arte plastikoaren arloan... Abertzaletasunaren hastapena munduko deskolonizazioaren mugimenduan. Turismoa faktore ezkor gisa hartzen hasten dute Euskal Herriaren defendatzaileak. ETA-ren sortzea.

• **1975-1987:** Francoren heriotza, « trantsizio demokratiko » prozesuaren hastapena Espainian. ETArekin garapena eta barne tirabira bortitzak (1959).

Iparretarrak Iparraldean.
Euskal gatazkaren mediatizazioaren hastapena.
Plan ekonomikoa: tokiko industria ttipien lehertze lasterra eta gizarte mailako tirabirak.

• **1987-2017:** Qatazka armatuaren beheramendu progresiboa, armen uztearen aldarrikapena arte 2011n. « Bake prozesuaren » hastapena.

• **2017:** EHE-ren sortzea.
Tentsio gero eta handiagoak etxebizitzaren inguruan.
Euskararen egoera: erabilpena mantentzen da baina honen lekua jandartean apaltzen da, biztanle etorri berrien kopuru handiarengatik.



Euskal Herria aitzin gero erakusketarako Alain Arnoldek, argazkilari eta bildumen arduraduna, argazki hartzen.

ERAKUSGAI EZARRI GAIAK

- Jarduera ekonomikoak, eskulangintza, industria.
- Arte sorkuntza, Euskal Herria eta kanpoaren arteko harremana.
- Kultura pizkunde mugimendua euskara arloan, kohesio soziala edo nortasunaren adierazpen kolektibo hartzigarriak.
- Politika eta militantismoa.

AURKEZTU OBJEKTUAK

Bilketa berezia burutua izanen da datozen urteetan XX. menderako pasaia adierazteko Euskal Herriko lekukotasun adierazgarrietan, adibidez:

- Aisialdi objektuak: itsasbazterreko kirol eta aisialdiak, lerra eta askatasuna/herri kirolak
- Arte apaingarrien presentzia Euskal Herrian erakusten duten altzari eta higiezin adierazgarriak
- «Euskal Herria» merchandising aldaketa nagusien eta fabrika tradizionalen estalki eta marka adierazgarriak: xingarra, bixkotxak, txokolatea, eta ehunak...
- Arte grafikoen berpiztea, afitxak, jauzi identitarioa eta militantismoak
- Arkitekturak eta etxebizitza eskubidea: ihakin eta modernitatea artean, aldaketak, etxetik eraikin neobasquera...
- Laborantza eta artzaintza tradizionalaren aldaketak eta erronka eko-iraunkorrek.

Museoko bigarren maila guzia erabil genezake hedatze bat eraikitzen baldin badugu. Qaikako batzuk emendatuko genituzke XX. menderako pasatzeaz jadanik dauden sailetan: adibidez laborantza eta artzaintza, eskulangintza, etxea...; oraindik sortu ez ditugun sailetarako, bigarren mailan sail berezi bat irekiko genuke: adibidez gerlen testuingurua, politika,...

Hedabideak

Soinu eta entzunikus euskarriak: gertakizun nagusiak markatzen dituzten argazki eta bideoak
Soinu giroa (gibeleko azantzak, adibidez atelierako azantzak (forges de l'Adour, ehungailuak, Dassault), manifestazioetakoak, etab.)

Ikuskizun bizia

Musika eta dantza Euskal Herriko kultura biziaren lekuko azkarrak gomiatuak izanen dira kultura denboraldiaren kariatara, gure sailetako aurkezpen errepikakorrez gain, entzunikuseko kapsulen bitartez aitzin gustu bat ukaiteko eta pertsonak lurraldean ikusi eta bertan partehartzera sustatzeko denboraldien arabera.



Qaitasun zientifiko
eta teknikoa
garatu eta zabaldu

6



EUSKAL MUSEOAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA

Urteetan zehar eta emaitzen arabera progresiboki aberastu den liburutegiaren jabe da museoa sortu denetik, euskal arloan garrantzitsuenetakoa bilakatzeko.

XVI. eta XIX. mendea arteko obra bakan eta zahar kopuru handi batek osatzen du. Horri esker, 30.000 dokumentuko (euskal eta eskualdeko kulturari buruzko obrak, tokiko kazeta eta aldizkariak, liburu bakanak, eskuizkribuak, etab.) erreferentziako bilduma agertzen du. 1962an Jean Haritschelharek abian ezarri eskuratze politika boluntaristak eta itzal handiko bilduma emaitzek erreferentziako fondo bat eskuratzea ahalbidetu diote (Mano de la Sotaren liburutegia 1965ean, François Faure liburutegia 1969an, Abrisqueta liburutegia 1985ean). Tokiko gaiak, museoak aipatu gai desberdinak, etnografia, artea eta museologiari lotuak diren obrak eta aldizkariak erregulariki eskuratuz gaurkotua da hau guziaz.

Museoak, bere historia guzian eraman bilketa politika eta irekidura zientifikoaren lorerik ederrena zen liburutegia gaur erdi lotan dago. Baliatua ez eta balioan ezarria ez den aberastasuna da.

Funtsezko balioztatzea lortzeko berriz hedatu behar da nahitaez (irakurketa gela egokia plantatuz eta liburu biltegiak hurbila). Hedapen berri honetarako erabil daitezkeen lekuak, aztertu behar direnak, dira Qaztelu Berriaren etxabea, erakusketa gela ohian (gutieneko aterabidea), eta molde egokiagoan, Dagourette Etxeko eraikin multzo berdinean kokatua den Jacques Laffitte karrikako suhiltzaileen kaserna ohiaren eraikina (ik. luzapen kapitulua)



Museoko liburutegiko liburu baliosak.



Qaur egungo irakurketa gela Qaztelu Berrian.

BALIABIDE ZENTROA SORTU DAGOURETTE ETXEAN HEDATZEAN BISITARIENTZAKO

Euskal Museoko bisitariari haien bisita sakontzeko eta ibilbidea bukatu ondotik haien buruari egin ditzaketen galdera errepikakorrei erantzunak ekartzeko aukera eskaintzeko gisan, beharko zaie dokumentazioa esku utzi eta, honela, baliabide zentro bat sortu Dagouretten, objektu eta erakusketatik leku hurbilenean.

Ondokoez osatua izanen da bertan proposatu dokumentazioa:

- Euskal Herria, Baionaren historiari buruzko liburu eta dokumentu orokorrak.
- Museoa bereziki tratatu gaiak aipatzen dituzten liburu eta dokumentuak.

- Abian diren aldi baterako erakusketekin lotu liburu eta dokumentu bereziak, gaia, bisitaren ondotik (edo aitzin) sakontzen laguntzeko.

- Museoko zerbitzuek, publikoek biziki erregulariki eskatu gaiak hunkitzen dituzten gaii buruz osatu fitxa sintetikoak (forma zehaztekoa, « FAQ » motakoa): lauburu, makila, euskal oihalak, txokolatega, etab.

- Internet hargune bat (ikerketa terminal bat edo gehiago) baliabide desberdinetara heltzeko aukerarekin: linean den bildumen katalogoa eta liburutegiaren katalogora, Bilketa atarira heltzea ahalbidetzen duen internet gunera dokumentu zahar numerizatu anitz ikusteko, Euskal Kultur Erakundeko gunera...

LIBURUTEGIKO FUNTSA ETA IKERKETA GELA GAZTELU BERRIAN ATXIKIAK

Qaztelu Berriko erreserbetan atxikia izanen da liburutegiko fondoa. Museotik, oinez 5 minutura dagoen gunera horretan atxikia izanen da ikertzaileei berezikiago eskaini irakurketa gela.

25.000 obra, 1.000 aldizkari titulu eta 250 eskuizkribu inguru begiratzen ditu Euskal Museoko liburutegiak. Museoko langileen esku egonen da ere fondo hau erakusketak prestatzeko, bildumeri buruz egin beharreko ikerketarako...

INSTITUZIOETAKO PARTAIDEAK (BILKETA, EKE ETA EUSKAL ETNOPOLOA)

Bilketa ataria Euskal Museoko dokumentu eta ikonografia funtsen erakusleihoa da.

Bilketa ataria 2015ean ireki denetik, proiektuaren erdigunean da Euskal Museoa. 22 instituzioetako euskal bildumak, Euskal Museoa hauen artean, biltzen ditu atari honek. Gainera, museoko liburutegiko bildumen zati bat pixkanaka numerizatua da Bilketaren baitan eta, ondotik, atarian ezarria da (eskuizkriboak, aldizkari zaharrak...)

Bertan aurkeztuak dira ere gehienik Baionako Euskal Museotik etorri fondo ikonografikoak, erakusketa birtualek bereziki balioan ezarriak. Aurreikusia da museoko bildumetatik hartu eduki ikonografiko gehiago sartzea.

Azkenik, obraleku kolektibo desberdinetan parte hartzen du Euskal Museoa Bilketaren baitan (bereziki euskal autoritateen sorkuntzan).

Euskal kultur erakundeak eta euskal kulturako instituzio eta elkarte desberdinek eraman zientzia eta kultura labela da Euskal Etnopoloa. Partaide gisa, antolatutako hitzaldi eta kolokioak hartzen eta laguntzen ditu. Zientzia eta kultura proiektuan parte hartzen du ikerketa gaiak proposatuz eta haien antolaketan parte hartuz (ik. Museoa Urte proiektu garaikidea Nader Koochaki artistarekin adibidez).

EUSKAL MUSEOAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN SOSTENQUA

1956an sortu Euskal Museoaren Adiskideen Elkarteak sostengatzen du Euskal Museoa. Obrak eskuratzeko du gehien bat bere laguntza ekartzen, enkante publikoetan erreaktiboa izanez; aipa dezagun 2020an, les Devillantes Marie Qarayren obraren erosketa.

Suskripzio publikoen antolaketa arloan biziki balioitsuak dira ere Adiskideak, haien laguntzarekin ko-antolatu suskripzioari esker 25 000 euro bildu ahal izan dira, Henry Caro-Delvailleren *Paon blanc* obra erosteko, 2021ean. Bere kideentzako kultura irekidura arloan ekintza eta aktibitate autonomoak bere aldetik eramaten baditu ere Adiskideen Elkarteak, Museoko ostegunak kultura denboraldian parte hartzen du ere tokiko historiari lotu gaiak aipatuz. Euskal museoak, bere bilduma iraunkor eta aldi baterako erakusketei buruz proposa dezakeen eskaintzaz gain badator elkartearena.

Arteen eta kulturaren adiskideen arteko trukatzeko honi esker Adiskideak molde abantailatuan informatuak dira museoaren aktibitateez eta lehentasuna dute havez gozatzeko, baina museoari laguntza ekartzen diote zerbait gaizki pasatzerakoan eta lurraldeko gizarte zibilarekiko bitartekaritzan. Partaide pribilegiatu gisa, sartzeari urririk dute Adiskideek. Museoak aterpetzen ditu haien elkarteko aktibitateak, museoko bulego administratiboetatik hurbil, Qaztelu Berriaren baitan kokatu elkarte areto batean bezala, harreman erregularrak horrela erraztuz. ZKP berri honek eta harreman hertsia gook bilatzeak ekar lezake museoaren baitan aterpetuak izan daitezzen eta aktibitateei gehiago lotuak izan daitezzen.

Haien lehendakariak eta bulegoko kide batek ordezkatzeko dituzte Adiskideak Sindikatu kontseiluan, gai ordeneko dosieren arabera. Era berdinean, Baionako Euskal Museoko zuzendaria haien elkarteko berezko kide izanik haien bilkuretara gomitatua da.



Marie Qaray, *Les devillantes*.

EUSKAL MUSEOAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN SOSTENQUA

BULLETIN DU MUSÉE BASQUE

Museoa, Adiskideetako kideak eta lurraldeko intelektual jakitunen arteko harremanaren funtsezko organoa da. Kultura, hizkuntza eta lurraldeari lotu galdera guzietan buruzko ikerketa laguntzen du, bere izari guzietan. Museoko talde zientifikoen arteko jarraipen harremana laguntzen du bere orriak kontserbatzaileei eta bertan bat bestearen ondotik lan egiten duten langile zientifikoei irekiz: 1924az geroz, museoaren biziri ezinbestekoa zaion kronika da hau.

Euskal Museoko boletina urtean bi aldiz argitaratua da. Erritmo honek, aldi berean, museoaren aktualitate hurbila segitzea eta, ondare mailan, ipar Euskal Herrian ikerketarako baitezpadakoak diren gai guzietan buruzko begirada berezia ekartzea ahalbidetzen du.

Museoaren kultura bizia segitzen eta bertan parte hartzen duten jakintsu erakundeek, aktualitateak bakoitzak haien agendetan pasatzen dituzte eta

berdin egiten dugu haientzat, Euskal Museoaren gunean esteka dinamiko sistema baten bidez.

Animazio eta komunikazio bitartekariak dira instituzio eta kultura elkarte partaide batzuk.

Euskal museoaren sarea osatzen dute eta honekin harreman iraunkorra mantentzen dute: museoaren partaideak diren « jakitunen » zati bat osatzen dute. Horren bidez, ZKP honen idazketan hartzen dute parte.

*"Hemen sartzen dena bere etxean da
Lou qui entre aci, qu'es a case
Lou qui s'heta te dehens , aci qu'eya case"*

(Euskal Museoaren goiburua)



Bulletin du Musée Basque

Publikoiei zerbitzua
hobeki aterpetu



ABEGIA ETA EROSOTASUNA

Beharrezkoa da harrera bikaina zaintzea, (inkestetan eta internet iritzietan ekarria), gizari lehentasuna eman numerikoan bermatuz etorrera aitzinetik errazteko (Covid garaian plantan ezarri plataforma linean atxiki).

Hortarako langileak identifikatuak dira geletan (bitartekariak edo zaintzarako langileak) bisitariari laguntza ekartzeko prest.

Norabide seinalea argia museoaren barnean eta kanpoan jartzeko indarra segitu behar da.

AURREIKUSI BEHARREKO HORNIKUNTZAK (HEDAPENAN EDO DAGOURETTEN, PROGRAMAZIOAREN ARABERA).

• Publiko zabalari eskaini lasaitasun/atseden esparrua (50m²). Leku goxo pasagunetik kanpo, aire-korronterik gabe. Ekipamendu egokituak barne hartuko ditu:

- Sokoa/Lartigue altzariak (moldagarriak),
- Mahai apalak, besaulkiak, pufa, kadirak...
- « jakinmineko kabinete » motako apainketa (arkitekturan sartu erakusleiko gibelean jarri erreserbetako objektuak).
- Qirotzeko argiteria.
- Ur/tokiko edari banagailua.
- « intimitateko » besaulkia bularra ematen

duten emazteentzat.

- harguneak telefonoa kargatzeko.
- tauleta numerikoa iritzia, salaketak, asebetetze maila biltzeko.

Argialdean, atsedeen aulkiak ezarriko ditugu (zuzulu garaikidea, Sokoa edo Alki kanapea).

Hurbil, komunak izanen dira, baizik eta estandarretik goratasun apalera pasatzen den garbiontzia (haurrak, MUP), niniak aldatzeko xokoa.

• Hitzaldi esparrua (100m²), horrela hornitua:

- kadirak publikoentzat
- mahai argitua, kadirak eta besaulkiak hizlariarentzat
- tresna teknikoak : erretroproiektorea, pantaila, wi-fi.

Kontzertuentzako erabilgarria izanen da.

Qibelean, gauzak biltzeko gela (20m²):

- kontrol gela,
- baso garbigailua, hozkailua
- ur hargunea

• Denda (40m²):

Esparru ongi mugatua izanen da, beharba sartzeko kutxaren bizkarrean.

Bezereko maila berekoa eta MUP-ei egokitu goratasuna izanen da.

BITARTEKARITZARAKO ESPARRUA

Hainbat beharrei erantzuten die publikoen zerbitzuari eskaini esparruak:

- **iraunkorrak:** 4 bulego bitartekaritza eta publikoen zerbitzuko arduraduna eta kultura bitartekari entzatzat, bilkura mahai bat, apalak bildumei buruzko dokumentazioa eta eskola ibilbideetarako, formatu desberdinetako apalak formatu handi eta ertaineko material pedagogirako, zerbitzuko artxibo administratiboetarako apalak.

- **erregularrak:** lehen haurtzaroko esparru bat, gazte publiko esparru bat, sorkuntza eta eskoletako tailerrak.

70m²ko azalerakoa, «altzari adimentsu» motako 30 pertsonentzako mahaiak eta kadirak eduki behar ditu, elkarren ondoan ezartzekoak, esekitokiak, ur hargune bat eta goratasun primario eta haurrentzako komunak (4 bederen).

Lurzoru eroso, beroa eta garbierraza izanen da. Apainketa haurren lanez burutua izanen da (denboraren gezi ohia) eta gure bildumak ematen dituzten zedarrak espazio tenporalak agertuko ditu. Bideo proiektzioa eta wifi-erako hornitua izanen da esparrua.

1-4 urtekoentzatzat, «tipi» edo harpe motako esparru jostagarria antolatua izanen da. Hunkitzeko edo usaintzeko elementu pedagogikoak izanen dira ere... bisitetako gaiei lotuak.

Helduen tailerrena eta eskola denboraz kanpoko tailerriena da ere esparru hau. 2 esparru ezberdinetan bereizgarria izan behar da ere, trenkada muigarri baten bidez, animazio bikoitza izanen delarik.

- **noiztenkakoa:** 50 pertsona inguru biltzeko esparru bat.

- **betebeharrak:** Langileek azantzetatik urrunduko behar dute (beste langileetatik eta tailerretan ibiltzen den publikoetatik). Esparruen argi naturalezko argiteria eta aireztatzea.



Publikoen harrera Euskal Museoaan.

ESKOLAKO PUBLIKOIA

Eskoletako haurrei zuzendu ekintza segitu behar da, zerbitzu horri eskaini solaskide batekin.

Denek museora sartzeko ahal berdina ukan dezaten, gogoeta bat eramanen dugu. Qaur egun, Baionatik urrun diren ikastetxeak gutiago hurbiltzen dira museora. Donapaleu eta Mauleko adarrak plantan ezarriz, neurri batean zailtasun hau konpon genezake. Beste aterabide batzuk aztertu beharko ditugu.

Eskaintza pedagogikoaren edukiari dagokionez, irakasle baten trebetasuna beharrezkoa da eskolako programekin lotuak diren museoko bildumen ustiaketa optimizatzeko. Astean zenbait orenez, kanpoko zerbitzuan den irakasle bat hor egotea beharrezkoa daiteke.

LEHENTASUNEZ SEGITU BEHARREKO PROIEKTUAK:

- Hezkunde Nazionalekiko lankidetzak, besteak beste partaidetza anitzeko proiektuetarako, luzatua izanen da. Museok arte eta kultura heziketan duen engaiamendua aldarrikatzea eta honen irakurgarritasuna emendatzea ahalbidetzen du.

- Museoko praktikaz urrunduak diren ikasleekiko proiektuak lehenetasunetan gelditzen dira: REP klaseak, etorri berriko klaseak eta hizkuntza arrotzeko ikasleak.
- Ekintza pedagogikoen balio jartze politikari jarraipen bat emanen zaio Europako Museoen Qauen karietara « Klasea, obra » ekimenean parte hartuz.
- Irakasleak haien bisitan autonomoagoak bilakarazteko formakuntzak garatuak izanen dira.



Kultura jabetzea, historiografia eta historia: erlisioneak eta erritu zaharrak xutarrien gelan.

Kontzertazio, iteratibo programa jarraitua izanen da Hezkunde Nazionala eta eskolaz kanpoko partaideekin, luzapenaren programazio fase osoaren denboran (2024) zoinetan hezkuntza eta publikoen zerbitzua aterpetua izanen litzatekeen baldintza biziki hobeetan eta liburutegia eta dokumentazio zentrotik oso hurbil, beti bilduma iraunkor eta aldi baterako ondoan, etxabea.

ZKP hau idazteko egin bezala, mintegien bidez burutuko da kontzertazio hau. Qai hauek izanen ditu aipagai:

- AEC- eskolako programak, eskolaz kanpokoak eta kultura jabetzearen artikulazioa,
- Tailerrak eta aretoak praktikei egokitzea,
- Inklusioa.

MUSEOKO BESTE PUBLIKOAK

NOR DIRA MUSEOKO BISITARIAK?

Turismoa itsasbazterrean eta Euskal Museoa garatuz sasoiak emendatzen da: apirilaren hasten dira engoetik udako hilabeteak eta « sasoi betea urrian bukatzen da.

Bisitarien tipologia aldatzen da sasoiaren arabera.

Bisitari indibidual ugari uztaile eta agorrilean eta, ondotik, arrotz eta frantses taldeak udaberri eta udazkenean, bereziki hirugarren adineko pertsonak (seniorak). Erakunde parapublikoekin etortzen dira talde hauek, turismo bulegoekin eta tour operadoreekin. Atzeritik, gehien bat: AEB, Kanada, Ipar Europa, Luxenburgua, Alemania, Herbehereak.

Urritik aitzina eta maiatza arte, eskolen aldi da.

Bisitarien kopurua handia da Eguberri arte. Kopuru apalena urtarilean, otsailean eta martxoan gertatzen da.

ZEIN DA MUSEOAREN HARRERA BISITARIEN PARTETIK?

Qehiengo zabal batean bisitariak asebateak dira, usu inpresio ona uzten die ustekabean atzematen duten museoaren eta erakusketa esparruen izariak eta hauen kalitateak (iturri nagusia : bildumen eta erakusketen ohar liburua).

Ohar baikor ugari museoaren arkitekturaz (ageriko habeak, Argialde...). Zinezko « Etxe » bat bezala hartua da museoa; bildumen ibilbidea anitza eta bihurtunetsua delako, dohaika, eta gelen bolumena arrunt desberdina gela batetik bestera. Aspektu baikor hau atxiki behar dugu: aldi berean kronologikoa (etxabetik 2.era), gaikakoa (gelak) eta, azkenik, helikoidala argialdearen inguruan. Bisitaria itzulikatzen eta igaiten da bi eskaileretako batetik berriz jaisten (garaikide argialde edo XVIII. eskailera). Honela ibilbidea aldi berean anitza eta sinplea da.


Hurbileko publikoak aldi baterako erakusketak ikusteko mugitzen dira gehiago eta besteak beste berezikiago hunkitzen dituzten gaietarako. Eskualdeko biztanle gehiegik badakite museoa badagoela baina ez dute erregulariki bisitatzen.

Honela, hemendik aitzina, bilduma iraunkor eta aldi baterako erakusketen arteko artikulazioak erregularikiago pausatua izanen dira (erakusketa ibilbideak bilduma iraunkorretan, erakusketa txostenak bildumetan, aldi baterakoa eta iraunkorraren aldeko harremanak sortzea ahalbidetzen duten aldi baterako erakusketen gaien hautua.)


Eskaintza berezi baten sortzea hurbileko publikoentzat, familientzat, gazteentzat, gazte aktiboentzat, da beraz proiektu berrian atxiki ardatzetako bat:

- Ostegun arratsak urriker museoan, hurbileko publikoen (aktiboak eta ikasleak) pasatzea errazteko kurtso eta lanaren ondotik,
- Hitzaldiak urriker ostegun arrastirietan (ikasleak haien etxera ostiral gauetan itzuli aitzin),
- Dokumentu berezien eskaintza familia artean eta haurrekin egin bisitetarako,
- Tailerrak eta gaikako tailerrak haur, nerabe eta helduentzat.

Ondotik erregulariki kontsultatzea eta inkestak egitea izanen da xedea: politika proaktiboa erregulariki zehazteko eta galdera erregulariki pausatzeke: zoin museoa zoin publikoetarako?



Museoaren plano-gidaliburua, 1930 inguru (Izarra likoreak eta clos des Ducs armagnac... mezenasgoari esker!)



Museoaren plano-gidaliburua, 1960 inguru.

BITARTEKARITZA, JABETZEA ETA INKLUSIOA

EZARRI BEHARREKO EKINTZAK:

- Lekueta berezko jabetzea autonomia euskarrien biderkatzearen bidez: plano hornitua, irudiaren (« egitea ») eta soinuaren (« erratea », « kantatzea ») garapena bildumak irudikatzen, lurraldeko euskara eta gaskoiera hizkuntzak aditzera emateko, ibilbideko zenbait gunetan, bisita aplikazioa optimizatzeko...
- Bitartekarien lana ekintza ziblatuetara norabidetu (adib. giza bitartekaritza libreak garatzeko eta egituratzeko langile identifikatuekin: hitzorduak, bat-batekoak...) eta kanpoko gida profesionalen lankidetzaren/inklusioren faboratu bisita orokor klasikorako. Publikoei proposatu atelerien « lerro editoriala » zehaztu: lurralde, jendarte, ondare museo dela erakutsi.

- Arte Ederretako museotik bereiztu, eskaintza desberdina proposatuz: jarduera artistiko bat bakarrik baino elkarbizitza baten lekuko izateko garapen iraunkor, eskulangintza, dantza, arkitektura eta diseinu, etab... tailerrak; gure bildumak aipatuz beti, bistan dena.
- Hitza lurraldeko eragileei eman, ikertzaile eta unibertsarioez gain, lurraldeko aktualitate ekonomiko eta sozialari oihartzun egiteko (CAUE, EPV, MIQ).
- Familian bisita eskaintza mamitu.
- Ekintza eta urrikotasun gehiago ahalmen fisiko edo sozial urrikoengatik urrunduak diren publiko berezientzat (eskaintza egokiak eta anitzak). Jadanik hainbat eskaintza eskuragarri dira, mamitu eta aniztu eta, gehien bat, ko-eraike behar ditugu.

« Kepa tiñoraria » haurtzaroko bisita-tailerra.



Komunitate desberdinetatik datozen komunitateak, ahalmen urriko pertsonak eta elkarteak lan taldearekin arituko dira programazio faserako, hornidura, ordutegi eta, azkenik, bitartekaritza proposamen arloko behar espezifikoak hobeki aurreikusteko.

PASSE MURAILLE(S) : BITARTEKARITZA NUMERIKOAK, MURGILKORRAK & BERRITZAILEAK

Biztanle eta bisitariari zuzendu ondare bitartekaritzarako tresna eta euskarri berriak plantan ezartzea da proiektuaren xedea. Baionako defentsa ondare arkitekturaren eta honen bilakaeraren ikuspegi berri, dokumentatu eta sentibera publikoei bereziki eskaintzea da ere.

Arte eta historia hiriko labelaren erronkei eta Baionako Euskal Museoa, Frantziako Museo baten eskakizunei erantzuten die proiektuak. Kultura eta turismo helburuak bilatzen ditu, erakargarritasuna, berrikuntza eta zorroztasun zientifikoa lotuz. Gehien bat bisualden izariaz eta haren usaiak kanpoko izaeraz, biztanleei bezainbat, hurbileko turistei eta nazio mailako eta nazioarteko bisitariari zuzentzen zaie. Horretarako, tresna pedagogiko, teknologiko, artistiko eta didaktikoak sortuak izanen dira publiko zabalarentzat. Hiriko hiri eta arkitektura garapena berrosatua izanen da 3D maketa numerikoen bitartez.

VR errealitate birtualeko kaskoak, AR errealitate emendatuko aplikazioak, terminal holografikoa eta ukipen pantaila interaktiboa bezalako azken belaunaldiko teknologiak erabiliak izanen dira nahi dugun garaian murgiltze osoa ahalbidetzeko.

Berrikuntza berri hauek publikoaren gainean entseatuak izanen dira Euskal Museoan burutu hitzaldi, erakusketen bidez edo hiriaren bisitetan parte hartzen duten bisitari batzuekin, baina baita « partaide asoziatu » lizoetan.

Kultura hornikuntzen lehen lerroan kokatzen da Baionako Euskal Museoa, Euskal Herriaren eta Baionaren historiaren ikuspegi sintetikoa ematen duen « Frantziako Museo » bakarra da. Euskal eta gaskoin gizartearen bateratzea eta, gehien bat, Errobi eta Aturri ibaien bateragunea eta itsasoari begirako irekidura aipatzen du Baionaren historiari eskaini sailak. Haren defentsa arkitektura zati handi batean azaltzen duen hiriaren erronka estrategikoa, maketa eta margolanen bidez aipatua da museoan. Horrela, teknologia numerikoak, Baionako ikuspegi zaharrak molde erabilgarrian kokatzeko eta azaltzeko balio luke.



Bisitariak Euska! Herri koloretan.
Autokromoak, 1907-1935 erakusketan

Artikulu eta eduki pedagogikoei osotuko lukete jadanik aurkeztuak diren obren aurkikuntza eta publikoak bultzatuko lituzke, museoa bisitatu ondotik, hiri ezagutu eta bisitatuzera.

BAIONAKO DEFENTSA ONDAREAREN INGURUAN



Tresna berri hauek bere bilduma irraunkorreko ibilbidean sarraraziko ditu Euskal Museoak, hiru lekutan ikusgai eman ondare objektuen aurkezpena osatzeko eta testuinguru osagaiak agertzeko:

- Ibilbide hastapenean (3. gela): arkeologia saila osatzeko hiriko erromatar harresiaren ulertzeko.
- Ibilbidearen erdian (nabigazioaren gela): maketaren gela eta Baionako ikuspegi numerikoa osatzeko.
 - Terminal holografiko bat entseatua izanen da Euskal Museoan. Hiriaren berrosaketa numerikoaren irudia « lebitazioan » 3 dimentsiotan erakutsiko du.
 - Euskal Museoaren bisitariak edo gidek ere ukipen pantaila interaktiboa erabiltzen ahalko dute « denboran zehar bidaiatzeko ».

Izaera berritzaile azkarra du proiektu honek eta publikoarekin egin entseguak frogagarriak baldin badira Hiriak eta Euskal Museoak betirako inplementa ditzaketen tresna numerikoak hornituko ditu.

Euskarri numeriko hauek balioan ezarriak izan daitezke ere hiriko « hirigintza » sailarekin, Baionako etorkizuneko hiri garapenarekin, edo ikerketa euskarri gisa eraikin eta auzotegi berrietarako.

Azkenik, ohartzekoa da maketa numeriko hauek arlo pedagogikoan ere baliatzen ahalko litzatekeela (besteak beste tokiko historiaren irakaskuntzarako eta haren konexioa nazio mailako historiarekin) lan hau eskolako haurren esku utzi izan eta Arte eta historia hiriak eta Euskal Museoak antolatutako jardueren pedagogikoen kariatara.

PUBLIKOEN ZERBITZUA PANDEMIA AITZIN

PUBLIKO MOTAK

Bisitari indibidualak:

- Museoa euskal kulturarako sarbidetzat duten bisitariak: eskualdea bisitatzen duten eta urrunagotik datozen turistak, edo eskualdean bizitzera datozen pertsonak.
- Euskal kultura jadanik ezagutzen eta haien ezagutzak bermatu nahi duten bisitariak. Gehien bat tokiko bisitariak dira, haien lurraldearen kulturaz interesaturik, eta batzuetan ere museoko gai bati, objektu bati edo margolari bati interesatuko zaizkien beste eskualde batzuetatik datozen pertsonak. Pertsona hauek gehienetan interes gehiago diote aldi baterako erakusketei, usu ezagutzen baitituzte museoko bilduma iraunkorrak.

Adin guzietako bisitariak erakartzen ditu museoak, gehiengoak kultura lekuei usatua delarik.

Taldeak:

- 156 talde 2019an,
- aldi gehienetan, adineko pertsona taldeak bidaia antolatzaileekin,
- publiko bereziak (Ephad, ahalmen urriko pertsonak hartzen dituzten instituzioak, ikusmen urriko pertsonak.
- %71 Lapurditik dator eta %20 euskalduna.

Qazte publikoa eskolaz kanpoko denboran :

1408 eskolaz kanpoko denboran: niniak etxeke haurtzainekin, gazteak aisialdi zentroekin, gazteak bakarka egun berezien kariatara «Rouge Musée» motako familia arteko jokoeekin Baionako Bestetan edo Olentzeroren kariatara. Eskuarki, aisialdi egitura guti.

2019an, 62389 bisitari izan dira orotara.

BISITA MODALITATEAK

Banakako publikoa:

- Bisita libreak: bisita ibilbidean gaindikako bildumak aurkezteko informazio testuak hirueledunak dira: frantsesa, euskara, gaztelera. Bisita gidaliburu inprimatuak maileguan proposatuak dira museoaren hargunean ingelesera, alemaniera eta japoniera hitzuntzat.
- Bisita komentatuak: bilduma iraunkorrak: igande guzietan 15:00etan, eskolako oporren garaian asteartetik larunbatera 14:00etan, 3€ ordainduz.
- Bisita bereziak: aldi baterako erakusketak, gaikako bisitak, bisitak LSF-en (ikus agenda)

Taldeak:

Bisita libreak, bisita gidatuak, bisita bereziak.

ESKOLEI ETA GAZTEEI ZUZENDU BITARTEKARITZA

4 000 eta 5 000 arteko eskoletako haurrak errezebitzen ditu urte guzietan museoak. Urte batzuetan, aldi baterako erakusketa baten erakargarritasun berezi batengatik, besteak beste, 6 000 edo 7 000 ikaslerara igan da kopuru hau. Duela gutxi gertatu osasun krisiak eragin azkarra ukan du eskoletako bisitei dagokienez: 1000 ikasle baino gutiago 2020-2021 ikasturterako.

Nahitaezkoa da erreserbatzea bisita baldintza onenetan egiteko. Ezinbestekoa da museoko gela gehien izariarengatik ezin baitira talde bat baino gehiago aldi berean sartu. Bisitak, horretarako ari den solaskide bakar batengan erreserbatzen da, gazte publikoaz arduratzen den bitartekaria. « Lehenik etorritakoak lehentasuna du » araua aplikatzen da.

Azken hamar urteetan, aski egonkorra gelditzen da eskolako publikoaren perfilea: % 55 inguru lehen mailakoak; %25 kolegioetakoak eta %18 lizeoetakoak. Eskolaz kanpoko denborako frekuentziaren zatia emendatuz doa erregularri. 4 ikasleetatik 3, 20 km-tara eskolatuak dira; departamendutik kanpoko klaseak %4 eta 10 artekoak dira. %16 ingurukoa da euskaldunen proportzioa.

Klase gehienek haien bisita museoko kultura bitartekari batek lagundurik egiten dute. Museoko bildumak klasean ikusi nozioak argitzeko/osotzeko erabiltzen dituzte irakasleek.

Adibidez, lehen mailakoentzat « Bizia lehen », edo « Euskal mitologia » ibilbideak dira gehienik eskatuak. Hori atzematen dugu ere aldi baterako erakusketetarako. Honen lekuko, kolegioen presentzia azkarra (4.maila) « Tromelin, esklabo ahantzien uhartera » erakusketetarako, edo kolegioetako ikasleen portzentaia urte hartako ikasleen kopuru orokorraren % 37ra iganarazi duen « Pirinioetako bakea » erakusketetarako.

Pandemiaren garaian, bi « museo murrutatik kanpo » esperientzia burutuak izan dira, bai eta antolamendu berezia kolegioen harrera eskolaz kanpoko denboran egiteko, museorako sartzea osasun pass-arekin egiten zen denboran.



Baionako Besten kari, ortzegunean familien eguna :
Museoa gorria animazioa.

PUBLIKOEN ZERBITZUA PANDEMIA AITZIN

GAZTE PUBLIKOA ESKOLAZ KANPOKO DENBORAN

Taldeka errezebitua izan den gazte publikoaren %15 da.

Horrela osatua da:


- Lehen haurtzarora, hilabetean 3 bisita-tailerrekin, besteak beste etxeko haurtzaintzat eta gurasoentzat bakarka.
- Aisialdi zentroak, hitzordua hartuz, eskolako oporren garaian
- « Nire urtebetetzea museoan » eskaintza ez da oraindik biziki galdegina (6 urtebetetze/urtean).
- Joko pista ibilbideak familian. Plantan ezarriak museoaren bisita «desakralizatze» eta aurkikuntza jostagarri aldia familian

proposatzeko, arrakasta handia ukan dute, besteak beste Baionako Besten garaian proposatutakoak. Izena ematera behartzen dugu hemendik aitzina.

Familia arteko kultura ihesaldia proposatzea funtsezkoa izaten da gazte publikoari eskaini harrera politikan, haurra usatzen baitu museoari gazte-gaztea denetik eta giro jostagarrian. Familiei eskaini irekitze honen osotzeko, urtean erregulariki proposatzen ditugu bisita-tailerrak familian.


Azpimarratzekoa: eskolak 2022ko bukaeratik besterik ez dira museora itzuli; 2023 izanen da eskoletako ikasleen kopuruaren azken urteetako urte adierazgarriena. 20 000-koa zen pandemia aitzin.

BISITARIEN ESTATISTIKAK



Urteko sarrera kopurua

45 423 bisitarien banaketa 2022an, prezio ezberdinen arabera





*Komunikazioa eta
partaidetzak :*

ospe eta irakurgarritasun
erronka



MUSEOA : KOMUNIKAZIO ERAGILE NAGUSIA

Errobi bazterrean kokatu etxe ohargarria, museoa kultura seinalea da hirian.

Lehen erakargarritasuna museoan berean edo honen aitzinean gauzatzen da. Ezinbestekotzat gertatzen da begirada lotzeko, publikoa barnera ekartzeko, bisiten eta kultura eskaintzaren berri emateko objektu eta tresnak plantan ezartzea.

Ezinbestekoa da bere komunikazioko lehen tresna den aitzinaldea garbitzea (mendebaldetik datozen hogoi urteko euriek zikindurik) eta kaian eta hirian duen nortasun ohargarriaren heineko gaueko argiteria eskaintzea.

Kontsumo apaleko seinale bat plantan ezarria izan daiteke balioan ezartze horretarako, artista bati manatze publiko bat egin geniezaioke museoa hedatzeko garaian.



Aldi baterako erakusketaren irrogarki toula ezartzea.

PRENTSA & AHOLKATZAILEAK

Bilaka daitezkeen aholkatzaile bezala hartzen dituen publiko desberdinei zuzentzen die bere promozioa museoak. Argibide guziak euskarara itzuliak dira.

PRENTSA

Prentsarekin komunikatzen dugu:

- tokikoa, eskualdekoa, nazio mailakoa
- Hegoaldean (Hegoaldeko museoak edo euskal irratia).

Museoaren aktualitateaz eta haren kultura eskaintzari buruzko frantsesera-euskara agiriak bai eta aldi baterako erakusketen prentsa txostenak erregularoki helarazten zaizkie prentsari eta sareari.

Programazioaren denboraldian, prentsa erregularoki komitatua da prentsaurrekoetan.

Prentsak dakartzan ondorioen behatokia antolatua da dokumentazio eta komunikazio zerbitzuen artean, prentsa taula eta azterketa bat eguneratuz.

AHOLKATZAILEAK

- *Sites & Musées*-en baitan partaide diren museoak eta museo gune gisakoak eta museoarekin harremanetan diren Euskal Herriko museo eta gune turistiko nagusiak (Abbadia, Arnaga, Chemins Bideak, Ospitalepea, etab.).
- Mundu osoko Euskal etxeak bitartekari bikaina dira sare sozialen bitartez. Museora buruz bideratzen dituzte atzerrian emigratu euskal publikoak; besteak beste Hego Ameriketakoak eta Estatu Batuetakoak, Euskal Herrira bisita egitera itzultzen direlarik.

Euskal Kultur Erakundea, euskal kulturaren inguruko ekintza ugari koordinatzen dituena, lehen mailako partaidetza da, besteak beste Euskal etnopoloa labelaren inguruko hitzaldiak antolatuz.

Paue eta Aturri Herrialdeko Unibertsitateak, bereziki Baionako poloa eta besteak beste IKER laborategia, Bordele 3 Unibertsitatea eta Passages laborategia, Euskal Herriko Arte Eskola, gure ikerketa partaideak dira ERE-k koordinatu Euskal Herriko Etnopoloaren baitan eta gure ikerketa programa bateratuak haien sare propioetan hedatzen dituzte.

PRENTSA & AHOLKATZAILEAK

TURISMOKO PROFESIONALAK

- Bayonne Tourisme eta eskualdeko turismo bulegoak (Landes hegoaldekoak barne).
- AaDT: Pirinio Atlantikoak eta Euskal Hiriguneko Turismo Erakargarritasun eta Qarapen Agentzia.
- Haien bezeroentzat bisitak antolatzen dituzten autobus enpresak.

PUBLIZITATE-IRAGARKIAK

Turismo gidaliburuetan: Bistarietik barne inkesta bat burutua izan da 2017an eta agertzen du Guide Michelin aholkatzaile hoberena dela. Honela, museoak ez ditu pagatuzko publizitate-iragarkiak eman bertze gidaliburuetan. Hala ere, salbuespen bat aurreikusia daiteke, Akitaniako ingeles bezeroei zuzentzen zaien Basque country-ri dagokionez.

Turismo bulegoak: Museoeko dokumentazioa hedatzea eta tarte bat heien gidaliburuetan, izan paperezkoak edo birtualak, eskaintzea proposatzen dute. Euskal Herriko turismo bulego handiarekin, euskal itsasbaterreko eta barnealde ertainekoekin, Landes hegoaldekoekin eta baita Bearnoko talde batekin lan egiten du museoak.

Baiona Hiriko aldizkariak:

Qure egitarau kulturala erregulariki eta urrik Baiona Hiriko aldizkari desberdinetan agertzen da, hala nola *Rencontres et Rendez-vous* kultur aldizkarian, baita ere web gunean.

Tokiko prentsa: publizitate-guneak edo publi-erreportaietakoak erosten ditu museoak tokiko prentsan, Sud-Ouest egunkariko udako gehigarrietan eta Hedabideak euskal prentsaren sarean.

Komunikazio desberdin bat plantan ezarri, komunikazio plan berri bat galdekatur eta plantan ezarri eta erregulariki indar / eraginkortasun adekuazioaren ebaluaketa bat eginez, datozen bost urteetarako garapen ardatz bat ezar genezake. Biziki aholkatzaileak agertzen diren turismo profesionalen aldetik, Euskal Museoa lurraldeko hornikuntza nagusitzat hartua da.

Hala ere, Baionako Turismo Bulegoarekin (VisitBayonne) eta Euskal Herriko Turismo Bulego handiarekin lan egiteko molde berri bat asmatzekoa da oraindik, museo bere erakargarritasun bakarraren ikuspegitik har ez dezaten baina bai beste zereginak bete behar dituen eta kontutan hartu behar den museo bat bezala: kontserbazioa, ikerketa, formakuntza eta zerbitzuak publiko mota guzietan, eskoletako eta hurbileko publikoei barne. Orekak bilatu behar dira beraz zeregin guzi hauek betetzen ahalbidetzeko.

KULTUR EKITALDIAK



2022ko Museoen europar gauaren afitxa

Nazio edo tokiko mailako gertakizun batzuek museoa argitara atera dezakete.

NAZIO ETA EUROPAR EKITALDIAK

Kultura Ministerioak sustatu Museoen europar gaua eta Ondarearen europar egunak.

Culture for Causes Network elkarteak antolatu Museum Week. Apirilean twitter-en eta beste sare sozialetan iragaiten da.

Week-end Musées Télérama, martxoan, udaberriaren kariatara, museoa Télérama aldizkariari lotzen zaio bere publikoak Télérama Sorties-en eskuragarriak diren urrikako sartzeak lor ditzan.

TOKIKO EKITALDIAK

Korrika zazpi probintziak zeharkatzen dituen euskararen aldeko lasterkaldiak parada eskaini dio museoari sare sozialetan eta prentsan agertzeko, hitzaldi bat antolatuz edo lasterkaldian berean parte hartuz.

OHIDURAKO KOMUNIKAZIO TRESNAK

AFITXATZEA

Museoaren aitzinaldeko bi panel handiak progresiboki ordezkatzeko ditu monumentu historikoa gehiago errespetatzeko duen sistema batek. Anartean, museoaren panel generiko bat plantatua da aitzinaldearen erdian (1,5 m x 6,3 m). Bigarren bat, handiagoa (2,5 m x 6,5m) aitzinaldeko eskuinerago plantatua den dibonda da. Museoaren egitarau kulturala eta abiatua den aldi baterako erakusketa handia iragartzen ditu.

Ate aitzinean, urririk diren igandetan, Museoen europar gaua, Ondarearen europar egunak egunetan emana den « Urririk » panelak leku horretatik hurbil pasatzen den publikoa sarrarazten du.

Eguneko bisiten berri ematen du ere.

Abribus gaineko afitxatzea: urte guzietan, aste bat eta biren arteko lau afitxatze kanpaina inguru urririk eskainiak zaizkio museoari Baiona Hiriko autobus aterpeetan.


Afitxa batzuk honela argitaratuak dira udako eta neguko erakusketa handien kariatara. Hemendik aitzina, museoak bere afitxatze denboraren erdia kasik eskaintzen dio bere bilduma iraunkorren sustapenari, hurbileko publikoak museoara itzularazteko estrategia landuz.

LIBURUXKA ETA AGENDA

Museoko egitarau kulturala liburuxka, plegaorriak eta flyerak eskuragarriak dira museoaren hargunean eta internet gunean.

Liburuxka progresiboki urtean bi aldiz argitaratua da, publikoak aitzinetik abisatzeko eta Baionako Euskal Museoaren kultura eskaintzari ikusgarritasuna emateko, hiriko beste instituzioek egin bezala, usu zaila baita tokiko publikoa hurbilaraztea... burutu ekintzen irakurgarritasun hobe gunean edo murrutatik kanpo.

Hilabete hastapen guzietan sare guziari helarazten zaio euskarara ere itzulia eta museoko kultura ekartzen duen eskaintza agenda. Denboraldiko liburuxkan ere agertzen da eta museoaren gunean ikus daiteke ere.



Baionako Euskal Museoaren sei hilabeteko programa

MUSEOAREN KARTA GRAFIKOA ETA LOGOA

Museoaren karta grafikoa berriz egina izanen da hedatzen proiektuaren karietara.

Haren kultura partaidetzekin, museoako logoa nahitaez agerrarazi behar da izenpetu partaidetza orotan.

INTERNET GUNEA ETA INFORMAZIO GUTUNA

2018koa da gunearen azken bertsioa, eta «3 klikek» printzipioaren arabera pentsatua, ergonomia eta jendarte ona uztartzeko. Informazio guziak agertzen ditu guneak, eta horri esker izena ematen ahal da informazio gutuna errezebitzeko.

Hilabete hastapen-hastapenean igorria, gertakari garrantzitsuen berri ematen du eta linean dagoen internet guneako agendara bidaltzen.



Baionako karriketan museoaren aurkezten duen afitxa.

SARE SOZIALAK

Facebook, Instagram eta Twitter (orai X) hor daude ere museoaren internet gunean dauden informazioak mamitzeko: agenda, erakusketak, heldu eta eskolako bisitak, hitzaldiak, tailerrak, argitalpenak, eskuratzeak.

Lehen konfinamendutik, komunikazio hau sendotu du museoak erakusketa geletako eta erreserbetako objektuak aurkezteko – hetsirik egon denboran- jokoan bidez batzuetan. Museoa eta bertako obretan zehar ibilbide birtualak argitara ekartzeko parada da ere. 2020an, Museoen europar gaua bezalako gertakizunak molde birtualean iragan dira eta parte hartu duten museoek mintzaleku berri bat eskaini diete.

Hego-mendebaldeko museoaren sarearekin azken urte hauetan Euskal Museoak bizi duen esperientzia da, Twitter-en hedatu (eta Facebook eta Instagram-en berriz hartu) *#MuseumWeek* bitartez, aste batez eta museoak, kultura elkartean eta instituzioak mugiarazten dituen mundu mailako gertakizuna.

Egunero argitaratu tweet baten bitartez komunikatzen duten erakunde partaideen bisita birtualean bermatzen da printzipioa, 7 hitz-diese edo gai ongi zehaztu sail baten bitartez. 2018an,

Euskal Museoak eta *#MuséesSO* haren sareak game-thread bat asmatu dute, erran nahi baita museo batetik bestera egin ibilbide birtuala. Ekimen ohargarri eta *#MuseumWeek* berako antolatzaileek aipatua.

INSTAGRAM

Argazkiari eskaini sare sozialarekin, bere bildumen erakusleho ederra aurkezten du museoak, bere erakusketa iraunkorren promozio ederra eginez aldi berean. Obren edo xehetasunen argazki ederrak aitzinera ekarriak dira kolore aldien moldean (obra eta objektu urdinak, eta ondotik gorri eta berdeak) edo familia edo gai batzuen arabera aurkeztuak. Eta aktualitate hariaren estetika ez inarrosteko, momentuko aktualitatearekin harremanetan diren obra eta gaiak aurkezten dituzte storieak. Erregulariki hedatuak dira, objektuak edo obrak aurkezten dituzten storie jostagarriak.

Museoko objektuei eskaini eta lurraldeko ondare immateriala kontatzen duten storie pedagogikoak, gazte publikori buruz zuzenduak direnak, asteazken guzietz argitaratzen ditu bitartekaritzaren zerbitzuak.

LINKEDIN

Sarearen orriak leku ederra ematen dio museoaren aktualitateari: erakusketak, konfinamenduen ondoko irekitzeak, Facebook orri batek zerrendatzen ditu egitura partaide guziak eta haien informazio baliagarriak.

- Twitter : 824 harpidedun
- Instagram : 1433 harpidedun
- Facebook : 2900 harpidedun

Museoaren presentzia sareetan azkartu du pandemiak; hala ere, denboraldiek eta bisita errealak berriz hastean, gure indarrak ez dira aski izan arlo horretako garapen beharren estaltzeko. Horrela, community-manager enpelgatzea aterabidea izan daiteke datozen urteetan taldearen eraginkortasuna hobeki koordinatzeko eta komunikazio indarrak sostenga ditzaketen erreakzio protokolo egokiak plantan ezartzeko.

#MUSÉSSO, HEGO-MENDEBALDEKO MUSEOETAKO KOMUNIKANTEEN SARE BIRTUALA

Oh c'est d'art, le site qui dépoussière les musées, komunikante talde pribatu baten inguruan Facebooken elkarretaraturik, #MuséesSO-n, hego-mendebaldeko beste museo handiekin kide du da museoa, - Arnaga, Musée de la Chalosse, Écomusée de Marquèze, Musée d'Aquitaine, Maison de Jeanne d'Albret, Maison Carrée de Nay, Musée d'Arudy, etab., gertakizunen #MuseumWeek, #November, Museoen Qaua, etab., azken denboretan udaberriko konfinamendua) inguruko komunikazio ardatzak mutualizatzeko gisan.

Urtean lan egun bat edo bi aurreikusiak dira guneeetako batean, gertakizunen, komunikazioen, saltokietako objektuen inguruan eztabaidatzeko eta ideia on guziak bateratzeko.



2023ko Museumweekaren ogiria

HARGUNEA ETA DENDA

HARRERA ETA DENDA ESPARRUAK

Denda Dagourette etxearen 1. gelan kokatu da, hargunea eta txarteldegiarekin koplaturik. Qaur egun Euskal Museoko sartzea eta ateratzea osatzen du, bildumen ibilbideak abiatzen diren lekuan bukatzen baitira.

Hiru esparru antolatzeko birmoldatua izan da:

- txarteldegia
- denda
- hargunea: gure zurginak altzariak sortu dituzten taldeentzat, kutxatila segurtatuak eta aterki ontziak erosiak izan dira; horrek laguntzen du bilketaren kalitatea eta hargunearen esparrua hobetzeko.

Atsedeen esparrua antolatua izan da Argialdean, Moutet, Alki eta Lartigue enpresen laguntzarekin, Haritik Harriara ehungintzari buruzko erakusketaren kariatara eta XVIII. mendeko eskaieraren azpian: haurren xokoa, bitxikeri kabinete ttipiak, besaulki goxoak aterpetzen ditu.

Progresiboki hobetuak izanen dira esparru hauek; hala nola barne baratze batek nabarmenduko du eraikuntzen arteko pasoaia. Bizi, harreman toki bat izanen da, erreferentzia gune bat auzoan.

Liburu-dendak, tokiko argitaletxeren (Le Festin, Rilika, Ekar, Pimientos, etab.) liburuak, gure erakusketen katalogoak, baina baita egile kontuan egin liburuak edo museoan erakusketa egin duten artisten katalogoak edo liburuak (Fréger, Nader Koochaki, Zigor, Basterretxea, Iturria, etab.) proposatzen ditu orain.

Qarapen iraunkorra eta birziklatzea: museoaren promoziorako zakuak, poltsa ttipiak sortzen dira, ahal balin bada, erakusketako komunikazio euskarrien materialekin.

Museoko zerbitzu desberdinetatik etorri denda taldea berriki lan eta bezerotza talde gisa antolatu da.



MUSEOKO DENDA BISITA SUSTATZEKO



Euskal Museoko saltokia.

Konfinamenduaren ondorioz da lan talde hau 2020an antolatu, jendarte eta lurraldeko museo baten dendak zer izan behar duenaz gogoetatzeko.


Ondoko mozkinak aitzinean jartzea erabakia izan da:

- lurraldeko ondare biziko enpresei (lehentasunez), artistei eta eskulangileak aitzinera ekartzen dituztenak: Lorea, Rodon, Août en Hiver (bitxiak); Alki (altzariak); Lartigue eta Moutet (euskaletan eta bearnes ehunak); Bergara (makilak); Stéphane Pirel (linograbatua eta grafismoa); etab.
- ahal delarik, gure bildumetatik abiatu kreazio bat gogoetatzeko galdegiten diegu
- haien beste sorkuntzetarako tailerren promozioa egiten dugu.

Kanporako komunikazio tresna nagusia da denda, museoaren erakusleihoa. Objektu bat erosiz, berarekin eramaten duen « objektu eskusiboa » erosten du bisitariak. Objektu bidaiaria preskriptorea bilakatzen da horrela. Premiazkoa da norberak berarekin eramateko objektuak bildumen eta aldi baterako erakusketen arabera asmatuak izan daitezzen, biziki kopuru ttipian eginik, pieza bakunak bilakatzeko horrela.



*Proiektuan den
museoaren urraspidea:*
proiektu ikuspegi eta
governantza metodologia
berria



BAIONAKO EUSKAL MUSEOA GAUR EGUN

Luuzaz herriko etxearena izan ondotik, 2013tik goiti, tokiko 3 kolektibitate biltzen dituen sindikatu misto batek kudeatzen du: Baiona Hiria (%40, eraikinen eta bildumen jabea gelditzen dena), Pirinio Atlantikoetako Departamendua (%30), Euskal Hirigune Elkargoa (%30).

Joan diren azken lau urteetan gure indarraren ardatz nagusia izan da gobernantza gure proiektu urraspideari elkartzea: jabetza eta lurraldea, zientzia eta diru tutoregotza, giza baliabideak elkarrekin eraiki beharreko museoaren hedatzea kudeatzeko gobernantza molde desberdin eta partehartzaileagoa proposatuz.

Euskal Museoak proposatu ondotik sortuak izan dira:

- urtean hiru aldiz bederen biltzen den sindikatu aholkularitza,
- gaikako batzorde teknikoa,
- mailegu eta emaitza batzordea,
- eskaintza deialdi batzordea.

TEKNIKA ETA BUXETA GIDARITZAREN BERRANTOLAKETA ADMINISTRATZAILE ZERBITZUEKIN PROIEKTU MOLDEAN

Herriko eta elkargoko hauteskunde ondotik, sindikatu mistoaren baitako ordezkariaren berrantolaketak euskal probintzia zaharrei hedatu partehartzea Euskal herri barnealdea (Zuberoa, Nafarroa Beherea) eta departamenduko gaskoin zatia (Bearn eta Seignanx Herrialdea) indartu du.

Ibilmolde baldintza berriak asmatu behar dira.

Hortarako, Baionako Euskal Museoaren garapen proiektuaren gidaritza egitura bat (sorkuntza molde) plantan ezaria da.

- Proiektuaren gidaritza batzordea (hedatzearen batzordea) osatua da. Behin bildu da ZKP-a eta proiektuak tutoregotza zerbitzuei zein epetan eta nola aurkeztu zehazteko. Herriko eta elkargoko kontseiluek urrats erabakigarriak balioesten dituzte.

- ZKP-ren urrats partehartzailea: hautetsi hautagaien partehartzea SB-ren baitan + izan daitezkeen diruztatzailak (eEstatua, Eskualdea, Hirigunea, Hiria) + pertsonalitate kalifikatuak.

- CPER/EEPK Estatua Eskualdea Planaren Kontratuaren idazketan partehartzea Euskal Museoari dagokionez (Euskal Hiriguneko agintariekin).

MUSEOKO LANGILE TALDEA: GAITASUN POLOAK SENDOTU

21 LANGILE DAUDE MUSEOAN

Zuzendaritza eta administrazioa: zuzendari-kontserbatzaile bat (ikus ere kontserbatzio zerbitzua), administrazio arduradun bat eta idazkari bat.

Kontserbazioa: kontserbazio arduradun bat, bildumen arduraduna bat eta bildumen kudeatzaile bat.

Liburutegi-dokumentazio zentroa: bi dokumentazio arduradun

Bitartekaritza: bitartekaritza arduradun bat, heldu talde arduradun bat eta bitartekaritza kudeatzaile bat.

Komunikazioa: komunikazio arduradun bat.

Zerbitzu teknikoak: arduradun tekniko bat, zurgin bat.

Hargunea eta zainketa: 7 langile eta udako laguntzaileak.

TALDEA SENDOTU: ELKARREKIN ARTATU ETA ERAIKI, TESTUINGURU HERTSAGARRIAN

- Begitartetze eta erosotasun printzipio berdinak eskaini bisitariei eta gure taldeei.
- Lekuen eta lan baldintzen hobekuntza : bulegoak, plangintzak, pausa/lana erritmoak urte osoan eta asteburuetan irekia den lekuan.

2021ean, Qaztelu Berriko eta Dagourette Etxeko taldeak bildu dira museo baten funtzionamendua eta ez bi talde desberdinena plantan ezartzeko.

- Publikoari irekitze ordutegia aldatua izan da, taldeen aldizkatzea, pausaaldiak, museoaren garbiketa eta mantenua ahalbidetzeko.
- Arduradunen zereginak azkartuak izan dira eta aldizkatuz permanentzia bat segurtatzen dute museoan asteburuetan.

• Lan txandakatze berri bat entseatua izan da 2022 urte osoan, harrera eta zaintza postuan diren 8 langileentzat. 4 eguneko aste bat asteburua barne, 5 eguneko aste bat aldizka. Bi asteburuetako bat lanean.

• Taldeen polibalentzia eta porositate gehiago museoko bi esparruetan, talde bakoitzerako lanbide fitxak errespetatuz.

MUSEOKO LANQILE TALDEA: GAITASUN POLOAK SENDOTU

Hemendik aitzina xedea da:

- Zeharkakotasuna eta adimen kolektiboa aitzinera ekartzea.
- Hargune eta bitartekaritza poloa azkartzea zainketako langileen zereginak aldaraziz
- Harrera eta zainketako langileak hobeki formatzea: aurrean dituzten logizialak, hizkuntza heineratzea, lehen sokorrien gaurkotzea.

TALDE ESTRATEGIA BAT: ELKARREN ARTEAN SEI URTERAKO BIDE ORRIA ERAIKI

- Qure esparruak progresiboki berrantolatu, hedatzea hobeki aurreikusteko. Kontakizun osagarria sortu hiru adarretako.
- ZKP-aren idazketaren eta haren lurralde aspektuen inguruan antolatu.

Aldaketak ezagutu ditu lan taldeak Covid-aren ondotik:

- 4 langile disponibilitatean egokitasun

pertsonalagatik eta lanbide aldaketagatik

- beste bik betirako utzi dute museoa 2021ean.
- 3 langile erretretara joan dira 2021 eta 2022 artean.

Enplegatu ditugu beraz:

- harrerako 2 langile
- bitartekaritzako langile bat (2 langile denbora erdiz)
- idazkari laguntzaile administratibo eta kontulari bat.
- bilduma arduradun bat

Aurreikusiak dira:

- Zuzenbide arloko noiztenkako laguntzaile bat hartzea
- Mugazgaidiko eta europar proiektuen garapenaz arduratuko den pertsona bat hartzea
- Barneko garbiketa / atezaintzarako pertsona bat hartzea
- Langile tekniko polibalente bat hartzea (tindularitza, elektrizitatea, zurgintza, iturgintza)




Argazki bildumen kontserbazio lanak.

ORGANIGRAMA



ORGANIGRAMA BAIONAKO EUSKAL MUSEOA (2023ko martxoa)



FUNTZIONAMENDUA


Museoaren usaiako kudeaketarako beharrezkoak diren xahutze eta sarrera guziak bateratzen ditu buxetaren funtzionamendu sailak. 1,690 M€-ra orekatua den sekzio hau % 9ko emendatzearekin aurkeztua, 2022ko hasierako buxetari konparatuz, kolektibitate guziak, eta bereziki aire tratatzea nahitaezkoa duen museoa inpaktatzen duten energia xahutzeen emendatze azkarra kontutan atxikitzeko.

2023KO FUNTZIONAMENDU SARRERAK : 1 690 000 €

Funtzionamenduko sarrerak sindikatuko kideak diren hiru instituzioetatik datoz nagusiki, bai eta museoaren ustiatze sarreretatik eta beste parte hartze batzuetatik.

Museoaren funtzionamendurako 3 kolektibitate publikoen ekarpena: 1 401 000 € (+%1,9)

Sindikatu mistoa sortu duten hiru kolektibitateen diru mailako partehartzea eta kanpoko hersturei 2023an egin egokitzea bermatzeko puntu funtsezkoa da museoan eta lurraldean abiatu proiektuak segitzeko. 2023ko OB-en jarraipenean aurkeztua da 2023ko OB-a 1 401 000 €-ko diru-emaielen sarreraren emendatzearekin, honela banatua instituzio kideen artean:



Elkargok	Diru parte hartzea
Baiona Hiria	560 400 € (%40)
Euskal Hirigune Elkargoa	420 300 € (% 30)
Pirinio Atlantiko Departamendua	420 300 € (% 30)

FUNTZIONAMENDUA

2023ko funtzionamendu gastuak : 1 690 000 € (1 550 000 €-koak zirelarik 2022an).


1 690 000 €-koak dira 2023ko funtzionamendu arloko gastuak (1 550 000 €-koak zirelarik 2022an), honela banaturik: 1 619 000 €-ko egiazko gastuak eta 71 000 €-ko beste motatako gastuak (amortizazioei emaitza eta biramendua inbestizamendu sailari).

Langileen karguei eta eraikinen kudeaketari lotuak diren gastuei lotuak dira funtzionamendu buxetaren ezin murrizko xahutze bi postuak.

OB-etarako aitzinikusia zen energiaren gastuen emendatze azkarragoa aurreikusten zuten 2023ko perspektibak eta jariakorrei lotuak zaizkien fakturak 2022ko bukaeran heltzen direnez, funtzionamenduko gastuen sailkapena berriz ikusi behar izan dugu.

AK 2023: banaketa
funtzionamendu gastuak 1 690 000 €

- Langileen karguak eta lotutako gastuak
- Jariakinak (elektrizitatea, gaza, ura)
- Museoaren kultur politika (erakusketak, mediazioa, liburutegia, denda...)
- Eraikinei eta ekipamenduei lotutako ezin murrizko gastuak
- Amortizazioen homidura
- Bameko gastuak (formakuntza, parkina,...)
- Ohiko kudeaketa zama
- Inbertsio sailera transferitzea



FUNTZIONAMENDUA

LANGILEEN KARGUAK ETA ANTZEKO GASTUAK: 1 095 000 € (IX OROKORREN %65)

Museoaren ibilmoldearen xahutze guzien %65 ingurukoa da buxeta heineratu hau eta 1,095 M€-tan balioetsia (2022an, 1,070M€-tan zenbakitua da xahutze postu hau, erran nahi baita %2ko emendatzea).

2023an gertatuko da soldata emendatze desberdinen hedapena urte betean (indize puntuaren emendatzea eta indizeen taula).

2023ko OB-en garaian, 1 118 000 €-tan estimatua izan zen gastuen postu hau, apalago ezarria izan da 1 095 000 €-ra ekarria izateko, aitzinetik ezin ikusizko kargu orokorren emendatzeari lotu kargu orokorren emendatzeari loturik (aldi baterako erakusketen zaintza behar apalagoa negu garaian eta zuzendariaren denbora erdiko ordezkatzearen kontrataze epeak kontutan harturik).

2023ko urtarrilaren 1ean, 21 postu iraunkor hartzen ditu langile kopuruaren taulak (hauetarik 3 langile eskubidezko denbora partzialean edo hala baimendurik dira) eta postu ez iraunkorrak harrera eta zaintza beharren arabera (sasoilariak aldi baterako erakusketarako eta jende gehiago asteburuan).

16 postu sare kulturalakoak dira (langile kopuruaren %77), 3 administrazio sarekoak eta 2 teknika sarekoak. C kategoriakoak dira langile kopuruaren %55, %27 B kategoriakoak eta %18 A kategoriakoak.

Buxeta norabideei dagokienez, langile gastuak ondokoari lotuak dira:

- Soldata (indize puntuaren urte beterako emendatzearekin eta SMIC-aren emendatzea 2023ko urtarrilaren 1ean) eta primak.
- Enplegatzailearen parte hartzea elkartasun kutxan, erakunde labeladun batean kideku langileentzako behar orduetako kutxan.
- CNFPT kotizazioak bai eta apendizgorako kotizazio berezia (soldata masaren %0,1).

- Janari txartelak plantan eman erabili nahi dituzten langileentzat (120 € / urtean).
- Sasoilariak hartzea aldi baterako erakusketarako eta zenbait astebururako harrera eta zaintza taldeak azkartzeko, gainsaria ikastun langileentzat.
- Liburutegiko ondare laguntzaile lanpostua aldatzea ondarearen kontserbazio laguntzaile postua bilakarazteko, dokumentazio zentroan eraman misioak egokitzeko.
- Pôle Emploi laguntzak.
- Kudeaketa zentroak jarraitu laneko medikuntzari lotu gastuak.

Honela, % 2ez (1 070 000, 2022ko buxetan sartuak) emendatu dira langile karguei lotu gastuak, 1 095 000€-era ekarriak izateko 2023an.

FUNTZIONAMENDUA

IZAERA OROKORREKO KARGUAK: 522 000 € (DF OSOAREN % 30)

Qastu postu hau emendatzen da 2022ko AB-ari alderatuz (401 000€) eta energiaren kostuaren goratze azkarrak azkarki inpaktatzen du. Eraikinen eta horniduren kudeaketari lotuak dira, ezin murriztu xahutzeek eragin azkarra dute buxetari dagokionez eta hau kultura politikaren kaltetan.

- **Jariakorrei lotu ezin murriztuak :
192 000 €:**

Postu hau azkarki emendatu da 2022 AB-ari alderatuz (120 000 €) energiaren kostuaren goratze azkarrarengatik eta museoko funtzionamenduaren gastuen %12-koa da hemendik aitzina:

- 122 000 € berotzeko eta ur kontsumorako museoaren 2 guneeetan.
- 70 000 € elektrizitaterako, Qaztelu-Berri eta Dagourette guneeetan.

- **Bildumak eta erakusketak plantan ezartzeko eta balioan jartzeko egin gastuak (komunikazioa, bitartekaritza, kultura ekintzak, denda, ...): 189 000 €**

Museoko kultura politikari postu hau emendatzen da 2022ko HB-ari alderatuz (136 000 €) eta museo desberdinek (Orsay, Versailles Jauregia, Louvre,...) mailegatu Bonnat erakusketako obren desmuntatzea, itzultzeko garraioari lotu gastuak inpaktu azkarrarengatik (48 000 €). 2022ko abenduaren 31n bukatu da erakusketa hau eta 2023ko kultura eskaintzako kredituen zati azkarra hartzen du, nahiz eta ohiz kanpoko izan.

Xedea da lehenik, honen ibilbidean aurkeztuak diren **bilduma iraunkorra** eta **erakusketa-txostenen** balioan jartzeari lotuak diren kredituak aurreikustea:

- Urtarrilaren 19tik apirilaren 29ra: Etxabean, **Soineko Paisaia** erakusketa, Nader Koochaki artistaren muntadura artistikoa, artzaintza jardueraren inguruan burutu dituen hainbat

lanen fruitua. Euskal Etnopoloaren baitan, Euskal Kultur Erakunderekin partaidetzan eraman « *Museoa Urtu* » proiektuaren lehen urratsa osatzen du muntadura honek

- 2 erakusketa 2023ko apirilaren 9a arte luzatuko dira ere, **Dominak eta dominekin ohoratuak**. **Ohorezko legioaren eta qoraqarrien historia** (Ohorezko Legioko Hideen Elkarte, Euskal Itsasbazterreko SMLH/OLKE, Baionako batzordearekin partaidetzan) eta **Marie Qaray, Léon Bonnaten ikaslea** bilduma iraunkorren ibilbidea balioan jartzeko gisan.

2023ko uztailaren 7tik 2024ko urtarrilaren 7ra, museoaren 2.estaiaiko Errobi gelan aurkeztu **aldi baterako erakusketari** lotu kredituak aurreikustea da xedea.

Bilboko Euskal Museoarekin partaidetzan antolatu **Euskal Herriko Autokromoak (1907-1935)**, erakusketak, 1910 eta 1930 arteko Euskal Herriaz nehoiz ikusiak izan ez diren kolorezko irudi hauta bat ikusgai jarriko du, eginmolde honen hedapena eta eragina mugaz bi aldeetan bilduz. Ezenografiak, erakusketa seinaletikak, honi

eskaini katalogo baten argitaratzeak, ... eragin gastuak aurreikustea komenigarri da.

Azkenik, kultura eskaintzak ekarri gastuak aurreikustea komenigarri da:

- **Bitartekaritza ekintzak,** Arte eta Kultura Hezkuntzarekin loturik, euskarri pedagogikoen sortzeari eta egokitzeari lotu kredituak, museotik kanpoko gidei ordaindu soldatak, kanpoko eskuhartzaileei gastu ordaintzeak,...
- **Komunikazio eta balioan jartze ekintzak.**

• **Museoko kultura ekintzetan partehartzea:** oartzekoa da euskara balioan jartzeko politika jarraitzen duela Euskal Museoak, euskarri elebidunen bidez, museoak, euskara erabiltzen den leku gisa identifikatzeko bisitak plantan ezarriz.

• **Denda:** museoko dendari zuzendu obra eta mozkinak erosteari lotu kredituak.

Museoko liburutegi baliabide zentroari dagokionez: baliabide zentroan kontsulta daitezkeen obra eta aldizkarien erosketak.

5 000 €-ko partaideengandikako ekarpenak atxikiak dira: Sites et Musées, Euskal Monetari 2023ko kide-tza, Museoen Nazioarteko Kontseilua (ICOM), Ekomuseoen eta Jendarte Museoen Federazioa (FEMS);

Eraikinen eta hornikuntzen mantentzeari lotu karguak: 123 000 €

Ezin murriztuzko gastu postu nagusiak estaltzea da xedea :

- eraikinen eta langileen asurantzak (44 000 €),
- aretoen garbiketa fresak (26 000 €),
- material mantentzea (15 000€), zerbitzu zerga (14 000€), telefonia (7000€), bideozaintza (7000€), etab.

Beste gastuak: Sainte Claire aparkalekuko karguak (10 600 €), langileen formakuntza (4 000 €: nahitaezko formakuntza teknikoak eta euskara formakuntza), misio fresak, zigilatze fresak, desinfekzio eta zaintzarako material erosketak.

AMORTIZAZIO SAILEKO LOTU GASTUAK: 71 000 €:

Orotara 70 000 € kostatzen duten sailen arteko lekualdaketa arloko gastuak hunkitzen dituzte, azken urte hauetan inbestimendu saileko sarrerak diren eta gauzatu inbestimenduen amortizazio beharrak estaltzeko.

Bestalde ere, kredituen eskualdaketa lotu beharrak hunkitzen dituzte. Postu hau apalago ezarri dugu 2023 OB-ei alderatuz, jaria korrei lotu funtzionamendu gastuen emendatzea kontutan hartzeko.



Bonnat erakusketaren muntaketa, 2022an.

INBESTIMENDUA

Ondarearen balioa, molde iraunkorrean aldatzen duten noiztenkako xahutze eta sarrerak erakusten ditu buxetaren inbestimendu sailak. 2023ko AB-ean, 180 000 €-koak dira inbestimendu gastuak (kudeaketa kontua eta kontu administratiboa bozkatu ondotik sartua izanen den 2022ko finantza aldia berriz hartua izan gabe).

Postu hau emendatzen da 2022ko AB-arekin alderatuz (120 000 €) baina apaltzen da 2023ko OB-ei alderatuz (195 000 €), hemendik aitzina Euskal Museorako eragina ukanen duten obligazioak direla eta.

2023KO AB-REN INBESTIMENDU SAILEKO SARRERAK: 180 000 €

180 000 €-ko sarrerak aurreikusten dira 2023ko AB-an. Funtzionamendu gastuei dagozkien amortizazioetako ekarpenetatik datoz lehenik (70 000€).

Euskal Museoko Qaztelu Berriko gunera itzuliak izateko Paueko gaztelutik aterako diren Qramont bildumahartzea ahalbide duten erreseben antolamenduetarako Baiona Hiriren partehartzea igurikatua da (37 000 €).

Museoak zenbait obra zuzenki erosteko proiektuaren baitan, aurreikusia da 35 000 € eskualdatzea Baiona Hiriko lerroetatik (norbanakoen mezenasgo itzultzetik 25 000 € eta urteko erosketatik 10 000 €), honi esker sindikatu mistoak dirulaguntzak zuzenki galdegin diezazkioke DRAC-i obrak erosteko eta ager daitezkeen mezenasen partehartzea eskatzeko.

Abian ezarri proiektuetarako DRAC-en dirulaguntza desberdinak igurikatuak dira ere: Qaztelu Berriko erreseben antolamendua aurreikustekoa bildumen barreaketa berria dela eta, obren zaharberitzeko partehartzea eta bildumen zaintzarako planaren pikoan ematea.

Azkenik, 17 000 €-tan aurreikusiak dira BEZ-aren konpentsazio fondoari lotu sarrerak eta 1 000 €-tan inbestimendu saileko biramenduzko ordeneko errezetak.



2023KO AB-REN INBESTIMENDU SAILEKO GASTUAK : 180 000 €

Obren, eraikinen kudeaketa eta bildumak publikoari aurkezpen mailan sindikatu mistoak dituen araudizko betebeharrei segida bat ematea da helburua.

Ohartzekoa da kontularitza zenbait ezarpenen aldaketa izan dela 2022ko urtarrilaren 1ean M57 nomenklatura plantan ezarria izan ondoren (obren zaharberritze gastuen amortizazioa aurreikusten du besteak beste)

Honela, sindikatu mistoak abian ezarri 2023ko HB-ren inbestimendu gastuen maila, gastu berrien 180 000€ ingurukoa da (2023an bukatuko diren 2022an abiatu gastuak, « gauzatzeko gaineratikoak », sartuak izanen dira kontu administratiboa bozkatua izan ondotik) eta ondoko lehentasun eta proiektuen inguruan artikulatuko da nagusiki:

• Bilduma eta arte obren erosketa (54 000 €):

Amable Ariasen obra multzo bat (20 000 €) eta Jose Antonio Siastagaren obra batzuk erostea aurreikustea da xedea.

Erosketa hauek proposatuak izanen zaizkio 2023ko otsailaren 21 eta 22an, Akitania Berriko erosketa batzordeari.

• Eraikinen kudeaketarako obrei lotu fresak (45 000€):

• **Qaztelu Berriko obrak:** erreserben berrantolamendua eta optimizatzea, zurgintza ateleria 2022an etxabera lekualdatua izan ondotik: altzairuen erreserba 3. estaian plantatua, margolaritza (Qramont) erreserba berria 1. estaian plantatua dagokion apalategi materiala erosiz.

• **Argitu gela:** gelaren antolamendua bitartekaritza taldea publikotik hurbil dagoen esparru bakar batean biltzeko.

• **Informatika hornikuntza eta altzairu fresak (16 000 €) :** biltegiatze eta sute segurtasun altzairuen erosketa.

• Bildumei dagokienez, komeni da ere bildumen zaintzarako planari beharrezkoa zaion materiala erostea eta kudeaketa logiziala berritzea.

• Bukatzeko, 9 000 €-tan estimatua da bildumen zaharberritzearen jarraipena aurten, eta DRAC-eko zaharberritze batzordeari aurkeztua izanen zaio. Museoko liburutegiko obren zaharberritzea hunkitzen du ere.

Xahutze energetikoen emendatze azkar baten testuinguruan aurkeztua da 2023ko aintzinkontua. Zuhurra da, 2022ko finantza aldiari gauzatuari egokituz, HB horrek azpimarratzen du Museoaren kultura jarduera segitzeko nahikeria, ZKP-a obratzen ahalbidetuz aldi berean, lurralde museoaren sarearen garapena bermatzeko gisan.







Gehigarriak




GAZTELU BERRIKO PLANOKAK




È eraikina, Ipar hegala, 0. estaia



È eraikina, Ipar hegala, 1. estaia



E eraikina, Ipar hegala, 2. estaia



E eraikina, Ipar hegala, 3. estaia

ZINEZKO LURRALDEKO JENDARTE MUSEOA ASMATU

Iparraldeko hiru euskal probintzia ohien hiru polaritatetako lurralde erronkak hemendik aitzina museoak kontutan har ditzan aurreikusten du Zientzia eta Kultura proiektuak (2023-2028):

Zuberoan, adar bat Maulen garatzeko beharrarekin;

Nafarroa Beherean, Donapaleuko Herriko Etxeak lagundurik, Chemins-Bideak esparruan plantatua izanen den Nafarroa Behereko elkarte museo profesionala bilakatzeko laguntza baten bitartez, « Musée de France » izendapena ondotik galdegiteko; eta azkenik, Baionan, Lapurdi itsasbazterreko probintzian kokatu Baionako Euskal Museoaren hedatzea.

Irakur 2. kapitulua « Zinezko lurraldeko jendearte museo sortu»



LURRALDEARI BURUZKO KONTAKIZUNAREN ARTIKULAZIOA, POLOAK

Euskal Herriko kultura problematika, haren lurralde konplexutasuna eta probintzia bakoitzaren berezitasuna kontatzean datza, Baionako Euskal Museoak (itsasbazter aldean kokatua) bakarrik ezin du zeregin hori bete.

Ipar Euskal Herriko turismo problematiketako bat da bisitariak progresiboki lurralde osoa kontutan hartzea eta ez bakarrik itsasbazterren alde.



Pirinio Atlantikoetako euskal lurralderako sargune eta sarbideak.

Horretarako proposatzen da hiru poloek, Euskal Herri barnealdeak bisitatze gogoa emateko kontakizun osagarriak oso ditzaten: Baionatik (A63 autopistatik eta Biarritzeko aireportutik sartuz; Bearnatik, A64tik eta Paueko aireportutik sartuz; edota ere A65etik Lourdes eta Tarbesetik.

Museoen eta haien polo edo adarren sareari esker, euskal kulturak dituen berezitasunak, bere auzo bearnes (Pirinio Atlantikoetako departamendu berdinean sartua) eta Bigorrako (ondoko Pirinio Garaietako departamendukoa) kulturekin alderatuz, ezagutzeko parada eskainia da; hiru kultura hauek, Pirinioen oinean kokatu laborantza-artzaintza kulturak izanki, usu « ahizpak » bezala aurkeztuak izan dira, besteak beste, 1937an, Pariseko Erakusketa Unibertsalean.

Hau, Frantziako ikuspuntu bakarretik, Hego Euskal Herriarekiko lokarria mende batez gordetua izan baita. Qarrantzitsua izanen da azaltzea eta lokarri hau gure hizkuntzaren inguruan, gure kulturaren inguruan lantzea, gure Hegoaldeko museoetako lankideekin: Bilboko Euskal Museoa, Donostiako San Telmo Museoa, Iruñeako Nafarroaren Museoa, besteak beste.

Qaien banaketa

Aitzinikusi hiru poloetako pertsona « jakituneko » hiru talderekiko lan iteratiboa burutua izan da 2021 eta 2022 urteetan, mintegi batzuen kariatara.

Lan honi esker, hiru gunetan aldi berean artikulatuak eta osagarriak diren kontakizunak plantan ezarri ahal izan ditugu; aldi berean euskal lurraldearen unizitatea eta honen probintzia bakoitzaren berezitasuna kontutan harturik.

Hala ere, hiru poloetan garatua dena aipatua izan behar da Euskal Museoa, bisitariak lurraldearen eta honen kulturaren lehen ezagutza bat ukaiteko parada ukan dezaten, honen sakontzeko gogoa eskaintzeko horrela.

BARREIAKETA HIRU POLOETAN

Kontakizun bateratua 3 gunetan:

- Euskal Herriko lurraldearen berezitasuna: Espainiarekiko mugak bitan zatitua; zatiketaren historiak eta historiaren gorabeherak mendeetan gaindi eta bereziki aro modernoan.
- euskara: euskalki desberdinak: nafartar-lapurtera eta zuberera, hizkuntzaren soziologia eta berpiztea azken berrogoi urteetan, hizkuntza salbatzeko euskara batua.
- etxea bizitegi unitate sozial gisa, aipatua izanen da hiru gunetan: askaziarekiko harremana, errito eta besten berpizkundea egutegiko erritoen berezitasunekin probintziak.

Adar bakoitzak kontakizun propio berezia eskainiko luke probintziak eta beste bi gunetakikoaz desberdina

Bildumen programazioa berriz ikusia izanen daiteke Baionako Euskal Museoa ere.

Irakur kari horretara 5. kapitulua « Kontakizun bat berreraiki ».

EUSKAL MUSEOAREN POLOA MAULEN SORTZEKO IKUSPEGI ETA ARRAZOINAK

« Ondarearen etxe » ohian plantatuko daiteke Euskal Museoaren adarra Pilota plaza biziki ederrean kokatua da Mauleko herriko etxea eta Turismo Bulegoa (Euskal Herriko Turismoak kudeatua, hiriguneak kudeatua) aterpetzen du gaur egun.

LAU GAI NAGUSI AIPATUKO LITUZKE POLO HONEK:

- paisaiatikako (ipar-hego ardatza), auzoekiko harreman ikuspegi batetik, ipar eta ekialdetik auzoko Bearnetik (Euskal Herrian ez den Pirinio Atlantikoetako zatia da Bearnoa. Alta, herri enblematiko batzuek mugako mistotasun bat eskaintzen dute, halanola Esquiula, Lukuzeko familiak Euskaldunez beterik eta gaur egun (Bearnon kokatua bada ere) zuberotar kultur ohiduren kontserbatorioa dena!

Hegoaldetik, (Aragoia eta Nafarroako lurraldea), mugazgandiko eta « mendiko

lepoetako » pasaien zeregina: besteak beste Atarratzeko herria.

- gizakiaren eragina euskal mendian eta mendiko etxearen antolaketaren ikuspegi zehatza (etxea, olha eta bortukatzea).

- maskarada eta pastoralen ikuspegi sakona (Zuberoari eta Euskal herriari bereziak zaizkien ikuskizun bizi motak) janzkiaren kontserbazio zentro bati eta erreserba bisitagarriari bermatua.



Gaur egun « Ondarearen etxea » eta turismo bulegoaren egoitza den herriko etxe ohia, pilota plazan.

- industriaren sorrera eta espartinaren interpretazio zentro batekiko osagarritasuna (Euskal Herrian Maulen sortua eta Espainiatik besteak beste etorri emazte (Ainarak) eta gizon langile migrazio bat eta hiria eta probintziaren garapen izugarria XX. mendean ahalbidetu zuena).

Ekimenaren izenburua: Mauleko adarra (behin-behineko izena)	Aurreikusi kostu osoa PROGRAMAZIOA AITZIN balioztatua 5 000 000 €/+-	Urtea	Aurreikusi iraupena	Aurreikusi finantzatzeen banaketa
EUSKAL MUSEOA: Programazioaren ikerketa adar bat Maulen sortzeko Mauleko poloa / programazio ikerketa Ondarearen etxean	30 000 €	2024	Ikerketaren iraupena: urte bat.	Akitania eskualdea: %50: 15 000 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: %50 Erran nahi baita: • 64 DK: 7500 € • Euskal Hirigunea: %30: 7500 €
EUSKAL MUSEOA Mauleko adarra: Obralaritza lehiaketa	150 000 €	2025	Lehiaketaren antolaketa eta lehiaketa 2 fasetan marrazki bat jarraikiz	Estatua: %25: 37 000 € Akitania eskualdea: %25: 37 000 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: Erran nahi baita : • 64 DK: %50 38 000 € • Euskal Hirigunea: %50 38 000 €
Obralaritza merkatua	1 500 000 € +/-	2026	Merkatuaren esleitzea Irabazlea eta 2 urteko APS/APD (2024-25) Pro urte 1 (2024-25) diagnostikoak	Estatua: %25: 375 000 € Akitania eskualdea: %25: 375 000 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: Erran nahi baita: • 64 DK: %50 375 000€ • Euskal Hirigunea: 50% 375 000 €
Obren kostua	4 000 000 € +/-	2026	Obren iraupen aurreikusia (2 urte abiatzetik aitzina) Obren kostua Zaharberritzea + eraikitzea	Estatua: 12,5%: 800 000€ Akitania eskualdea: %12,5:800 000 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: Erran nahi baita: • 64 DK: %12,5: 800 000€ • Euskal Hirigunea %12,5:800 000 € Europa: %12,5: 800 000 €

DONAPALEUKO POLOKO IKUSPEQIAK

NAFARROA BEHEREKO ANTOLAKETA ESZENOGRAFIKOA CHEMINS-BIDEAK ESPARRUAN: SAR-HITZA

Ibilbide museografikoak eta Baionako Euskal Museoak alde batetik eta Nafarroa Behereko Museoak beste aldetik (Urrutibehety medikuaren bildumatik datozenak eta Nafarroa Behereko Museoko Adiskideek geroztik bilduak) dauzkaten bildumen arteko osagarritasuna ikusirik, Donapaleuko herriko etxea eta Nafarroa Behereko Adiskideak elkaturik Baionako Euskal Museoarengandik hurbildu dira. Hurbilketa horren helburua da tekniko arloko gaitasuna eskatzea zientzia eta kultura proiektu arloan, Nafarroa Behereko Museoa (jendarte museoa) gaur egun dagoen Donapaleuko herriko etxeko aretoetatik, hiri berdinean den Chemins-Bideak esparrura lekuz aldatzeko.

Proiektu honen xede nagusia da Nafarroa Behereko Museoa, bilduma etnologiko garrantzitsuen jabe den elkarte museoa Bideak, Donapaleuko hiri barnean kokatu Done Jakue bideko zentroan sarraraztea. Jadanik Turismo bulegoa, hitzaldi gela eta erakusketa gelak aterpetzen ditu hornikuntza berri honek.

Hornidura bati zentzuz beteriko edukia ematea eta museoa bildumen kontserbazio prebentiboko baldintza profesioletara helaraztea da xedea beraz; museo instituzio bat eta hornidura polimorfoa batzen laguntzeko honela, bata eta besteari nortasun azkarragoa emateko.

Museo instituzio berri honen ibilmoldea Bideak-en baitan, 1924an sortu eta Kultura Ministerioak eta azken honek departamenduko beste museoekin osatu sarean « Musée de France » aitortu Baionako Euskal Museoaren aitzinakotasunean eta aditutasunean bermatuko da. Plantatzen ari diren leku guziekin osagarri gisa ekinen du, euskal probintzia zaharretako ondarea hobeki ezagutzeko, Nafarroa Beherekoa Konpostelako

bideetan Ostavals, inguruneen balorizazio zentroarekin eta Mehaka, Baigorriko Nafarroa Behereko historiaren interpretazio zentroarekin.

Arte eta historia hirietatik edo gune ohargarrietatik abiatzen diren bideen bateragunean: Nabarrenkoxe, Salvatierra eta Donibane Qarazi, bidegurutze bat, atari bat, sartze bat izanen da Euskal Herrian, hurbil den Bearnoarekiko junta gunean. Baionako Euskal Museoko zientzia eta kultura proiektuan azaldu museo sare batean kokatzen da ere, Maulen eraikia izanen den honen adarrarekin; hiru museo hauek elkarrekin ekinen dute, ondare eta bilduma iraunkorreko baliabide, langileen formakuntza eta erakusketa ibiltari partekatze arloko lurralde antolaketa baten baitan; Irrisarriko Ospitalea zentroarekin ere aldi baterako erakusketei dagokienez.

BATERAGUNEAK ETA BIDEGURUTZEA

Atari bat izanen dira Bideak eta Nafarroa Behereko museoa... ibilbide eremua oinez abiatu aitzin.

Nafarroa Behereko Museoa Bideak zentroan sarrarazi euskal kulturari eta Nafarroa Behereko historia ondareari eskaini leku mistoa sortzeko, herritarren eta hurbiltzen diren publikoen (beilari eta turistak) arteko elkartzea errazten duen kultura eta turismo animazio zentroa eta erakusketa eta aterpetze lekua, Turismo bulegoaren gunea ere den lorategi bikainak osatu kalitateko leku babestuan. Qeldialdia da, atsedean bat, indarberitzea da Konpostelarako bideko bi etaparen artean, historiaz beteriko leku batean (frantziskanoen komentu ohia), lehia eta kultura zentroa nortasun handiko hiri ttipi baten baitan (biharko hiri ttipia) mendiko etapak hasi aitzin.

Xedea da:

- museoaren esparruak Bideak zentroan optimizatzea: ondare objektuen kontserbatzeko eta aurkezteko museoko arte eta kultura bidegurutze sortzea, Konpostelarako bideen atarian, Ostavals eta Baigorriko Mehaka zentroa aitzin (kontakizun osagarriak eta ez lehiakorrak). Batetik bestera egun batez kurrituz heltzen ahal dira beilariak eta ibilkariak.
- esparruetan publikoen arteko sinergia bat sortu: « turistikoak » (TB), bideetakoak (Konpostelarako harrera zentroa) eta hurbileko publikoentzat (Amikuze eta Nafarroa Beherea) Nafarroa Behereko Museoa historia eta ondare kontakizuna kontutan harturik.

- bildu leku bakar eta berdinean, TB, lurraldearen historia, kultura eta ondare berezitasuna azaltzen duen museoa, mendiko etapak abiatu aitzin.
 - zientzia eta kultura eduki bat eman Bideak esparruari museoa plantatuz: bilduma iraunkor esparru bat proposatu, museografia egokitu eta ondare eta arte kontakizuna modernizatu eta egokitu.
 - erakusketa baldintzak segurtasun mailan egokitu obren sekuritateko indarrean dauden arauen arabera, asurantz balio handiagoa duten bildumak hartzeko gisan (trukatzeak, mailegu eta ekarpenak): argiteria, berina segurtatu eta klimatikoak, intrusioen aurkako alarmak, suteen aurkako segurtasuna, etab..
- Urteko aldi baterako erakusketa programa bat gehitzea komeni du, Euskal Museoarekin elkarlanean, iragaiten diren publikoen (beilariak, turistak eta ibilkariak) interesa berraktibatzeke eta hurbileko publikoei arte eta ondare aktualitate bat eskaintzeko.

Proiektua baldintza egokietan eta nahitaezko epean burutua izan dadin bere laguntza ekartzera hitzartu da Baionako Euskal Museoko sindikatu mistoa:

- aldez aurretik proiektu honen kontakizun taldeak animatu (badu jadanik urte bat talde hauek hilabete behin biltzen direla)
- zientzia eta ondare kontakizuna eraiki: antolatua, lurraldean dauden beste ondare lekuen osagarriak eta Donapaleuri berezitua (kontakizunak, kontakizunaren animazio eta eraikitzeke metodologia, berrirakurketa, idazteke laguntza obragintza eta obralaritza kontakizun uztartua

eraikitzen laguntzeko).

- laguntza metodologikoa ekarri proiektu ingeniari eta txosten apailatze arloan, proiektuak beharrezkotzat dituzten dokumentuak idazteke (programazioa, dirulaguntza eskaerak, OL eta obralaritza merkatuen RTBK).
- bildumei buruzko laguntza metodologia arloan (bildumen obralekurako laguntza) eta erakusketei dagokienez.
- gaitasuna ekarri eta obralaritzaren obragintza laguntzerako etorri, obren eszenografia eta segurtasun / seguritate eta bildumen kontserbazio prebentibo ikuspegitik (eskakizun museografikoak, eraikinaren eta bildumen segurtasun eta seguritatea).
- programazioa apailatzen lagundu (metodologia, distantzia kritikoa).
- gaitasuna postu fitxak apailatzeko orduan: langileen kontratatzea.

Eta berantago: Nafarroa Behereko museoaren programazioa Bideak-en lagundu ondoko moldean:

- erakusketa txostenak eta erakusketak lankidetzan burutu
- bilduma mailegu eta ekarpenak
- Euskal Museoa eta Nafarroa Behereko Museoari bermatu denboraldi baten programazioa
- laguntza eta formakuntza langile taldeen profesionalizazioa errazteke
- AKH eta hezkuntza zerbitzuari laguntza kultura ekintza aktibitateak, tresnak eta animazio tailerrak proposatzeko.

DONAPALEUKO POLOKO IKUSPEQIAK

Kontakizun desberdinak garatuak izanen dira bilduma iraunkorretan: ondoko ardatzak atxiki ditu idazketa eta proiektu batzordeak.

1. gaia: historia bat, lekuak eta bilduma bat: lurraldetik priore-etxera eta priore-etxetik lurraldera.

2. gaia: atariak: Nafarroako erresuma eta Konpostelarako bideen bateragunea.

3. gaia: etxea, bizitegi eta ekoizpen unitate gisa, etxetiarretatik kooperatibara, eskulangintza eta laborantza, lur partekatuak eta migrazioak.

4. gaia: Donapaleu bidegurutzea: garai moderno eta garaikidea 1789tik gaur egunera, burgu administrazioak, merkatu eta eskulangintza lekuak (aktibitate eta erakustaldiekin lekuan berean, ehungintza besteak beste).

BALIABIDEAK ETA EGUTEGIA:

2021etik 2022ra: hitzarmena Baionako Euskal Museoarekin: egituraren (2022ko ekaina) eta, ondotik kontakizun idatziaren eraikuntza. Fase hau 2022ko abenduan bukatuko da.

Kontakizunaren eraikuntzaren egin-molde partehartzaile eta iteratiboa lurraldeko jakitunekin eta gizarte zibilarekin; beharren zehaztapena Nafarroa Behereko Museoaren Adiskideekin.

Proiektuaren gobernantzaren eraikuntzarekin (gidaritza) eta bildumen obratzeari laguntzarekin burutuko da fase hau, bai eta aldi baterako lehen erakusketa batekin Bideak gunean 2022ko agorriletik urrira.

2022-23: OL merkatua eta museografia eta eszenografia apailatze-gauzatzea (txosten honen gaiak)

- 2023ko urtarrila APL
- 2023ko ekaina BBAP

Bigarren aldi baterako erakusketa igarokorra.

- 2023ko iraila- 2024ko ekaina fabrikatzea Museoaren leku aldatze plantatzea
- 2024ko ekaina: irekitzea.

FINANTZATZE PLANA BALIOZTATZEA

ESZENOGRAFIA PROIEKTU FASEA


Xahutzeak postuka & partehartzea	Kostuen estimazioa	EHE	Estatua BLHD	64 departamendu kontseilua	Eskualdea	Donapaleu Hiria	% postuka
Proiektu partaidetza	8000 €					8 000 € (%100)	%2,23
2022: OL, Eszenografia asmatze-gauzatze merkatua	50 000 €	25 000 (%50)			25 000 (%50)		%13,96
2023: Eszenografia eta seinaletika fabrikazioa	100 000 €				50 000 € (%50)	50 000 € (%50)	%27,93
2023 : Eraikinaren segurtatze higro/segurtasun/zaintza hauetarik obren seguritatea eta argitzea	150 000 €		50 000 € (%33,3)	50 000 € (%33,3)		50 000 € (%33,3)	%41,89
Ondoko fresak ikerketa eta koef.	30 000 €	25 000 € (%75)				5000 € (%25)	%8,3
Beste fresak	20 000 €					20 000 € (%100)	%5,58
OSOTASUN ESTIMATUA	358 000 €	50 000 €	50 000 €	50 000 €	75 000 €	133 000 €	99,96 arr. %100

DONAPALEUKO POLOKO IKUSPEQIAK



Chemins-Bideak esparruko kalostrea (©Serge Padura)

1 gaia: Historia bat, lekuak eta bilduma bat
Lurraldetik priore-etxera eta priore-etxetik lurraldera,
Arkupean esparru estaliez eta lorategiaz baliatuz.



Chemins-Bideak esparruko hitzaldi gela (©Serge Padura)

Kultura hitzaldien programazio
adostua.



Sortu beharreko museografia

Honi esker kausituko da:


- aurkezpenen malgutasuna,
- objektu hauskorak paneletan eta berina azpian lotzea,
- aktibitateak gelan, objektuen aitzinean gazteenentzat...,
 - ikus-entzuneko aurkezpenak pantailetan ere (aktibitate eta ulermen maila desberdinak)

*Printzipio adibideak emateko beste museo batzuei hartu irudiak dira argazkiak
 Ez dituzte museografiaren hautu estetikoak iragartzen.*

Aurkezpen adibideak

Esparru trinkoagoak.

Aurkezpen metagarri eta didaktikoa, « Jakinmin kabinete »
 modukoa bilduma etnografietarako
 (2. gaia Etxea, adibidez, objektu euskarirako eta/edo honen
 erabilera ahalbidetzeko).



BAIONAKO EUSKAL MUSEOAREN BIGARREN ZAHARBERRITZEA

AUZOTEGI BERDINEAN ETA BONNAT-HELLEU MUSEOAREN PAREAN HEDATZEKO ETA HORRELA « MUSEOEN AUZOTEGIA » BAIONA TTIPIAREN BIHOTZEAN SORTZEKO PARADA

Museo etnografikoa gainditzea da xedea, zinezko jendarte museoa batera buruz jotzeko: atzokoa eta gaurkoa aipatu, ulermen giltzak eman etorkizuna eraikitzeko.

Baionako poloa, Baiona Ttipian hedatzeko behararekin, osagarritasuna sortu (jendarte museoa) Bonnat-Helleu museoaren parean (Arte Ederretako museoa) zinezko museoaren auzotegia sortzeko. Baionar poloa, Baionak, (euskal) Errobi eta Aturri (gaskoinaren) arteko hiri bateragune gisa duen zatia kontatzeko beharra kontuan hartzen du egitasmo berri honek; ibai eta itsas portua aldi berean. Leku guziz estrategikoa, euskal eta gaskoin lurraldearen arteko harremanari dagokionez alde batetik; eta Espainia eta, lehen, Ingalaterraren artekoari beste aldetik (kortsario gelak).

Bi museoak Baiona ttipian konfiguratu eta plantatu: bata Errobiren parean, bestea Aturriren parean (ikus ondoko planoak) gaur egun bizkarrez bizkar diren bi museoak, parez pare jar daitezke Jacques Laffitte karrikaren alde batean eta bestean 100 metro eskasetan bata bestearengandik.

Baiona hirikoa den funts jabetza, **suhiltzaile kaserna ohia** 1920 hamarkadaren garaian) bi urteetan eskuragarria daiteke. Euskal Museotik helgarria daiteke, zati batean garbitua izan behar den gunetik (HTP) eta Baionako Euskal Museoaren azalera baliagarria beste 600 metro karratuz zabal daiteke.

Honi esker, bestalde, ibilbide « ezi » bat ahalbideratu luke eta lehen museoan zegoen korale bat berriz ezartzea ere, ibilbide bat baionar guneko bihotz batean proposatuz Euskal Museotik (erakusketa iraunkor gelak) aldi baterako erakusketa gela batzuetara buruz kasernan antolatu esparru berrian.

Bisitariak horrela gutitan helgarria den baionar guneko bihotz bat ulertzeko eta bisitatzeko aukera luke, baionar korale eta eskailer esparru berezi hauek usaian pribatuak baitira.



Euskal Museoa eta Bonnat-Helleu museoaren hurbiltasuna.

IKUSPEGI ETA ARRAZOINAK 20 URTE BERANTAGO

GUNE BIHOTZ « BERDE » BATEN ANTOLAMENDUA BAIONA TTIPIAREN ERDIGUNEAN

Qune bihotz horrek ondokoa ahalbidetuko luke:

- gaur egun hetsia den korale batera sartzea (punto beltza planoan)
- lehen zegoen kanpoko alde bat Euskal Museorako berreskuratzea
- atsedeen esparru bat itzalean sortzea (terraza bat DEP-en ostatu batekin),
- erran nahi baita erakusketa iraunkor eremu batetik Dagouretten, aldi baterako erakusketa eremu batera, suhiltzaileen kasernara, museotik atera gabe, pasatzea.
- ibilaldi bihurdikatsua etxeen bizkarren artetik, ontzietan landatu esparruen erditik, Baiona, hegoaldeko hirien eremu arrunt berezian berriz kokatzeko.
- ehunezko errezel batez (igarobide estalia) edo berinazko hegazpe batez estali ibilbidea, igarobidea neguan ere, euri egiten duelarik) ahalbidetzeko.

HONELA SORTU ESPARRUAREN PROGRAMAZIOAREN IKUSPEGIAK

Baionako Euskal Museoko eremu librea pixkanaka ttipitu da, 2001ean handitua izan bazen ere

- **Qela berriak atzeman aldi baterako erakusketetarako.**

2001ean, lehen hedatzearen karietara, erakusketa iraunkorreko esparruak antolatuak izan dira bakarrik.

2016an, erakusketa iraunkorreko gelak desmuntatuak izan dira aldi baterako erakusketa esparruak (Errobi gelak) sortzeko.

Xedea da beraz, aldi baterako erakusketa esparru hauek suhiltzaileen kasernara lekualdatuz, Dagouretten 400 m²-ko erakusketa iraunkorreko gelak berreskuratzea, ondokoa lortzeko:

- XX. mendea kontatzea (bigarren maila)
- Beste bi esparru irekitzea (etxabe eta lehen estaian) beste bi kontakizun sarrarazteko (hizkuntza, ibai bateragunea, boterea eta lurraldeak).

• **Museoaren harguneak hobetu:**

- hargune eta denda esparruak hobetu
- kutxatila eta objektu trabagarriak pausatzeke lekuak emendatu
- komunen kopurua emendatu
- atsedeen esparruak eskaini bisita aldian.

Eta beraz bisitarien kopurua emendatzen ikusi

- publikoen zerbitzua eta liburutegia suhiltzaileen kasernan plantatu
- bigarren sarbide bat sortu Jacques Laffitte karrikatik

Bonnat-Helleu Museora buruz bihurtua daiteke horrela Euskal Museoa, sarbideak fluidizatu eta libro uzten ahalbidetzeko horrela, besteak beste bisitak abiatzen direlarik.

BAIONAKO EUSKAL MUSEOAREN BIGARREN ZAHARBERRITZEA IKUSPEQI ETA ARRAZOINAK 20 URTE BERANTAQO

BISITARI KOPURUA

Berriz ireki denetik, eskualde maila onera helarazten duen bisitari kopuru ederra lortzen du, baina museoen gehiengo handiak ezagutzen duen zailtasuna ezagutzen du, higadura tasa gero eta handiagoa, eskaintza pletorikoa eta desberdinari zor zaiona, alde batetik, eta, lehen, museoek bakarrik eskaintzen zituzten jakintza eta delectazio arrazoinek esku uzten zuten kultur numerizatu eskaintza gero eta handiagoari, beste aldetik.

Hala ere, paregabeko abantaila dauka ere, bere ikerketa gai propioa dena: euskal lurralde aberats eta konplexua.

Bizkortasun handiko kultura eta haren ezaugarriek dakarzkieten erakargarritasun handiena eskaintzen ditu: mugazgandikoak, itsasbazterrekoa eta mendikoa, nortasun azkarreko eta zaindu dituen tradizioez beteriko ingurumenarekin. Iparraldeko etnografia, historia eta jendarte museo bakarra izanik, garapen ahalmen handikoa da museoa. Lehen sarbidea eskaintzen dio lurraldeari eta honetan bi adarrez osotua izanen da: Donapaleu eta Maule, Euskal Herri barnealderako garapen iraunkor potentziala errazteko.

Ondokoa da Zientzia eta Kultura Proiektu berriaren helburua:

- bizkortasun horren isla sailhestezina, bere aurpegi guziekin, eta gaur egungo Euskal Herria, bere historia, haren betikotasuna, haren aldaketa eta erronken bitartez beharrezkoa den ulermen gakoarekin ulertzeko.
- Museoa dinamizatu, irudi berri eta eraginkorra pixkanaka eraikiz, bisitarien asmo desberdinekin egokiturik, gai berriei, sekuentzia kronologiko berriei irekitzeko besteak beste XX. mendean gandi agertu erronka berriei dagokienez.

Ekimenaren izena: Euskal Museoaren Baiona poloko hedatzea	Aurreikusi kostu osoa eurotan PROGRAMAZIOA AITZIN balioztatua 10 200 000 euro	Urtea	Aurreikusi iraupena	Aurreikusi finantzatzeen banaketa
EUSKAL MUSEOA: Euskal Museoaren hedatzea hiriko poloa/programazio ikerketa Gaur egungo museoaren aldameneko eraikin batean zaharberritzea Auzotegiko museo baten egituratzea Jendarte museoa: euskal gizarteak XX. mendean ezagutu aldaketak kontutan hartu	50 000 €	2023	Ikerketaren iraupena: urte bat.	Estatua: %25: 12500 € Akitania eskualdea: %25: 12 500 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: %50 Erran nahi baita <ul style="list-style-type: none"> • 64 DK: %30: 7 500 € • Euskal Hirigunea: %30 7500 € • Baiona Hiria: %40: 10 000 €
EUSKAL MUSEOA: Euskal Museoaren hedatzea hiriko poloa / Obralaritza lehiaketa Gaur egungo museoaren aldameneko eraikin batean zaharberritzea Auzotegiko museo baten egituratzea Jendarte museoa: euskal gizarteak XX. mendean ezagutu aldaketak kontutan hartu	150 000 €	2024	Lehiaketaren antolaketa eta lehiaketa 2 fasetan marrazki bat jarraikiz	Estatua: %25: 37500 € Akitania eskualdea: %25: 37 500 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: Erran nahi baita <ul style="list-style-type: none"> • 64 DK: %30: 22 500 € • Euskal Hirigunea: %30: 22 500 € • Baiona Hiria: %40: 30 000 €
Obralaritza merkatua	1 500 000 €	2025	Merkatuaren esleitzea irabazlea eta 2 urteko APS/APD (2024-25) Pro urte 1 (2024-25) diagnostikoak eta kalte ordainak.	Estatua: %25: 375 000 € Akitania eskualdea: %25: 375 000 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: Erran nahi baita <ul style="list-style-type: none"> • 64 DK: %30: 225 000 € • Euskal Hirigunea: %30: 225 000€ • Baiona Hiria: %40: 300 000 €
EUSKAL MUSEOA: Euskal Museoaren hedatzea hiriko poloa / Obralaritza lehiaketa Gaur egungo museoaren aldameneko eraikin batean zaharberritzea Auzotegiko museo baten egituratzea Jendarte museoa: euskal gizarteak XX. mendean ezagutu aldaketak kontutan hartu	8 500 000 €	2026	Obren iraupen aitzinikusia: 2 urte abiatzetik aitzina Obren kostua Zaharberritzea + eraikitzea	Estatua: %12: 1 020 000 € Akitania eskualdea: %12: 1 020 000 € EUROPEA: %12 :1 020 000 € Sindikatu Mistoa diru emaileen bidez: Erran nahi baita 64 <ul style="list-style-type: none"> • DK: %30: 1 632 000 € • Euskal Hirigunea: %30: 1 632 000 € • Baiona Hiria: %40: 2 176 000 €

BILDUMAK EZAGUTU ETA BABESTU

Bildumak hobeki ezagutu eta babesteko gisan, bi dokumentu idatziak izan dira:

Kultura ondasunen zaintzarako plana.

Bildumen kontrola plana

Liburuki bereizia eskainia zaie bi dokumentu hauei eta, aitzinetik eskatuz, Euskal Museoko Bildumen zerbitzuan kontsulta daitezke.



ZIENTZIA ETA KULTURA PROIEKTUA 2023-2028

Baionako Euskal Museoa

Proiektu-zuzendaritza: Sabine Cazenave, zuzendari-kontserbatzaile buru, Baionako Euskal Museoa

Koordinatzailea: Audrey Farabos

Itzulpenak: Peio Heguy - ELHE

Berrirakurketak: Marielen Deliart, Mathilde Bois

Burutzapen grafikoa: Maider Qaicotchea-Rutzu studioa

Inprimatzea: Bixoko

Argazki Kredituak: ©Baionako Euskal Museoa, Euskal Kultur Erakundea, Serge Padura, Kultura Ministerioa, Unsplash.

Baionako Euskal Museoa:

37 Kortsarioen kaia, 64100 BAIONA

05 59 59 08 98

musee-basque.com



Beñat Achiary artista, Euskal Musoean, 2022ko maiatzan.



ZIENTZIA ETA KULTURA PROIEKTUA

BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

2 0 2 3 • 2 0 2 8